



JOKIN BEREZIARTUA

Debagoieneko Ituna

Babes zabala eskuratu du hondakinen trataerarekiko Debagoieneko "ereduak" | 3

Magia euskaraz gozatu ahalko da Elgetan aurtengo edizioan | 30



Oñati munduko kulturen erakusleihu izango da | 17



68 herritar modelo lanetan, Bergarako moda desfilean | 9

Mondra taldeko futbolariak, eguaztenean, Mojategiko entrenamenduan.

TALDEKO LAN ONAREN FRUITUA, AZKEN ERREIMATEAREKIN JASOTZERA

Ohorezko Erregional Mailarako azken urratsa egitea falta zaio Mondrari; Sanpedrotarra hartuko du bihar, Mojategin (17:30) | 27

XABI URZELAI

Lanerako aukeren azokan prestakuntza ere landuko dute

Tailerrekin, lan-esparruan sartzen lagundu gura dute Lanbai azokan | 2

Erabakitze eskubidearen aldeko 'lipdub' erraldoia bihar

Bergaran grabatuko dute; bizikleta martxa ere izango da | 4

SINADURAK

	ARANTZA OTADUI 7
	7 JON BEREIZABAR
	ANE ZUAZUBISKAR 11
	16 MARIJE UGALDE
	AITOR UGALDE 18
	20 JOSU ZALAOÑA
	AMAIÁ RAMÍREZ DE OKARIZ 23
	40 ANDER ETXEBERRIA

San Migelen irudi berriarekin egingo dute prozesioa Corpus Egunean

Domeka eguerdian erakutsiko dute irudi berria, Oñatin | 18



ASTE HONETAN 'PUNTUA'-N:

- Eskola kirolak 25 urte bete ditu
- Joxe Arregi teologoari elkarrizketa

JASO 'PUNTUA' ETXEAN: 943 25 05 05



Touran berria

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70



Das Auto



Giza-baliabide arloko hainbat enpresa ere izango dira Lanbain; irudian, iazko azokan, Adeccoko ordezkari bat azokako bisitari batekin. | L.K.

DATUA

25

KONTRATU

lazko Lanbaireren jarraipena egin du MUK, eta azokatik 25 kontratazio egin direla esan diote enpresek.

tuta tarte mugatua dela; eskaerak datozen neurrian banatuko dugu tarte hori".

Aldez aurretik jakin daiteke ze enpresa joango diren eta bakoitzaren zeren bila doan, eta elkarriketa eskatu, webgune honetan: lanbai2016.mondragon.edu.

"Azoka interesgarria da"

Enpresarik gabe ezin izango litza-teke Lanbai azoka antolatu, eta aurtengo inoiz baino gehiago izango dira, sektore askotarikoak, eta, hainbat, lan-eskaintza zehatzekin; beste askori curriculuma uzteko eta norbera ezagutarazteko aukera ere egongo da.

Arteman da Lanbain izango den enpresetako bat, eta eskaintza zehatz batekin, gainera. Aurtengo selekzio prozesua zabaldu du Artemanek, eta "pertsona horren bila" joango da Lanbaira, Artemaneko Arantzazu Lagunillaren esanetan: "Komunikazio aditua, *community manager* ezagutzak dituen, arlo komertziala landuta duena... profil nahiko zabalekoa". Iaz ere Lanbain izan zen Arteman, eta egiaztatu zuen gazteak "oso ondo prestatuta" daudela "jakintza, jarrera eta ezagutza aldetik; eta gogo handiko jendea da, gainera".

IK4-Ikerlaneko Eneko Perez ere hantxe izango da. Hauxe da euren helburua: "Aukera ematea gazteei eta ikasleei inguru honetan lan egiteko. Eskaera handia dugu eta berau inguruko gazteei erraztu nahi diegu".

Lanbai oso tresna egoki gisa ikusten du Perezek: "Lanbai azokan interesgarria izango da bi ataletan zatitzen dela: betikoa, non enpresek gure standak izango dugun eta CV dezente jaso ditza-kegun, eta gero, elkarriketak egiteko aukera gure proiektuan interesa dutenekin. Aukera ematen digu elkarriketak azkar egiteko, interesatuekin egoteko, eta lehen aukeraketa egiteko asko laguntzen du horrek".

Lau eguneko ibilbide gisa antolatu dute aurtengo Lanbai

► Ekainaren 6tik 8ra, marka pertsonala, CVak, elkarriketak... lantzeko tailerrak emango dituzte, azokara, hilaren 9an, prestatuta joateko

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Azken datuen arabera, %14,41eko langabezia tasa dago. Gauzak horrela, une ezin hobean dator IV. Lanbai Enplegu Azoka, Mondragon Unibertsitateak eta Arrasateko Udalak Lanbideren laguntzarekin antolatuta.

Aurtengo azoka aurrekoetatik desberdina izango da, ibilbide edo prozesu gisa muntatu da eta. Hala, ekainaren 6an, 7an eta 8an tailer batzuk emango dituzte eta 9an, azoka. Tailerretan, lan-munduan arrakastaz hasi nahi duen edonorendako baliagarriak diren tresnak edo gaiak landuko dituzte; horrela, azokara hobeto prestatuta joan daiteke jendea. Zehazki, ekainaren 6an marka pertsonala landuko dute; 7an, curriculuma eta lan-elkarriketak; eta 8an, hautaketa prozesuak. MUKo Enplegurako Lan Orien-

tazio zerbitzuko arduradun Amaia Corralesek eta Maria Alonsok gidatuko dituzte tailerrak. Lanbideko zentro kolaboratzaileak da MUKo enplegu zentroa. Corralesen esanetan, "tailerretan, erremintak emango zaizkie gero

bakoitza bere kabuz lan munduan sartu ahal izateko".

Curriculuma eskuan joatea komeniko da, baina, Alonsok dioenez, "curriculum tresna bizia da eta erreminta hori norberaren ibilbide profesionalera

eta egoera pertsonalera moldatu behar da"; beraz, nahiz eta boladan dauden bideo-curriculumak, portafolioa eta beste formatu batzuk, egokiena zein den norberaren arabera ikusi beharko da. Hori zein den erabakitze gakoak tailer baten emango dituzte, ekainaren 7an.

Enpresek jo dute MUKo

Beste bi nobedade garrantzitsu azpimarratzen ditu azokako koordinatzaile Susana Azpilikuetak: "Batetik, aurtengo datoren enpresa kopurua nabarmendu behar da: 42. Gainera, askoren kasuan, enpresek jo dute guregana azokan egoteko interesa zutelako. Beste nobedade bat da orain arte elkarriketa tarteak MUKo ikasle eta aurtengo nahi duten guztien dako izango dela, kontuan har-

ESANAK

"Elkarriketa tarteak, orain arte MUKo ikasleendako zena, jende guztiari zabaldu diogu aurtengo"

SUSANA AZPILIKUETA
LANBAIKO KOORDINATZAILEA

ESANAK

"Azoka aurreko tailerretan, lan-munduan txertatzeko tresnak erakutsiko ditugu"

AMAIA CORRALES
LAN ORIENTATZAILEA

BEHAR DUZUN TEKNOLOGIA,
BEHAR DUZUN UNEAN ZEHAZKI.

GUZTIA KONTRATATzea. ZURE ESPERIENTZIA.

Ezagutu zehaztasunak Bezeroen Promesa Clienta programa hemen: nissan.es/promesaclienta edo kontasionarioen gure sare ofizialean.

ARABAUTO
Gamarrako Atea, 46 A-B, 01013, Vitoria-Gasteiz, Araba - 945 262 501 - <http://red.nissan.es/arabauto>
Kontsumo mistoa 3,6-5,9 l/100 km. CO2 emisioak: 94-138 g/km.



Debagoieneko Ituna aurkezteko ekitaldian hainbat norbanako eta eragile elkartu ziren, Portaloian. | JOKIN BEREZIARTUA

Babes zabala "eredu" izatearen aldarrikapenari

Debagoienak "epe laburrean" %80 gaika biltzea lortu badu , "edozein lekutan" lor daitekeela diote

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE
Debagoiena Eredu, Zabortegirik ez! plataformak deituta eta mugimendu, alderdi eta sindikatuen ordezkaritza zabal batek babestuta, Debagoieneko Ituna aurkeztu zuten martitzen iluntzean Arrasateko Portaloian. Hondakinen kudeaketan eskualdea "eredu" dela eta eredu hori Gipuzkoara eta Euskal Herri osora zabaltzeko modukoa dela aldarrikatu dute.

Gipuzkoako Ingurumen sailburuak Epeleko zabortegiaren gainean egindako adierazpen "kezagarri" batzuen ostean antolatu zen martitzeneko ekitaldi berezia deitu zuen plataforma. Sailburuak Gipuzkoako zaborrak Epeleko konpostaje planta berrira ekartzea aztertzen ari zirela hedabideen aurrean esan zuenetik hainbat modutara mobilizatu dira plataformako kideak, zabortegia egitearen aurka: "Nola liteke Gipuzkoa mailan ez ezik Euskal Herri mailan hondakin bilketa tasarik handiena duen eskualdeak –%80ko tasarekin– askoz gutxiago birziklatzen duten Gipuzkoako eskualdeen zaborra jasotzea aztertu nahi izatea? Hemen gaudenok, zabortegiaren kontra ez ezik, Debagoiena Gipuzkoarako, Euskal Herrirako eta munduko edozein bazterretarako eredua dela diogu", esan zuten.

"Herritarrak jabetu dira"
Horrekin batera, gogora ekarri zuten Debagoienak erakutsi duela %80 gaika bildu daitekeela "oso epe laburrean", eta gaineratu zuten arduradun politikoei gatazka egoera gainditu ostean "mezu egoki eta bateratua" bidali dutela: "Etxeetan hondakinak sailkatzea nahitaezkoa da, eta, gainera, erraz egiten da. Herritarrak berehala jabetu dira zentzuzkoa dela gaika biltzea. Gipuzkoar guztiek guk bezala egingo balute, zabortegirik ez litzatekeela beharko ozen adierazi nahi dugu. Ez zabortegirik, ezta beharrezkoak ez diren eta interes ekonomiko partikularrei erantzuten dieten azpiegiturarik".

Bestalde, datu esanguratsu bat ere eman zuten: "Arrasto ekologikoaren kalkulua kontuan hartzen badugu, munduko biztanle guztiak debagoiendar bat

bezala biziko balira, hau bezalako hiru planeta beharko genituzke. Ez al da hori hondamendia?".

Itunaren sinatzaileak
Zaborrik ez sortzeko prozesuan ikasitakoa aldarrikatu eta egin beharreko bidea hori izan behar dela sinetsita, "oinarrizko dokumentua" den Debagoieneko Ituna sinatu zuten honako ordezkari hauek: Iñaki Temprano (CCOO), Amagoia Lasagabaster (ELA), Pako Morales (ESK), Arrate Landa (Esteilas), Amaia Arana (LAB), Eva Abuin (Podemos), Mikel Biain (EH Bildu), Juan Luis Merino (Irabazi), Julia Monge (Gorripidea), Martin Anso (Eguzki), Piter Encinas (Ekologistak Martxan) eta Ainhoa Arrozpide (Zero Zabor Ingurumen Babeserako Elkartea). Aurrerago "urrats gehiago" eman-gotituztela eman zuten aditzera.

Debagoieneko Ituna

- Osasuna eta ingurumena dira lehenesten ditugun irizpideak.
- Elkartasun eta erantzukizun frogarik handiena bakoitzak etxean sailkatzea da eta ekintza xume horrek besteei, planetarekiko, ardura eta begirunea adierazten du bete-betean.
- Debagoienean frogatu dugu %80 gaika bildu daitekeela eta oso epe laburrean lortu daitezkeela emaitza horiek.
- Debagoienean egin badugu, beste edozein lekutan egin daiteke. Beraz, Gipuzkoara eta Euskal Herri osora zabaldu nahi dugu gure eredua, Europari begira, erreferente bilakatuz.
- Emaitzak etengabe hobetzeko konpromisoa hartzen dugu.

Arrasate, 2016ko maiatzaren 24a.

Debagoieneko Hezkuntza Bilguneak elkarretaratzeak deitu ditu gaurko, barikua

'Gure Hezkuntza, Lomce eta Heziberri ez' lelopean, herri guztietan biltzeko dei egin dute

XABI GOROSTIDI | DEBAGOIENA
Debagoieneko hamahiru ikas-tetxetatik hamabik Heziberri 2020 planak lehen hezkuntzako 3. mailan ezartzen duen proba diagnostikoari planto egitea erabaki zuten. Horretaz gain, Debagoieneko Hezkuntza Bilgunea izeneko plataforma sortu zuten era honetako lege aldaketan aurrean kolektiboki erantzuteko.

Hezkuntza Bilgunea
Maider Barrutia irakaslearen esanetan, "Debagoieneko ikas-tetxe ezberdinetako hezkuntza komunitateek osatutako plataforma da, eta hezkuntzaz arduratzen den eragile zein herritar guztiei zabaldua dago".

Kolektiboki erantzuteko helburuaz gain, denen artean ekintza bateratuak egin eta herriari hezkuntzarekin lotutako gaien kontzientzia sortzeko asmoarekin jaioetako bilgunea ere bada. "Legeekiko desadostasunak adierazteaz gain, gure arteko harremana eta elkarlana sustatzeko plataforma izatea nahi dugu", adierazi du Maider Barrutiak.

Pasa den egubakoitzean bigarren batzarra egin zuten Aretxabaletako Arkupe aretoan. Proba diagnostikoak egiteko epea agortzeaz dagoela ikusita eta 3. mailako ebaluazioko azken astea dela baliatuta, elkarreta-

ratzeak deitu dituzte gaurko, 17:00etan, herri guztietako plaketan. Euskal Autonomia Erkidegoan planto egingo duten ikastetxe guztien artean argazki bilduma bat osatzea da helburua.

175 ikastetxe EAEn
Hezkuntza plataformen Bilguneak planto egiteko deialdia zabaldu zuenetik, Euskal Autonomia Erkidegoko 166 ikastetxek uko egingo diote azterketa egiteari.

ESANAK

"Ikastetxeen elkarlana eta harremana sustatu nahi dugu"

"Bilgunea hezkuntzaz arduratzen den edonori dago zabaldua"

MAIDER BARRUTIA | KURTZEBARRI
ESKOLAKO 3. MAILAKO IRAKASLEA



T. DE ARANZADI IKASTOLA KOOP. ELK.aren OHIKO BATZAR NAGUSIRAKO DEIALDIA

Gure kooperatibaren Baltzuaren estatutuen 25 artikuluan ezarritakoaren arabera, Artezkaritza Kontseiluak T. DE ARANZADI IKASTOLA, KOOP. ELK.aren Ohiko Batzar Nagusira dei egiten du. Batzarra 2016ko ekainaren 15ean egingo da, **arratsaldeko seietan** lehen deialdian eta, hala balegokio, **sei eta erdietan** bigarren deialdian, Bergara herriko Herrilagunak kaleko **Aranzadi Ikastolan**.

GAI-ZERREDA

- Akta onartzeko kideak izendatzea
- Aurreko bilkurako aktaren onarpen txostena irakurtzea
- 2015/16 ikasturteko memoria
- 2016/17 ikasturteko egitasmoa
- 2015 urteko kontuen kudeaketa aztertu eta, hala balegokio, onestea
- Soberakinen banaketa
- 2016 urteko aldizkako kuoten onarpena
- Galde-erantzunak

Bergaran, 2016ko maiatzaren 27an

Lehendakaria
Aitziber Lopez de Aretxaga Garmendia



OHIKO BATZAR NAGUSIA • D E I A L D I A

Eguna: 2016ko ekainaren 3a
Ordua: 14:30ean lehen deialdia eta 15:00etan bigarrena
Tokia: ULMA Taldeko auditoriuma – Oñati (Gipuzkoa)

GAI ZERREDA

- Aurreko aktaren onarpenari buruzko informazioa eta bazkideak izendatzea batzar honetako akta onartzeko
- 2015eko ekitaldiko gestio soziala aztertzea, eta, onartzea hala badagokio, eta 2016ko gestio plana berrestea hala badagokio
- ULMA Taldeari buruzko txostena
- 2015eko ekitaldiko urteko kontuak aztertzea, eta, onartzea hala badagokio
- Kapitalaren ordainketa. 2015eko ekitaldiari dagozkion interesen sortzapena
- 2015eko ekitaldiko emaitzak banatzea
- POGU III eta Kooperatibaren Barne Araudiko 42 artikulua aldatzea, dagokionean, egoera berezietan interesak sortzeari dagokionez
- MONDRAGON INVERSIONES, S. Coop.en desinbertsioa
- Heziketa eta Kooperatiba Sustapenerako eta Interes Publikoko beste helburu batzuetarako Kontribuzioa aplikatzea (IPDK)
- Bazkide berrien kapitalera ekarpenak
- Menpeko Ekarpen Finantzarioen jaulkipena
- Kontseilu Errektoreko kideak berritzea
- Zaintza Batzordeko kideak berritzea
- Kontseilu Sozialeko kideak berritzea
- Ahalmenak eskuordetzea
- Galde-eskeak

OHARRAK: Bazkideei gogorarazten zaie ULMA Servicios de Manutención, S. Coop.eko (aurrerantzean, "Kooperatiba") sozietatearen egoitzan eskuragarri ditzutela urteko kontuak, emaitzak aplikatzeko proposamena eta kontuen kanpo ikuskaritzak egindako txostena, Batzar Nagusiaren deialdiaren epean zehar aztertu ahal izan ditzaten.

Era berean, bazkideei jakinarazten zaie Kooperatibaren egoitzan eskuragarri ditzutela (I) proposatutako Barne Araudiaren eta POGU IIaren aldaketan testu osoak eta doan emateko edo bidaltzeko eska ditzaketela; eta (II) "Etorkizuneko MONDRAGON" ponentziari MONDRAGONeko Kongresu Arauen onepen-proposamenaren testua, 2016ko martxoaren 18an MONDRAGONeko kooperatiba elkartuei jakinarazitako idazkerarekin. Hau guztia, jakinaren gainean izateko Kooperatibaren Batzar Nagusiaren 8. puntuko erabaki proposamena onartzeko orduan.

Azkenik, bazkideei jakinarazten zaie Kooperatibaren egoitzan eskuragarri ditzutela ere, eratzea proposatzen den Bigarren mailako kooperatibaren estatutu sozialak, jakinaren gainean izateko Kooperatibaren Batzar Nagusiaren 8. puntuko erabaki proposamena onartzeko orduan.

KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA
Oñati, 2016ko maiatzaren 19a

Erabakitzeko eskubidea gauzatzera gonbidatzeko, azken aste bukaera aurretik

Bihar 'lipdub' erraldoi bat grabatuko dute Bergaran eta domekan bizikleta martxa egingo dute Urkulura

JOKIN BEREZIARTUA | DEBAGOIENA
Erain Debagoiena ekimena azken txanpan dago murgilduta ekainaren 5eko herri galdeketari begira. Hasiak dira herriz herri boto aurreratua ahalbidetzen –ikus Herriak ataleko orriak– eta egun handia girotzeko ekitaldiak bata bestearen atzetik antolatu dituzte eskualde osoan. Aste bukaera hau ere ez da salbuespena izango, hainbat izango dira eta erabakia gauzatzeko eguna iragarriko duten ekitaldiak.

Gaur bertan, Bergaran, 1976tik gaur arteko zinegotzi izandako denak deitu dituzte erabakitzeko eskubidearen alde daudela erakusteko –ikus 14. orria–. Eta, Ber-

garan jarraituz, *lipdub* erraldoia grabatuko dute bihar, zapatua, San Martin plazatik hasita (16:30). Asteazken zehar bideoaren hasierako zatiak grabatzen aritu dira zenbait herritarrekin, Iraitx Salagiren gidaritzapean. Hala ere, biharkoa izango da grabaketa saio handia. Gure Esku Dago ekimenaren abestia izango du oinarri *lipdub*-ak. Giroa piztu eta parte hartzea bultzatu nahi dute antolatzaileek, "jai giroan". Horregatik, herritarrek animatu dituzte mozorroak, alkandorak, txapelak... ekarrita joatea grabaketara: "Garrantzitsua da plazara agertzea, ahalik eta jende gehien egon dadin", diote antolatzaileek.



Irudian, Elosuko argazki erraldoia; bihar, *lipdub* erraldoia Bergarako plazan. | I.S.

URKULURA, ETZI

10:00 Oñatiko plazatik.
10:15 Bergarako plazatik.
10:45 Elorregitik.
10:55 Arrasate (Musakolatik).
11:00 Arrasate (Biteritik).
11:15 Eskoriatzako plazatik. Ondoren, Aretxabaletatik martxa bateratua.
11:30 Urkulurako bidegorrian. Ostean, kanpai joleen harrera.

Gutun erraldoia Urkulun

Domekarako, berriz, bizikleta martxa antolatu dute Urkulura. Eskualdeko herrietatik bizikletan joango dira urtegira eta bertan gutun erraldoi bat irudikatuko dute, ekainaren 5erako boto bat irudikatuz. Dei berezia egin dute etzi Urkulun agertzeko: "Bizikletaz ezin baduzu edo nahi ez baduzu, zatoz oinez, autoz edo zaldi gainean... Baina zatoz!".

Emaitzaz harago, debagoien-darrek eta aramarioarrek botoa eman dezatela sustatu gura dute, "ahalik eta parte hartzerik handiena" izateko.

Atzegi Eguna ospatuko dute bihar Arrasaten

J.B. | ARRASATE

Debagoieneko Atzegi Eguna ospatuko da bihar, zapatua, Arrasaten. Adimen urritasuna duten pertsonen bizi kalitatea hobetzea helburu duen elkarteak 2000. urtean antolatu zuen lehen aldiz Atzegi Eguna. Ordutik, urtero antolatzen dute, bailarako herriren baten. 17. edizio honetan 125 bat lagun elkartuko direla dio Debagoieneko koordinatzaile Jokin Antxiak: "Lehen helburua da jaia ospatzea, ondo pasatzea. Protagonistak zain egoten dira eguna noiz helduko, ondo pasatzen dute eta". Hala ere, beste helburu batzuk ere baditu Atzegi Egunak: "Bazkideei informazioa zabaldu, euren kexak jaso eta gure arteko harremanak sendotu".

Bazkaria Uarkapen

Goizerako zein arratsalderako plana izango dute: 12:15ean Kulturaren batzar orokorra egingo dute bailarako bazkideentzat, 13:00etan trago pare bat hartuko dute eta 14:00etan bazkaria egingo dute Uarkapeko jatetxean. Ondoren, dantzaldia eta oparien banaketa izango dituzte.

Baietza eman diote 2.870 argi-puntu led sistemarekin hornitzeko kredituari

Mankomunitateak hamar urterako interesik gabeko mailegua jasoko du

XABI GOROSTIDI | DEBAGOIENA

IDAEk, Energia Aurrezteko eta Dibertsifikatzeko Institutuak, baietza eman dio Debagoieneko Mankomunitateak aurkeztutako *Argi eta garbi* proiektua finantzatzeari. Hori jakinarazteko, prentsaurrekoa egin dute, Mankomunitatearen egoitzan, Joxerra Zubizarreta, Maria Ubarretxena eta Unai Elkorok alkateek.

Proiektu honen bitartez, 2.870 argi-puntutan led argiztatze sistema ezarriko dute; argi kontsumoa %71 txikituko da, eta argi instalazioen CO2 isurketak %68 murriztu. Era honetan banatuko dira argi-puntuak: 408 Aretxabaletan, 916 Arrasaten, 751 Bergaran, 676 Eskoriatzan eta 119 Oñatin, hain zuzen ere.

Inbertsio interesgarria

Guztira, 1.719.560 euroko mailegua jasoko du Mankomunitateak.



Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatzako alkateak. | XABI GOROSTIDI

Hamar urteko mailegua izango da eta ez du inongo interesik izango. "Mailegu hau aprobetxatu dugu gure argiteria sistema hobetzeko eta aurrezki energetikoa lortzeko. Kontuak ondo ate-

raz gero, oso inbertsio interesgarria izan daiteke", adierazi du Unai Elkorok, Aretxabaletako alkateak.

Lehen urtea kenduta, udal bakoitzak urtero ordainduko dio



Mankomunitateari bere inbertsioari dagokion kuota.

Mailegua Mankomunitateak eskatu duenez, udalek zorpetzeko daukaten gaitasuna ez da txikituko, eta beste proiektu batzuk finantzatzeko gaitasuna mantenduko dute.

Prentsaurrekoan adierazita koaren arabera, 7-8 urteko epean egindako argi kontsumoaren aurrezkiarekin inbertsioa ordaintzea espero dute alkateek.

Uztailerako proiektua gauzatzeko, horniduren kontratuko pleguak onartzea espero dute, eta ondoren IDAErekin kontratua sinatuko du Mankomunitateak. Bertan, 12 hilabeteko epea ezartzen da egokitzapen lanak eginda izateko.

DYAk boluntario izateko hitzaldia bihar Bergaran

J.B. | BERGARA

Ez dugu heroirik behar... Zu behar zaitugu izenburuarekin, DYA elkarteak hitzaldia antolatu du biharko Bergarako Irizar jauregian (11:30). Helburua da, azaldu dutenez, aisialdi pixka bat eskaintzearekin bakarrik inguruko jendearen bizitza alda daitekeela eta laguntzeko era asko daudela ikusaraztea. Hortaz, elkarteak kide izateko zer egin behar den ere azalduko dute. Gainera, DYAk bere lan "humanitario eta sozialean" erabiltzen dituen ibilgailu eta erreminta batzuen erakusketari txiki bat ere jarriko dute.

KOMUNIKATUZ ERALDATU JARDUNALDIK

GOIENA TELEBISTA | MAHAI INGURUA | KOMUNIKAZIO ALTERNATIBOA ETA HERRI KOMUNIKABIDEAK ERALDAKETA SOZIALERAKO. BERTAKO ETA LATINOAMERIKAKO KOMUNIKATZAILEEN PARTE-HARTZEAREKIN
EKAINAK 1, 22:00 | MIREN ARREGIK AURKEZTUA



Galerak laurdenera murriztuta bukatu du pasa den urtea Eroski kooperatibak

Banaketa kooperatibak jada "amaitutzat" jo ditu saneamendu operazioak

ENEKO AZURMENDI | DEBAGOIENA.

Balantze ekonomiko berria aurkeztuta, banaketa kooperatibak dagoeneko "amaitutzat" jo ditu saneamendu operazioak. Bertako kideek, gainera, nabarmendu egin dute *Zurekin* izeneko eredu komertzialak izan duen arrakasta.

2016ko urtarrilaren 31n itxi zituen iazko urteko kontuak Eroskik, eta, datuei dagokienez, fakturazioa 6.058 milioi eurokoa izan da eta galerak 61 milioioak. Gauzak horrela, %78 hobetu ditu kontuak banaketa kooperatibak, emaitza negatiboa murriztuta, hain zuzen. Izan ere, 2014ko emaitza negatiboaren laurdena baino txikiagoa izan da 2015ekoa.

Ezohiko narriadurek eraginda, 242 milioi euroko hornidurak egin ditu aktibo materialetan, ez-materialetan eta material higiezinetan.

Gainera, emaitza horiekin, amaitutzat jo dituzte saneamendu operazioak.

Ekitaldi ekonomikoa, azaltzen dutenez, elikagaien merkatuaren hazkunderik ezak eta erregaien prezioaren deflazio egoerak markatu dute. Halaber, fakturazioari eutsi izana lorpenatzat jotzen dute Eroskin, dendetan



Arrasateko supermerkatua. | GOIENA

eginiko birmoldaketei, Eroski Kluba programaren arrakastari eta frankizia denden hedapenari esker.

Helarazitako bestelako datuen artean, bi kopuru daude nabarmentzeko moduan: Ebitda, hau da, enpresa bateko jarduerak ekitaldi ekonomiko jakin batean diru-sarrerak sortzeko duen ahalmena adierazten duen adierazlea 240 milioi eurokoa izan zela iaz, aurreko urtekoa baino %2 handiagoa, eta horrek erakusten du taldearen jarduera

komertzialaren sendotasuna; bigarren kopurua, berriz, da ia 86 milioi eurotan amortizatu zuela Eroskik zor finantzarioa.

Jarduera komertziala sendo
Saltokien birmoldaketak direla eta, salmentak egonkor mantentzen dira. Izan ere, eraldatutako saltoki bakoitzeko %7 igotzen dira salmentak.

Bezeroarekin lotura duten programak garatzeari esker, Eroskik asko hazi ditu aurrezpen transferentziak.

Kooperatiben topaketa ekainaren 10ean

E.A. | ESKORIATZA

Lanki ikertegiak antolatuta, *Kooperatibagintza eta eraldaketa soziala* izeneko ekitaldia egongo da ekainaren 10ean, Eskoriatzako Huhezi fakultatean; Kooperatibagintza Topaketaren IV. edizioa, hain zuzen.

Ekitaldi irekia da kooperatiba zein bestelako eragile-erentzat. Hori bai, aurrez ize-na eman behar da. Horretarako, akareaga@mondragon.edu helbidera mezu bat idatzi, edota Interneten Lanki iker-tegiaren webgunean dagoen inprimakia bete beharko da.

09:00etatik 14:00etara izango da topaketa eta hainbat ekitaldi eta hitzaldi egongo dira. Hauek dira horietariko batzuk: *Ipar Euskal Herria*, Xabier Itcaina (Sciences Po Bordeaux); *Bartzelonako Sants Auzoa*, Elba Mansilla (LaCiutat Invisible); *Ipar Irlanda eraldatzen*, Gorka Espiau (Young Foundation); eta *Ekonomia Soziala Quebecen*, Enekoitz Etxezarreta (Gezki-EHU). Horrez gain, Arrasateko kooperatibagintzaren gaineko hitzaldia ere egongo da, Aitzol Loyolaren eskutik.

'Atxiki dezagun oraina!' eguna ekainaren 4an Bergaran

E.A. | BERGARA

Joxemi Zumalabe Fundazioko kideek antolatutako eguna izango da hau, Fundazioaren proiektu berriak eraikitzen hasi zirenetik lan egin duten norbanako eta kolektibo ezberdinekin berriz elkartzeko helburuarekin sortutakoa. Hain justu ere, 2012an egin zuten aurkezpena, Zarautzen.

Egitarrak mamitsua antolatu dute egun horretarako. Goizez, Herri Mugimenduetako kultura politikaren inguruko solasaldia egongo da Irizar jauregian.

Zigor Olabarria Eleak taldeko kidea, Itziar Gandarias ikertzaile eta aktibista feminista, Mauge Cañada Arterra Bizimodu proiektuko kidea eta Julen Zabalo aktibista eta EHUko irakaslea izango dira solaskideak.

Eguerdian Gaztetxean bazkaria egongo da eta ondoren, Ane Labaka eta Amaia Iturrriotz bertsolariek alaituko dute giroa.

Gauean, eguna bukatzeko, kontzertua egongo da, Vinagre de Moderna, Zarzaparrilla eta Maribi DJs taldeen eskutik.

ION
leihoak

ZORUAK
LEIHOAK
ATEAK
HORMA ARMAIRUAK



THERMOFLOC

ISOLAMENDU-SISTEMA ADIMENDUNAK
ZURE ETXERAKO ISOLATZAILE NATURAL ONENAK DITUGU:
KORTXOA, ZELULOSA, ETA ABAR



Ekologikoa
eta naturala



%50eko aurrezpena
zure fakturan



Kondentsazio-hezetasun
GEHIAGORIK EZ



Zarata nekagarri
GEHIAGORIK EZ

Etxebizitza egun bakarrean isolatuko dizugu **900** eurotik aurrera

BIOTERRA 2016

Bioterra 2016: produktu ekologikoen, bioeraikuntzaren, energia berriztagarrien eta kontsumo arduratsuen azoka.

Thermofloc isolatzaile berriaren aurkezpena
Bioterra 2016 Ficoban (Irunen)
Ekainaren 3an, 4an eta 5ean

ZATOZ ZURE GONBIDAPENA JASOTZERA ION LEIHOAK-ERA.

Telleria kalea 4 • 11 pabilioia
Arrasate • Tel.: 943 79 11 35
www.ventaion.com
arrasate@ventaion.com



Parte hartzaileak Arantzazuko auzo etxean. | MIREN ARREGI

Lehen sektorea biziberritzeko jardunaldiak egin dituzte

Gazteak lehen sektorerako gerturatu eta baserria biziberritzeko helburuarekin egin dira horiek

M.A | OÑATI

Deba-Garaia Landa Garapenerako Elkartek antolatuta, jardunaldiak egin dituzte astean Arantzazuko auzo-etxean. Han batu dira Debagoieneko hainbat baserriar, lehen sektorean diharduten elkartek, udaletako ordezkariak, auzo alka-

teak, eta beste. Landa Garapenerako planaren barruan kokatzen da jardunaldia eta helburua da sektorean diharduten profesionalen iritziak batuz nekazaritza jarduerak sustatu eta lehen sektorea biziberritzea. "Ahalik eta baserri gehien bizirik mantentzea, base-

rritar berriei ateak irekitzea eta bide horretan dauden oztopoei irtenbidea bilatzea da helburua", argitu du Landa Garapenerako presidente Maite Aristegik. Identifikatuta dituzten oztopoen artean nagusia da lur falta: "Lur falta eta lurraren transmisiorako dauden arazoak", dio Aristegik. Beste oztopo batzuk dira lurrak errentan ematerako orduan jabeek izan ohi duten mesfidantza; lurrarekiko lotura sentimentala eta baita herentzia ondorengo banaketak ere. Hain zuzen ere, oztopo horiei irtenbideak bilatzeko ekinaldia izan da astean egin duten hori.

Transmisioaren garrantzia

Transmisiorik ez badago ezinezkoa da baserria biziberritzea, eta, Aristegiren esanetan, irtenbideak lehen sektorean diharduten guztien artean bilatu behar dira.

Erakundeek euren aldetik badute zer egin, Aristegiren ustez, eta bideak erraztu beharko lituzkete: "Etxebidek etxebizitzekin egiten duen moduan, lurrekin ere egin daiteke horrelako zerbait, baratzak ipintzeko guñak sortzea ere lehen sektorea bultzatzea da. Gizarte orekatu baterako ezinbestekoa da baserria".

Ordaindu eta Eskuraturekin batu da Nagua Alba

E.A / M.A | ARRASATE

Nagua Alba diputatuaren Kongresurako Podemos-Ahal Dugu alderdiko zerrendaburua Ordaindu eta Eskuratu plataformetako kideekin batu da Arrasaten astean. Plataformek Mondragon Taldearekin daukaten arazoaren berri eman diote, eta hauteskunde programan kasu hau

kontuan hartzeko eskatu. Albak adierazi du eskatutakoa kontuan hartuko dutela Podemosek eta berak pertsonalki ere kasu honi gertuko jarraipena egingo diola ziurtatu du: "Oso larria iruditzen zaigu gertatzen ari zaiena. Konponbidea argia da: dirua eta lanpostuak bueltatu behar dizkiete".



Nagua Alba, Ordainduko eta Eskuratuordezkariekin. | ENKO AZURMENDI



EAJko ordezkariak Joserra Zubizarreta alkatearekin. | IMANOL BELOKI

EAJk Madrilen dituen ordezkariak Eskoriatzan, babesa ematen

I.B / M.A | ESKORIATZA

Eskoriatzako Batzokia bete egin zen martitzenean EAJko afiliatu eta herritarrekin. Hain zuzen ere, EAJk hauteskundeak irabazi zituela urtebete pasa dela ospatu zuten. Bertan, Gobernua osatzen duten zinegotzi Puri Regidor, Maite Uribe, Josu Ezkurdia eta Maite Zubiak eta Joserra Zubizarreta alkateak, bakoitzak lantzen duen alorrean

egindako hobekuntza, aldaketa eta akordioen berri eman zuten bertaratu zirenen aurrean.

Victoriano Gallastegi –EAJko Senaturako Gipuzkoako hautagaia–, Maria Eugenia Iparra girre –Senaturako hautagaia– eta Iñigo Barandiaran –Madrilgo Kongresurako hautagaia– bertan izan ziren Eskoriatzako Udal Gobernuaren helburuak ezagutzen, eta babesa ematen.

Hasi dira hauteskunde mahaletan egongo diren herritarrek izendatzeko zozketak egiten

M.A | ARRASATE

Ekainaren 1a baino lehen egingo dira ekainaren 26ko Espainiako hauteskundeetan hauteskunde mahaletan egon beharko duten herritarrek zeintzuk izango diren erabakitze zozketak. Dagoeneko Bergaran, Eskoriatzan eta Antzuolan egin dituzte zozketak;

gainontzekoetan, datorren eguaztena baino lehen egingo dituzte.

Maiatzaren 31n argitaratuko dira Estatuko Aldizkari Ofizialean hautagaien zerrendak eta ekainaren 6ra arte egongo da Auzitegi Konstituzionalean errekursoak aurkezteko aukera. Bestetik, posta bidezko botoa eskatzeko azken

eguna ekainaren 16a izango da; ekainaren 22a, posta bidezko botoa emateko azken eguna. Ekainaren 9an emango du Konstituzionalak hautagaitzen gaineko azken erabakia eta hurrengo egunean hasiko da hauteskunde kanpaina ofiziala. Bi aste iraungo du horrek, ekainaren 24an bukatuko baita. Hurrengo eguna hausnarketa eguna da eta ekainaren 26an izango dira Espainiako Gorteetarako hauteskundeak.

Herri indigenen dokumentalak erakutsi dituzte

Komunikatuz Eraldatu - herriak euren komunikazioaren jabe jardunaldien baitan Latinoamerikako herri indigenek euren egoera azaldu eta eskubide urraketak salatze eginiko dokumentalak erakutsi dituzte Arrasateko Kulturaren.



JOKIN BEREZIARTUA



LANBIDE HEZIKETA EUSKARAZ

Mondragon Goi Eskola Politeknikoa
Loramendi 4
Arrasate-Mondragon • 943 794700
<http://www.mondragon.edu/eu/gep>

Miguel Altuna Institutua
Ibargarai 1
Bergara • 943 762491
<http://www.imaltuna.hezkuntza.net>

Arizmendi Ikastola
Otalora lizentziaduna 8
Arrasate-Mondragon • 943 772025
<http://www.arizmendi.eus>

Oñati Gestio Heziketa
Ibarra zelai 2
Oñati • 943 718009
www.onatigh.com

Mariaren Lagundia Ikastola
Bidekurutzeta 37
Bergara • 943 762541
<http://www.mlagundia.net/>

Zuazola-Larraña
Aita Madina z/g
Oñati • 943 782150
<http://www.zuazolalarranabhi.hezkuntza.net>

Aretxabaletako Lanbide Eskola
Txarapea ibilbidea
Aretxabaleta • 943797900
<http://www.aretxabaleta.hezkuntza.net>

AURREMATRIKULA:
EKAINAREN 6TIK
EKAINAREN 17RA

ZABALIK



ARANTZA OTADUI
goiena.eus/komunitatea/

Odisea

Orain dela hiru urte, lagun talde bat elkartu ginen amesten genuen proiektu bat eraikitzeko asmoz. Urteak generamatzan ondarea gogoko zuten afizionatuekin elkarlanean, eta ulertu genuen iritsi zela garaia Debagoieneko ondare naturala eta kulturala profesionaltasunez ikertzeko eta ezagutarazteko.

Hori lortzeko, formakuntza akademiko egokia izateaz gain, urte askotako lan esperientzia genuen gutako bakoitzak. Baina, batez ere, erronkari aurre egiteko nahiko indar genuen, aurrean aurkitu genituen traba guztiak eta babes eskasa ekiditeko.

Pasatako hirurtekoan ikasi dugu edozein helbururi heltzeko beti ez dela komenigarria ondo seinaleztatutako bidea jarraitzea. Batzuetan, bide malkartsuak aberasgarriago bilakatzen dira, bertan ez baitira Scillaren arrokatik gertu bizi diren sirenen kantu goxoak entzuten. Urte hauetan, Odiseoren ontzidia bezala, gure proiektuak hainbat ezbeharri aurre egin behar izan dizkio. Baina ekaitza beti bare-tu da.

Hala ere, bidean, lagun batzuek nekearen eraginez amore eman dute eta Itsaso sakonean ito dira. Aurrera jarraitu dugunok tristuraz agurtu behar izan ditugu, baina argi dugu gurekin batera Iraganeko Oinatzak begiztatu nahi dituztenen arnasaren indarrari esker Itakara iritsiko garela.

Odiseok hamar urte pasa zituen, nora ezean, bere irlan porturatzeko. Guk, momentuz, hiru urte oso aberasgarri eman ditugu eta jarraitzeko gogoz gaude, egunetik egunera, Debagoieneko erakundeen bermea, baina, batez ere, herritarren interesa eta laguntasuna jasotzen dugulako.

Lerro hauekin herritar horiei, bereziki, eskerrak eman nahi dizkiet, gurekin bisita gidatu eta ikastaroak burutzeagatik, baina, batez ere, gure ikerketa eta ekintzen zabalkundea euren sare sozialen bitartez burutzeagatik. Guztion artean Debagoieneko Troia azalaraziko dugu.

USTEAK USTE


JON BEREZIBAR | jberezibar@goiena.eus

Berezkotik gutxi

Unibertsitatean informatikari zereginetan dabilen lagun batek *natibo digitalez* hitz egitean barre egin zidan orain hurrengoan. Hilabete gutxiko iloba, besoetan nuela, eskuan nuen mugikorreko pantailara atzamarra luzatu eta pantaila pasatzen hasi zitzaidala azaldu nien lagunei; txundituta nengoela. Bera "are txundituago" zegoela erantzun zidan, urtero-urtero fakultatean hasten diren 18 urteko gaztetxo *berez-berezko* digitalekin. Urterik urte, geroago eta handiagoa ei da lagunari bulegoan pilatzen zaion ordenagailu hondatu eta birusez jositakoen tontorra; sarean infektatutakoak guztiak.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE | goiena.eus/komunitatea/



HANDIK ETA HEMENDIK

Fobu

Angel Erro
<http://goo.gl/ymyHTD>

Gaur ikasi dut izen hori, ingelesezko siglez osatua, eman diotela harreman bati amaiera emateko beldurrari (euskaraz, beraz, HAEB beharko luke).

Nork ez dio beldurrik izanen egunerokoaren inertzia –nahiz eta beheranzkoa izan, nahiz eta argi egon inora ez daramala– bat-batean eteteari, horrek ekar dezakeen erantzukizun sortari aurre egiteari edo lagun mina izanaren ahoan traidore hitzaren agerpenari?

Betiko gaitza ematen badu ere, izena orain paratu badiote, oraingo behar larriagoari erantzuten diolako seinale.

Sare sozialetako garaian errazago itzuri ahal zaie harremanei, eta are isuri ere, guztia likidoagoa delako.

Ezagutzen dut bost urtetako harremana *Whatsapp* bidez eten duenik.

Onartu nion, horrela ez egitera, oraindik jarraituko luketela elkarrekin

Baina ez da maitasunarena HAEBaren agertoki bakarra.

Atzo jakin genuen asanbladen bidez Otegi aukeratu dutela lehendakarigai.

Ezker abertzalearen kideak urte luzeetan egon dira harreman bati amaiera emateko beldurrak jota, denborari denbora emanez, gauzak usteltzen utzirik.

Agintariek, antza, Arnaldo Otegi buru, argi zuten etetearena, asanbladetan inork tutik ere esaten ez bazien ere.

Horregatik haiek ere ez ziren ausartzen.

Artean ez zegoen *Whatsapp*-ik.

Bankua

Samara Velte
<http://goo.gl/OdBg8D>

Modernoen auzoa omen da gurea.

Garagardoaren batez besteko prezioa bi euro eta erdikoa da; bizartegiek *barber shop* izena dute; *azoka* deitzen diotena supermerkatu *vintage* bat da; eta igande goizetan ez da Hondakinaren Saririk jasotzea merezi duen inor geratzen kale bazterretan: eguzkitako betaurreko distiratsuekin irteten dira gazteak bermutera

Auzoaren behealdean, Catalunya Caixaren sukurtsal ohi bat okupatu zuten duela bost urte.

Tokia hutsik zegoen, eta harrezkero gune sozial bihurtu dute, errealitatearekiko desafioa dirudien izena ipinita: *Banc Expropiat*, desjabetutako bankua.

Doako arropa eta liburu denda bat zabaldu zuten bertan; eta egunero ikastaroak eskaintzen hasi ziren, baita euskarakoak ere.

Kanpotik, bankuak ez zion oso ondo ematen auzoko giro geroz eta modernoagoari; *hipsterismoa* eta *hippiekeria* zarpaila bereizten dakien edonor ohartuko zen horretaz. Inguruan geroz eta gutxiago sumatzen zen zerbaiten azken arrastoa zirudien.

Urtarrilean udalak alokairua ordaintzeari utzi zion, eta herenegun hutsarazi zuten bankua, "pribatuen arteko afera" zela argudiatuta.

Auziak auzoa piztu zuen, eta plazak sutan bukatu zuen.

Mossoek hamabost lagun zauritu zituzten foamezko jaurtigaiekin.

Pribatua, diote; baina aspaldian ez da egon horren afera publikorik auzoan.

goiena

KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Lehendakaria Aitor Izagire
Zuzendari nagusia Iban Arantzabal

Maketazioa Imanol Soriano, Aitor Lagoma, Ozel Arrieta.
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiano, Zortza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia.
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.com

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.com

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 00
harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.850 ale
Diffusioa: 18.507 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioako Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

Emakumeon Munduko Martxako haziak ereitera goaz

Jaione Martinez eta Eneritz Ugalde
(Arrasateko Emakumeon Mundu Martxako Plataforma / Gaztetxeko Emakumeon Asanblada)
Arrasate

Gure Esku Dago-k ekainaren 5erako erabakitzeko eskubidea ereiteko dei egin du, eta guk Emakumeon Mundu Martxako (EMM) haziak ereiteko prest gaudela aldarrikatu nahi dugu; izan ere, ereiten diren hazien araberakoa da jasotzen den uzta.

Aurreko urtean, indarkeriarik gabeko gorputz eta lurraldeen alde, bizitzaren iraunkortasuna erdian jartzen duen sistema baten alde, gorputz eta sexualitate askatasunaren alde eta aniztasuna aldarrikatuz gure artean aliantzak ehuntzearen alde haziak erein genituen. Eta jarraitzen dugu.

Mugimendu feministako aitzindari izan ziren emakume sufragistek ere emakumeon erabakitzeko eskubidearen garrantzia zabaldu zuten mundu osoan barrena.

Hauek argi izan zuten, garaiko legeek esanak esan, momentuko politikaren erdigunean emakumeon behar eta interesak egon zitezen, gure ahotsa entzunaraztea ezinbestekoa zela.

Hala ere, historiak erakutsi digu, emakumeon hitzak zidorretik erdigunera pasa nahi baditugu, botoa emate hutsa ez dela inondik inora nahikoa.

Loratu daitezkeen proiektu orotan gure aldarrikapenak oinarrian egon daitezen, ereiten diren hazietan gure haziak egongo direla ziurtatuko dugu.

Egunero eta sistematikoki gure aurka egiten duen sistema hau dagoeneko ezagutzen dugu.

Horregatik, oraina eta etorkizuna diseinatu nahi ditugu, bazterretatik, ezberdintasun guztiak aintzat hartuta, batu eta elkarrekin erdigunean egon nahi dugu.

Parte-hartze prozesu guztietan gure ahotsa azalerazi eta proiektu berriak alternatiba errealez jantzi nahi ditugu.

Ez digute historia liburuetan gure emakumeen izenak idazten utzi, baina biharko eskoletan neska gazteek erreferente izango dituzten emakumeen izenak ikas ditzaten lan egingo dugu.

Eta, aldi berean, arrakasta eta lehiaren eredutik harago, lehen lerroan eta hizki larriz idazten den hori birdefinitu

GUTUNAK

Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak dira: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa.
Gutuna helarazteko bideak dira: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

nahi dugu, bertso txikitan idazten den historia liburuak mahai gainera ekarriz.

Horregatik, Arrasaten eta eskualdean bizi diren emakume guztiei dei egiten diegu, bizitza erdigunean jartzen duen jendarte eredu feminista eta anitza elkarrekin erein dezagun. Ereiten ditugun haziak, mimoz ureztatu eta zainduz gero, laster loratuko dira!

Ekainaren 4an euskaltzaleok Iruñera

Oskar Elizburu
(Arrasateko Euskalgintzaren izenean)
Arrasate

Arrasateko Euskalgintza osatzen dugun erakundeok bat egiten dugu Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak ekainaren 4rako, Iruñean, deitu duen manifestazioarekin eta bertaratzeko deia zabaltzen dizuegu euskaltzale guztioi. Manifestazioa Golem zinemetatik aterako da, 17:30ean, *Bide eman euskarari, euskaraz bizi nahi dugu* lelopean.

Izan ere, iazko hauteskundeen ondorioz Nafarroan eman zen gobernu aldaketa berri pozgarri eta itxaropentsua izan zen euskaltzaleentzat.

Halere, gobernu hori garatzen ari den hizkuntza politika oso urruti dago herrialdeko euskaltzaleek eskubidez eskatzen eta espero dutenetik.

Adibide batzuk jartzearren, Euskararen Legea aldatzea bidean geratu da, oraingoz; irakaskuntzako aurrematrikulazio kanpainan Gobernuak ez zuen D eredua bultzatu; lan deialdietan euskararen balorazioa arautzen duen Dekretuak UPNren garaiko bera izaten jarraitzen du; errepideetako karteletan gaztelaniaren nagusitasuna ezarria dauka bere kartel ereduen eskuliburuan; euskarazko hedabideentzako diru laguntzak jaitsi egin ditu...

Gauzak horrela, Nafarroako Euskalgintza beldur da lau urteak igaro daitezkeela inolako aurrerapausorik eman gabe

eta, horrenbestez, ezinbestekotzat jotzen du euskarari bide emango dioten neurri ausartak publikoki aldarrikatzea, gobernua presionatze aldera.

Manifestazioaren sustatzaileek adierazten dutenez, "justiziazkoa delako, oreka soziala bermatzeko beharrezkoa delako eta euskaraz bizi nahi dugun herritarrok behar eta merezi ditugulako", hemen, Nafarroan eta Euskal Herri osoan.

Zenbat aldiz inaugura liteke obra bat?

Oihana Aranburu Iriarte eta Amaia Larrañaga Galdos
(2007-2011 legealdiko Hezkuntza zinegotzia eta 2011-2015 legealdiko Hezkuntza zinegotzia, hurrenez hurren)
Arrasate

Politikarien inguruko txisteen artean –asko, merezitakoak, egia esan–, obrak inauguratzearen eszenografia da ezagunenetako bat.

Obrak erdi amaitu gabe inauguratzea ohikoa omen da hauteskunde kanpainan edota behargin bat eta hamar hautetsi agertzen diren argazki *xelebre* horiek bat baino gehiago dira herri iruditegian.

Arrasaten, ordea, bada bariante berri bat inaugurazioen alorrean, lan bera bi aldiz inauguratzearena.

Orain dela aste bi, alkatea ageri zen Hezkuntza zinegotziaren alboan udal teknikari eta eskola ordezkariez lagundurik. Alkateak koaderno batzuk eman zituen ezagutzera, herriko ikastetxeetan curriculum lokala lantzeko erabiltzeko asmoz.

Saiakera ona, Maria, benetan. Kasik, ondo atera zaizu. Pena da, ordea, EH Bildu hemen egotea, egia osoa bistarazteko.

Egia baita Udalak curriculum lokala bultzatu nahi duena eta izan duena, ondo egina, eta ikastetxeen lankidetzaz izan dela.

Hik Hasi aipatzea falta izan zaizue, ordea,

ezinbesteko aktorea lan honetan, eta, batez ere, lanaren hastapena eta gauzatzea nork egin zuen aipatzea falta izan zaizue.

2007-2011 legealdian ANVk jarri zuen martxan ekimena ikastetxeen eta Hik Hasiren laguntzarekin eta Bilduk jarraitu eta amaitu zuen.

Oraingoan, nobedadea da eginiko lanaren kopia gehiago atera direla inprentan eta herritarrek koadernoak erosteko aukera dutela.

Kopia gehiago behar direla, ederto. Herritarrek erosteko aukera izatea, ederto hori ere.

Baina ez berritzat saltzea bigarren eskuko kotxea. Hemen, 2010eko, 2013ko eta 2016ko albisteen loturak, dioguna berresteko.

Gezurra esan nuen Getarian eta orain ea nola defendatzen dudan hau Portaloian, ezta?

2010: <http://goo.gl/LouMf5>
2013: <http://goo.gl/7NNA9D> <http://goo.gl/1lZZ4a>

2016: <http://goo.gl/Yoo2rd>
<http://goo.gl/JBn2Bj>

E8tik E5era

Enrike Gorrotxategi
Elgeta

Orain dela bi urte, E8an izan ginen, hainbeste herritar elkartu zituen giza katean.

Orain, ekainaren 5ean, E5ean, berriz ere kalera aterako gara; baina, oraingoan, aldamenekoaren eskuari heldu beharrean, boto bat izango dugu eskuan gure etorkizuna lantzen joateko.

Duela bi urte, biharamunean, E9an, ez ginen independente esnatu, eta ekainaren 6an ere ez gara independente esnatuko, baina, ameskerietan ibili gabe, gure ametsetik gertuago izango gara.

Izan ere, beste hark esaten zuenez, "zenbat eta gehiago saiatu, besterik ez, baina helburua lortzetik gero eta gertuago egongo gara".

Beharbada, ez zinen E8an erabakitzeko eskubidearen aldeko kate hartan izan.

Orain, baina, galdeketan parte hartzeko eskubidea izango duzu.

Ez da galdeketa *ofiziala* izango, baina zure eta nire

iritzia ezagutzeko balioko du, baldin eta parte hartzen baduzu.

Nik parte hartuko dut. Eta, gero? Ba, behin ikasita denon artean gauzak erabaki ditzakegula, galdeketa nolabait ofizial bihurtzeko lanean jarraitu beharko dugu, eta, zenbat eta jende gehiago saiatu bide horretan, orduan eta gertuago izango dugu helburua: guztion artean erabaki ahal izatea gure etorkizuna.

Ordura arte, bidelagun nahi zaitugu. E5ean, etorri eta bozkatu.

Errausketarik ez

Jon Altuna
Bergara

Hondakinak etxean gaika sailkatu eta egoki bilduta, errefus gutxi sortuko dugu eta ez da erraustu beharrik izango.

Gipuzkoan agintari berriek, ordea, bide hori alde batera utzi eta mila milioi eurotik gora gastatu nahi dituzte erraustegia eraikitzeko.

Erabaki oso kaltegarria gure osasun eta ondasunarentzat.

Gipuzkoa ekonomikoki ito egingo du egitasmoak.

Erraz esaten da mila milioi euro, baina kostata ordaindu. Garesti.

Gipuzkoarrok ordainduko dugu oso-osorik, tasa eta zergen bidez, ondorengo hamarkadetan.

Eta bada diru hori zertan erabili.

Arnasa behar dugu, are gehiago, krisi garaian.

Erraustegiak, gainera, kutsatu egiten du.

Osasunarentzako oso kaltegarriak diren ke eta gai toxikoak isurtzen ditu.

Ondorioz, erraustegiaren ondoan bizi direnek minbizia garatzeko arrisku handiagoa izango dute.

Hainbat mediku txostenek egiaztatu dute hori.

Horregatik diogu burua duenak ez duela etxe ondoan erraustegirik nahi.

Eta bihotza duenak, inon ere ez.

Osasunaren alde eta errausketaren aurka gaudenak Donostian kateatuko gara, igande eguerdian, elkarrekin. Etorri zaitez zu ere.

Hernanin atez ateko bilketarekin ehuneko 80 birziklatzen dugu eta eredugarriak gara Europan. Hori da bidea; Zero Zabor, alegia.

Etxean egindako ahalegin txikiak onura handia dakarkio denon osasun eta ondasunari.

Zabaldu dezagun gure eredua, ez dezatela gure etorkizuna hipotekatu eta gure ondorengoena arriskuan jarri.

HERRIAK

BERGARA

Denboraldi berriko moda joerak kalera

Bergara Bizi elkarteak Udaberri eguna antolatu du biharko, arropa eta osagarriak aurkezteko asmoz

MAITE TXINTXURRETA | BERGARA

Modaren mundua gustuko dute nentzat egun berezia izango da biharkoa Bergaran. Izan ere, herriko komertzioen alde lan egiten duen Bergara Bizi taldeak pasarela berezi bat antolatu du udaberri eta uda denboraldiko arropa eta tendentziak ezagutzera emateko. 20:00etan hasi eta 23:00ra arte ez da aspertzeko betarik izango, denetarik egongo baita: desfilea, *pop-up* azoka, taberna, zuzeneko musika...

Hala, Oxirondo plazan (euria eginez gero azoka barruan) pasarela bat jarriko dute lurraren mailan, eta guztira 68 herritar arituko dira modelo lanetan. Hamazazpi komertzio hartuko dute parte; gehienak arropa dendak, baina baita zapata dendak eta ile apaindegiak ere.

Aipatu bezala, pintxo-pote zerbitzua ere izango da Oxirondoko gunean ekimenak irauten duen bitartean, Pol-Pol tabernak eskainita. Prezioari dagokionez, pintxoa eta ardoa hartzeak 2 euro balioko du; pintxoa eta garagar-

doa hartzeak, berriz, 2,5 euro. Ekimena are gehiago girotzeko, zuzeneko musika izango da Diablu&Bluecifer eta Arragoa herriko taldeen eskutik.

Hippy erara girotua

Ninika loradendako Ana Pine-dak azaldu du gunearen apainketa *bojo chic* estilokoa izango dela, aurkeztuko dituzten arropetako asko bezala. Hippy estiloko dekorazioa baserrietako elementuekin uztartuko du.

"Izpilikua, kandelak, hortentziak, lastoa... halako gauzak erabiliko ditugu". Belar artifiziala eta intentsitate baxuko argi zuriak ere jarriko dituzte, baita bi karabana ere, hippy ukitu hori are gehiago igartzeko. Horietako bat taberna izango da.

"Pena da eguraldi txarra eginez gero Oxirondoko azoka barruan egin beharko dugula, eta, egia esan, prestatutako dekorazioa hobeto geratuko litzateke kanpoan", azaldu du loradendakoak.



Ninika loradendakoek *bojo chic* estiloan apainduko dute gunea. Irudian, erabiliko duen materiala. | MAITE TXINTXURRETA

'Pop-up' azoka

Ohiko formatutik aldentuta, *pop-up* erako azokatxoa ere jarriko dute Oxirondoko gunean, eta herritarrek arropa eta osagarriak begiratu eta erosteko aukera izango dute bertan.

Berritasun handietako bat da komertzio bakoitzak ez duela bere postua jarriko; aldiz, hainbat dendatako produktuak nahastuta egongo dira, nongoak diren zehaztu barik. Hori bai, lau guneetan sailkatuko dute guztia, estiloaren arabera.

Profesionalen gomendioak

Biharko hitzordurako Bergara Bizik prestatutako nobedadeak ez dira hor bukatzen. Izan ere, bihar iluntze-gauean *pop up* azoka honetan Bilboko Maria Uranga irudi kabineteko bi profesional izango dira *personal shopper* lanak egiten.

Ekimenaren antolatzaile taldeko Ainhoa Garitanok azaldu du bi profesional horiek herritarrei lagunduko dietela norberari hobeto doakion arropa edota osagarri hori aukeratzeko, betiere, norberaren gustuak kontuan izanda. "Esaterako, aurpegiaren tonuaren arabera kolorea aukeratzeko lagunduko diete, edota bularraren arabera nolako forma doakion hobeto", azaldu du.

AINHOA GARITANO | BERGARA BIZI

"Hippy estiloko arropak asko ikusiko ditugu udaberri eta uda denboraldian"

Apustu berezia egin du oraingoan Bergara Bizik. Ainhoa Garitanok aipatu du herritarren partetik harrera oso ona izaten dutela horrelako egitasmoek.

Formatu berri batekin ausartu zarete. Zein da helburua?

Berrikuntza nagusietako bat da *pop-up* estiloko dendatxoa jarriko dugula eta Bilbotik bi *personal shopper* etorriko direla. Hala, *personal shopper* horiek lagunduko digute gure jeneroa saltzen. Jendeak galdetu dezake: "Eta zergatik ez zarete zuek saltzaileak?"; baina gure ideia da komertzioek bat egitea. Denda bakoitzak bere postua jarriko gero, jendearen joera da ezagun dituen horietara jotea.

Nolako tendentziak datoz?

Hippy erako arropak asko ikusiko ditugu. Guk lau gune edo estilo desberdindu ditugu: marinerroa, txuri-beltza, *sport chic* eta *bojo chic*. Urtero daudenak baina ez direnak modaz pasatzen.



ION MONJÚ

Gauza asko antolatzen ari zarete azkenaldian komertzioen elkartetik.

Hala da, eta jendeak gero eta gehiago jarraitzen gaitu eta galdetzen digu ea hurrengo zer izango den. Eta komertzioentzat ere onura dakarrela esango nuke. Jende askok orain esaten dit jada ez dela kanpora joaten erostera, lehenengo herrian begirtzea nahiago duela. Hori esker-tu egiten da.

DATUA

68

MODELO

Izango dira Udaberri eguneko pasarelan. Denda bakoitzeko lau herritar.

ESANAK

"Loreak, lastoa, kandelak... jarriko ditugu apaintzeko"

ANA PINEDA | NINIKA LORADENDA

ANGEL OIARBIDE

GOIENA TELEBISTA | HARIRA | HERRI ORDEZKARIEKIN ELKARRIZKETAK, ANGEL OIARBIDE, GURE ESKU DAGO

MAIATZAK 31, 22:00 | ENEKO AZKARATEK AURKEZTUA

EGIN GALDERA: **Whatsapp:** 688 69 00 07 | **Posta elektronikoa:** berriak@goiena.eus | **Goiena app:** Galdera bidali



DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

goiena

Erretiratuei esker ona adierazteko

SUDCek 50. urtez antolatuko du biharko egun berezia

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Hamaika dira urte osoan zehar SUDC elkarteak antolatzen dituen ekitaldiak, eta biharko Erretiratuen Eguna izango da horren beste adibide bat. *Elkarteen elkar-teak* –gaur egun herriko elkarte gastronomiko ia guztiak batzen ditu, 23 inguru– 50 urte egin ditu aurten: "Omenaldia egiteko dagoen batzorde antolatzalea harro dago funtzio hau aurrera eramateagatik. Lan handia da, baina, helburua ikusita, gustura egiten dugu. Erretiratuei eskertu behar diegu urteetan zehar egindako lana; gure herrian egindako ahaleginak, dedikazioa... Denok ezagutzen ditugu lorpenak".

Aurten 750 lagundik gora elkartuko dira eta antolatzaleek ezin dute aurreratu oraindik zeintzuk izango diren amaieran omenduko dituztenak: "Osasun arazoren bategatik, eguraldiagatik... agian, azken orduan ez dira agertzen, eta horregatik ez dugu izenik ematen aldeztu aurretik", adierazi du antolakuntzako Andoni Altzelaik. Prestaketetarako, goizeko zortzietan elkarte bakoitzeko bi kide elkartzen dira mahaiak eta bestelakoak muntatzeko, eta ondoren *catering* enpresa batek ematen die bazkaltzen erretiratuei; betiere, SUDCeko laguntzarekin.



laz kiroldegi barruan egin zuten bazkaria, kanpoko kantxetan. | IMANOL SORIANO

Kiroldegiko aparkalekuan

Adikzioaren legeak kiroldegi barruan alkohola edan eta erretzea galarazten duela-eta, aurten erabaki dute Erretiratuen Egunezko bazkaria kiroldegi kanpoko aparkalekuan egitea. Karpa handi bat jarriko duten arren, espero dute eguraldiak laguntzea: "Euria eta hotza egiten badu, adineko jendea deseroso egon daiteke...", dio Altzelaik. Hala ere, aldatetari begira baikorrak dira: "2016ko ospakizunak 2015ekoa gaindituko duen ziurtasun osoa dugu". Amaitzeko, antolatzaleek eskerrak eman dizkiete Udalarari eta eguna antolatzeko posible egiten duten enpresa guztiei.

EGITARAUA

BIHAR, ZAPATUA

11:00 Suziri jaurtiketa.

12:30 Meza San Juan Bataiatzailearen elizan.

13:30 Kiroldegirako autobusen irteera Garibaitik.

14:00 Erretiratuen bazkaria kiroldegiko aparkalekuan.

16:00 Gizonezko eta emakumezko nagusienari omenaldia, dantzaldia eta sari berezien zozketa.



Gipuzkoa etorbideko horman egingo dute mural berria. | J.B.

"Irudi artistikoa", herriko sarrera apaintzeko asmoz

Gipuzkoa etorbideko paretako mural berria aukeratzeko, herritarrekin egon nahi du gobernuak

J.B. | ARRASATE

Gipuzkoa etorbideko horma konpondu eta apaindu gura du Udal Gobernuak, eta, horretarako, Bilboko Wallart Mural Painting enpresari esleitu dio bertan "irudi artistiko" bat egiteko lana. Obra, Zerbitzuak, Mantenua eta Auzoak batzordeak proposatuta, 15.125 euroko aurrekontua –BEZa barne– izango du lanak. Euste-horma horrek 450 metro koadroko azalera du eta "beharrezkoa" du konponketa, OZMA batzordeko buru Oscar Garcíaren arabera: "Hasiera baten, herriko artistekin kolaboratu nahi genuen, baina, hormaren egoera oso txarra denez, erabaki genuen konponbide integrala ematea". Azaldu duenez, hormaren konponketa lanak eta irudi artistikoa aparte kontratatuko balira, kostua

"asko" handituko litzateke. Paretako landaredia kentzea eta kalteak konpontzea izango dira eginbehar nagusiak.

Herritarren iritzi bila

Horma hori berritzearen eta edertzearen enpresa arduradunak bost proposamen aurkeztu beharko ditu, gutxienez: "Helburua da parte-hartze prozesu bat irekitzea irudiaren aukeraketarako; arrasatearrek gehien gustatzen zaien diseinua bozkatu ahalko dute".

Irudi berria originala eta inon argitaratu gabea izan beharko da, eta estiloa eta teknika libreak izango beharko dira, betiere, kanporako egokiak izaten badira: "Herriaren irudi positibo bat transmititu beharko du, ingurumenari, hiriari zein arkitekturari dagokienez".

Umeen danborradak, helduen ibilbidea aurten

J.B. | ARRASATE

Umeen danborrada antolatzen duen SUDC elkarteak arduradunak maiatzaren 31n hasiko dira umeen danborradarako arropak banatzen. Ekainaren 18an egingo da umeen danborrada, eta helduen ibilbidea egingo dute aurten lehen

aldiz: "Aurrerantzean, urtero egingo da ibilbide hori", dio SUDCeko Jesus Mari Egidazuk. Aurten iaz baino ume gutxiago egongo dira, "200 inguru". Umeen danborradarako arropak jasotzeko, SUDCek Nafarroa etorbidean –ospitale ondoan– duen egoitzara joan behar-

ko da, 16:30etik 18:00etara. Hona-ko hau da arropak jasotzeko egutegia: maiatzaren 31n barrilero mutilak, ekainaren 1ean barrilero neskek, ekainaren 2an danbor-joleak, ekainaren 3an eskoziarrak, ekainaren 6an kantinerak eta hilaren 7an sukaldariak, gastadoreak eta banderatuak.

Helduek, berriz, maiatzaren 30ean hasiko dituzte entseguak. Arizmendi Ikastolako Gaztelupe guneko –San Viator zena– patioan egingo dira, 20:30ean.



lazko umeen danborrada, Herriko Plazara heltzen. | ANTONIO MURILLO

Santa Marinatik Zornotzara, batukadarekin

Santa Marina auzoan sortutako Sanbamaña batukada taldeak urteko hitzorduetako bat izan zuen joan den zapatuan Zornotzan, Euskal Herriko Batukaden 4. Topaketan. Urtez urte hazten doan ekimena da eta aurten ere ederto ibili da Arrasateko taldea.



ESKARNE GARITONANDIA

EH Bilduk posta bidez botoa emateko laguntza eskainiko du

Ekainaren 26ko hauteskundeak sanjuaneekin batera izango direla-eta EH Bilduk "garrantzitsu" deritzo posta bidezko botoa "bermatzeari" herritar orori. Jai-Zalen, Alkartetxean eta Iratin egongo dira, nahi duen orori inprimakiak betetzen laguntzen; astelehenetan, martitzenetan eta egue-netan, hurrenez hurren.

PSE-EEK martxan du posta bidez botoa emateko bulegoa

Alderdi Sozialistak ekainaren 16ra arte izango du zabalik Martxoaren 8 kaleko lehen zenbakian duen Herriko Etxea, ekainaren 26ko hauteskundeetarako botoa postaz eman nahi duten herritarrentzat. 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara egongo dira bulegoak zabalik. Edozein argibidetarako: 943 79 69 42.

Siriarako laguntza eskatzen jarraitzen du Harreman-ek

Mugarik Gabeko Medikuak erakundeko Alma Saavedrak hitzaldia emango du maiatzaren 31n

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE
Harreman GKEk Siriaren alde sustatutako kanpainaren barruan, Mugarik Gabeko Medikuak erakundeak –Euskal Herriko ordezkari Alma Saavedraren eskutik– hitzaldia eskainiko du maiatzaren 31n Kulturaten (18:30). *Sirian bizirautea* du izenburu eta Ane Irazabal, Mikel Ayestaran eta Iker Pastor kazetarien lekukotza jasotzen duen *Save the children* bideoa proiektatuko dute. Harremanek gogo-

ra ekarri du Siriaren aldeko kanpaina arrakastatsua izan dela: "Oinarritzko materialen bilketa oso ondo joan da eta orain, hitzaldiarekin, azken bultzada bat eman nahi diegu ekarpen ekonomikoei", adierazi dute. Lau kontu korrante zenbaki ireki dituzte: 3035 0001 53 0010132964 (Laboral Kutxa), 2095 5055 50 9115887960 (Kutxabank), 2100 1972 03 0200112601 (La Caixa) eta 3008 0253 49 2793534526 (Rural Kutxa).

Elkartasun Eguna: ekainak 4
Era berean, Harremanek gertu dauka Elkartasun Eguneako egitaraua. Ekainaren 4an ospatuko da aurten, Seber Altube plazan, 10:00etatik 20:30era. Egitarau erakargarriaz aparte, urtero moduan, GKEen erakusketak eta bidezko merkataritzako produktuak izango dituzte eta Ankurren (India) aldeko Ibai-Arteren tonbola ere izango da, baita Arizmendi Ikastolak antolatutako ekintzak ere.



Elkartasun Eguna, 2014an. | GOIENA

ANE
ZUAZUBISKAR

Probisionala

Duela ez asko ezagutu nuen X. Gaztea da, eta kazetaria. Miresten nuen ezagutu aurretik, eta estimatzen dut bere lana oraindik. Esperientziatik aholkatu zidan, intentzio onenez: ibil nendila kontuz sare sozialekin, eta

NIRE USTEZ

iritzi artikuluekin, aritu behar izan duela bereak ezabatzeko eskean, "badakizu non egiten dudan lan" eta. Komunikatzailea da Y; *kazetari multimedia*. Eguna erotuta ematen duen horietakoa. Erdi barrez, erdi serio esan dit parrandan, hobe dudala bertsolari moduan egin karre- ra, eta ekidin bere estutasunari dagokion soldata estua.

Janzkeraz neutroa izan dadila kazetari lanean ari denean. Irakasleak eman dio aholkua Z-ri, eta arrazoiak eman dio berak. Asmo onez esan dio, lana txukunagoa izango dela sinetsita. Ez horregatik bakarrik. Bide

zuzenean lerratzeak lan aukerak areagotuko dizkiola uste du irakasleak.

Ostegun gaueko ordu txikitik harrapatu gintuen gu elkarrizketak. Eta han, komunikazioko sei ikasle hasiberri, autozentsuraren beharraz hizketan. Komunikatzaile profesional izan aurretik inkomunikatzaile probisional izatearen onurez.

Nahi genuen mundua aldatu. Eta orain, izango bagara, izango gara marka zuriko komunikatzaile prekario. Ahaztuta, zuri-keriak gehiegi duela grisetik, eta neutroak ia dena botereari eustetik.

Sanjuanetako ekitaldiak udaletxeko balkoitik ikusteko izen-ematea

Aurten lehen aldiz, sanjuanetako zenbait ekitaldi –umeen danborrada, Errementari Dantza eta helduen danborrada– udaletxeko balkoitik ikusteko aukera egongo da. Udalak 15 sarrera bikoitz zozketatuko ditu ekainaren 1etik 8ra bitartean izena ematen duten arrasatearren artean. Izena eman ahalko da BAZen (943 25 20 00) edo www.arrasate.eus webgunean. Zozketa ekainaren 10ean egingo da, eta irabazleek nortasun agiria erakutsi beharko dute udaletxean.

Herri galdeketa boto aurreratua, ekainaren 4ra arte

Erain Debagoienak ekainaren 5erako antolatutako herri galdeketa bira boto aurreratua eman daiteke dagoeneko. Ignazio Zuloaga kaleko 4. zenbakian –lehen Omu denda zena– duten lokalean eman ahalko da botoa. Astelehene- tik egubakoitzera 18:30etik 20:30era egongo da lokala zabalik eta aste bukaeretan, ber- riz, goizez zein arratsalde- z; 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

Ukrainako gerraren dokumentala ekainaren 11n estreinatuko da

Mikel Arregi kazetari arrasatearra eta Ibai Trebiñok ekoiztutako *Donbass: Gerra Europaren bihotzean* izeneko dokumentala ekainaren 11n estreinatuko da Amaia antzokian (19:30); egileak bertan egongo dira edozein zalantza argitzeko. 2015eko martxoan, apirilean eta uztailen jasotako materialarekin eratu dute ikus-entzunezkoa eta finantzaketa kolektiboaren bidez gauzatu dute proiektua.








*Jende
zoriontsua
herri libre
batean*



EKAINAK

5

Erabakitzen HASI GARA

EKAINAREN 5EAN HITZORDUA DUZU zurea da erabakia!




Nahi al duzu izan euskal estatu independente bateko herritar?



Aurtengo finala jokatu duten bi taldeak | ZALDEBAR FUTBOL TXAPELKETA



Aurtengo finala jokatu duten bi taldeak | ZALDEBAR FUTBOL TXAPELKETA

Betrayer eta Lasagabaster taldeek jokatu dute Zaldibarko Ligako finala bihar, 17:30ean

16:30ean Aldatz eta Sonografos taldeak izango dira nor baino nor gehiago

XABI GOROSTIDI | ARRASATE

Zapatuan erabakiko da 2015-2016 denboraldiko txapelduna nor izango den. Betrayer eta Lasagabaster talde klasikoen arteko lehiatik aterako da txapelduna.

Betrayer taldeak 1992a ezkerro dihardu txapelketan parte hartzen. Birritan jokatu dute finala,

eta 2006an irabazi zuten orain arteko titulu bakarra. Aipagarria da Jose eta Ramon Tena anaien ibilbidea: 25 urte daramatzate parte hartzen eta aurtun finala irabazteko aukera daukate.

Lasagabasterrek bost final jokatu ditu, eta horietako bakarrean lortu zuen txapeldun izatea,

2008koan. Finalerdietan eginda ko defentsa lan finari esker lortu dute finalerako txartela bi taldeek, eta lehia parekatua espero da zapaturako.

Aurretik, 16:30ean, Aldatz eta Sonografos taldeek hirugarren postua eskuratzeko neurketa jokatuko dute.

Sari banaketa

Finala jokatu ondoren, sari banaketa ekitaldia egingo dute antolatzaileek.

Ligako lehen lau sailkatuei euren garaikurra eman ondoren, aurtengo denboraldiko jokalarai aipagarrienek euren saria jasoko dute. Antolakuntzaren erabakiz: atezain onenaren saria Aldatz taldeko Imanol Pavok jasoko du. Jokalariei dagokienez, Juan Pablo Morillo (Betrayer), Ronald Blanco (Lasagabaster), Ion Murua-mendiaraz (Sonografos), Gorka Maria Seco (Abokajarro) eta Ion Lucero (Aldatz) izango dira saria jasoko dutenak.

16,13 metroko saltoa egitea lortu du Iñigo Uribarrenek

X.G. | ARRASATE

Salto hirukoitzean Arrasateko inoizko markarik onena eta Gipuzkoako hirugarren onena ezarri zuen Iñigo Uribarren arrasatearrak pasa den zapatuan. Anoetan jokatutako lehen mailako Liga Txapelketako proba barruan ezarri zuen, bere aurreko markarik onena (15,84 metro) 32 zentimetro hobetuta.

"Azken entrenamenduetan 16 metroko langa gainditzetik gertu nengoela sumatzen ari nintzen. Proba egunean bertan, sentsazio ezin hobeak nituen beroketak egiten ari nintzela, eta nire kideei esan nien egun horretan gaindituko nuela. Eta horrela izan zen". Aire libreko denboraldia hasi berri du Uribarrenek eta bigarren proban bere errekor pertsonala lortu du. Denboraldia abuztuan amaituko da eta oraindik marka hobetzeko "aukera handiak" dituela esan du Uribarrenek.

Ekainean Madrilen jokatuko den Espainiako Txapelketan, Euskal Selektzioa ordezkatzeko du atleta arrasatearrak.

Kontxako hondartza errugbi zelai bihurtuta

ART gazteek haren jolastuz amaitu dute urtea

X.G. | ARRASATE

Arrasate Rugby Taldeko gazte-txoek Kontxako Rugby Txapelketa jokatu zuten pasa den domekan. Eguraldia lagun ez izan arren, egun-pasa ederra egin zuten Kontxa hondartzako haren euren onenak ematen.

Errugbia beste era batera gozatzeko aukera izan zuten eta zoragarritzat jo zuten domekakoa. Esperientziaren onurak ikusita, etorkizunean berriz errepikatze-ko asmoa azaldu dute talde zuri-morekoek.

Bestalde, Leintz Eskola Kirolarekin elkarlanean, errugbi saioa

antolatu zuten Mojategin zapatu goizean. Gazteei errugbia praktikatzeko eta honen onurak eza-gutzeko asmoz antolatutako ekimena izan zen.

Lehen hezkuntzako 3. eta 6. mailetako 50 ikasle inguru batu ziren eta ederto pasa zuten errugbiarekin egindako lehen kontak-tuan.

ARTko eta LEKeko kideen gidaritzapean, askotariko ariek-tak prestatu zituzten errugbiaren alderdi teknikoak lantzeko. "Askorentzat ezezaguna den kirola gerturatzea lortu dugu", adierazi zuten ARTko arduradunek.

'Beste bat! eguna' ospatuko dute St. Pauli zaleek zapatuan

Azken urteetako ohiturari jarraituz, *Beste bat! eguna* antolatu dute, beste behin.

Aurtengoan St. Pauli Kataluniako delegazio baten bisita izango dute. Bi taldeen arteko futbol partiduarekin emango diote egunari hasiera. Poteoa hasteko, Beste Hiru! taldeak kontzertua joko du Amaiur tabernan. Bazkalostean, Quadrophénicos, Arkai-ko, Skaleak eta Jolly Rogers Band taldeak arituko herriko tabernetan.

Ttakun elkarteak antolatutako txalaparta ikastaroa

Datorren astelehenetik ekainaren 27ra bitartean txalaparta ikastaroa emango du Ttakun elkarteak.

Ikastaroak astelehenetan izango dira, 18:00etatik 20:00etara. Euskal instrumentu hau ondo jotzeko trebezia eskuratu nahi dutenek izena eman beharko dute Gazte Bulegoan. 943 25 20 65 telefonora deituz edo gaztebulegoa@arrasate.eus helbidera idatziz ere egin daiteke. Prezioa 20 euro da eta ikasle eta langabeentzat, 10 euro.



OPEL ARRASATE

Gazteen txirrindularitza

Pasa den zapatuan jokatu zen infantil, alebin eta benjamin mailetako Arrasateko txirrindularitza lasterketa. Infantil mailan Bizipoz taldeko Aimar Erostarbe izan zen garaile eta alebinetan Txantxiku Ikastolako Aimar Madina. Benjamin guztiek garaikurra jaso zuten.

Etzi, domeka, 2016 Bidearen hamargarren etapa egingo dute, Arrasatetik Elgetara

Pasa den astean, 2016 Bidearen bederatzigarren etapa Arrasaten amaitu zen. Domeka honetan egingo da hamargarrena, Arrasaten hasi eta Elgetan amaituko dena. 20,2 kilometro izango ditu eta antolatzaileek zailtasun handiko gisa izendatu dute. Ibilbidean zehar hiru ekitaldi daude antolatuta: euskal mendizaleei musika omenaldia egingo diete Besaiden, etapa bukaeran bisita gidatua egingo dute Intxortako gerrako lubakietara eta, azkenik, Memoria Historikoaren Euskal Zentrora bisita egingo dute, Elgetan.



ARTko gaztetxoak Kontxako hondartzan. | ARRASATE RUGBY TALDEA

Al-Andalusen aste kulturala azken txanpan

Ekitaldi musikalez betetako asteburuarekin emango diote amaiera 26. edizioari

XABI GOROSTIDI | ARRASATE
Asteburu honetako ekintzekin amaituko da Al-Andalus elkar-tearen 26. aste kulturala.

Denetariko ekintzak egon dira maiatzaren 21ean hasi zene-tik: bazkariak, playback jaialdia, jaki eta ardoen dastaketa eta hitzaldiak, besteak beste.

Gaur, egubakoitza, Haurren Eguna ospatuko dute. Hauen gozamenerako, gaztelu puzga-riak, litxarreriak eta txapare-kin egindako eskulan tailerrak egongo dira.

Kontzertu ugari asteburuan
Hitzordua musikalez betetako asteburua prestatu dute Al-An-daluskoek. Zapatuan hiru talde arituko dira: oholtzara igotzen lehenak Alegria de la Sierra taldekoak izango dira. Bazka-laurreko giroa berotuko dute,

13:15ean hasiko den kontzer-tuarekin.

19:00etan, Sueños de Anda-lucia dantza taldekoek euren ikuskizuna eskainiko dute, eta 19:45ean, Kordobako Pueblo Nuevo herriko Tremolo taldeak egingo du kontzertua. 21:30ean, bazkideentzako gala afaria hasi-ko dute, eta ostean, 23:30ean, Tremolo taldekoak berriz igoko dira oholtzara, bigarren ikus-kizun bat eskaintzera.

Domekako egunari hasiera emateko, Al-Andalus koruak kantaldia egingo du, 13:00etan hasita. Jarraian, 13:40an, Lour-des Oncala sevillana eskolako dantzariak hartuko diete testi-gua. Hau amaituta, ohorezko brindisarekin eta ondorengo bazkariarekin emango dute amaitutzat aurtengo aste kul-turala.

Arrasate Musikalen Udaberri Musikaldiak ez du etenik

X.G. | ARRASATE
Arrasate Musikalen Udaberri Musikaldia aurrera doa. Gaur arratsaldeko kontzertuarekin amaituko dituzte maiatzeko ekitaldiak. Flauta eta akordeoi ikasleek aurtengo ikas-turtean hartutako trebeziak plazaratzeko kontzertua eska-iniko dute, 18:30ean, Kultura-ten.



Gitarra ikasleak. | ARRASATE MUSIKAL

Ekaina, emanaldiz beteta
Maiatza bezala, ekaina ere kontzertu eta emanaldiz bete-ta dator. Haize-instrumentuak izango dira protagonistak lehen bi kontzertuetan. Tron-

peta ikasleek kontzertua eska-iniko dute asteazkenean, 18:30ean, eskolan, eta tronboi, tuba eta bonbardinokoek oste-gunean, 18:30ean, Kulturaten.

Seber Altube, artea salerosteko gun

X.G. | ARRASATE
Arrasateko Margo Taldeko artis-tek euren artelanak plazaratu-ko dituzte zapatuan. Seber Altu-be plaza margolanak erakutsi eta salerosteko bazar bihurtu-ko dute. Goizean 10:00etatik 14:00ak arte eta arratsaldean 17:30etik 20:00etara.

Bosgarren edizioa
Ekimen hau egiten duten bos-garren aldia da, eta Seber Altu-ben egiten duten hirugarrena. Iaz Margo Taldearen 25. urteu-rreneko erakusketa egin zutenez, ez zuten ekitaldi hau egin, bai-na aurren berriz antolatu dute. Tano Ribas erakusketaren anto-

latzailearen arabera, "taldeko margolarien lanak kalera ate-ratzea da helburua".

Denetariko margoak
Zapatuko azokan Arrasate Mar-go Taldeko hamabi partaideren lanak egongo dira ikusgai, eta bakoitzak dozena erdi koadro plazaratuko ditu, gutxi gora-behera. Gehienak ikasturte honetan zehar egindako mar-goak izango dira.

1,5x1,5 metroko koadroak, akuarelak eta formatu txikiko margolanak egongo dira salgai. Batutako dirua urtean zehar izandako gastuak estaltzeko erabiliko dute.

Iker Barandiaran | Kooltur Ostegunak-eko antolatzaile taldekoa

"Pozik gaude seigarren edizioak izan duen erantzunarekin"

- Atzoko kontzertuarekin amaitu da aurtengo Kooltur Ostegunen zikloa.
- Publikoari dagokionez, iazko joera positiboari jarraipena eman dio

A. ARANBURUZABALA | ARRASATE
Kooltur Ostegunak ekintza kul-turalak seigarren denboraldia du aurtengoa, eta atzoko kontzer-tuarekin amaitu dute aurtengo ikasturtea.

Aurren, 30 kontzertu baino gehiagoko programa oparoa eska-ini dute, ostegunero, zuzeneko musika ikustea eskertzen duten horientzat. Iker Barandiaran antolatzaile taldean aritu da hasie-ratik; beraz, ikasturte honetako balorazioa egiteko pertsona apro-posa da oso.

Seigarren edizioa amaitu berri, zer-nolako balorazioa egiten duzu?
Egia esan, oso ona izan da, nahiz eta topiko kutsua duen erantzuna izan. Musika talde bati bere azken diskoagatik galdetzerakoan oso ona edo inoizko onena dela entzuterakoan bezala.

Aurreko urteekin alderatuz gero?
Lehen urtea *boom* antzerako bat izan zen. Bigarrenean, *boom* efeku horrek irautea lortu zuen, baina 3. eta 4. urteetan behera-kada igarri genuen. Krisiak bere eragina izango zuelakoan gaude; izan ere, publiko beherako nahi-ko orokorra izan zen kontzertuen sektorean.

Bosgarren urtean sentsazio onak berreskuratu genituen, ikus-le askok errepikatzea lortu genu-e-lako eta jende berria erakartzea lortu genuelako. Eta seigarren honetan publiko gutxidun oso kontzertu gutxi izan ditugu, esku bateko atzamar erdiekin konta-tzeko beste.

Azken finean, estilo askotariko pro-gramazioa eskaintzeak arrisku hori dakar, ezta?

Bai, egia da. Proposamen batzuk baztertu egin izan ditugu alde-z aurretik, publiko gutxi eraka-rriko zutela genekielako. Hori gertatu den kontzertuetan tal-dekideek pozik amaitu izan dute, jende gutxi egon arren soinua eta agertokia onak iruditu zaiz-kielako.

Aurtengo kasu bakarretakoa Yellow Big Machine talde bizkai-



Iker Barandiaran Kooltur Ostegunak-eko antolatzailea. | XABI GOROSTIDI

tarrarena izan zen, baina egon zen publiko apur horrengan seku-lako sentsazio onak utzi zituen. Publiko kopuruak eta kontzer-tuaren kalitateak ez dute zertan eskutik joan, eta arrisku hori hartzen dugu sarritan. Baina publikoari dagokionez, ziurrenik, aurtengoa urterik onena izan dela esan dezakegu.

Nola antolatzen zarete horrelako egitarau zabala eskaintzeko?

Gero eta eskaera gehiago izaten ditugu. Askotan pasa izan zaigu talde potolo batzuei ezetz esan beharra, aurretik beste talde batzuk lotuta izanagatik. Nazioar-

"Publiko gutxiko kontzertuei dagokienez, urte onena izan da "

" Ez dugu oraindik erabaki datorren urtean jarraituko dugun edo ez "

teko taldeak ekarri ditugu, beste batzuk ezin izan ditugu agendan sartu... Gero eta izen handiagoa hartu du Kooltur-ek, eta horrek antolakuntza lanak errazten ditu. **Musikarien esker ona aipatu duzu. Duela gutxi, Ainara Legardonek adierazi du Arrasaten jasotako tra-tu goxoa beste leku batzuetan ez duela jasotzen.**

Nik ere irakurri nuen. Berari galdetu beharko zaio zer tratu jaso duen beste leku batzuetan. Gure kasuan, eskura ditugun baliabideekin, tratu duina ematen saiatzen gara. Taldeekin harreman izaten saiatzen gara, euren beharrak zeintzuk diren jakiteko. Promozioa egiteaz ardu-ratzen gara eta kontzertu egunean bertan erraztasunak ematen diz-kiegu lo egiteko, soinu probak egiteko, afaltzeko... Nire ustez, oinarritzko gauzak dira, edozein kontzertutan egon beharko lira-tekeenak. Baina era horretako esker oneko hitzak asko eskertzen ditugu.

Zazpigarren ediziorik izango al da?
Denboraldi bakoitza amaitzera-koan bazkari bat egiten dugu antolatzaileok, datorren urtera begira ditugun asmoak jakiteko. Beraz, ez dugu oraindik erabaki.

Uda garaian ere zabalik!

Sagardotegi menua • Aste-bukaerako menua • Karta
Ospakizun berezietarako jantoki bereiztuak
Aparcalekua eta terraza

Zabola auzoa • 01001 Aramaio • 945 44 50 95

Elena Lete, martitzenean *Harira* saioan. | JULEN IRIONDO

Letek eskatzen du errefusa jasotzeko aukera oro aztertzea

'Harira'-n adierazi du Epele ezin dela izan bakarra, Gipuzkoaren baliabide guztiak ikusi behar direla

JULEN IRIONDO | BERGARA

Hondakin bilketa sistema berria martxan jarri eta hilabetera, Elena Lete pozik agertu zen, aldatarik ez delako izan emaitzetan lehengo sistematik oraingora: gaikako bilketa tasa %81,25ekoa izan da hilabete honetan. Letek zioen jendeak barneratuta duela gauzak ondo egin behar direla, eta herria orain txukunago dagoela ere bai.

Gipuzkoan errefusarekin dagoen arazoari dagokionez, ez zuen baztertu etorkizunean hura Epelen jaso beharra, baina aukera guztiak aztertu behar direla

gehituta. Hori bai, Gipuzkoaren arazoaren konponbidea errefusa kanpora bidaltzea ezin dela izan adierazi zuen: "Gipuzkoan posible da zabor bilketaren tasa hobetzea; gure eskualdea oso ondo jokatzen ari da, oso maila ona daukagu, eta gizarte aurreratu bat gara, hezia. Hona zerbait ekarri behar bada, begiratu behar da Gipuzkoak ze aukera ematen dituen, mahai gainean Epele bakarrik ezin da egon".

Permutari dagokionez, hone-la azaldu zuen zergatik erabaki duten UNEDek Seminarioan jarraitzea, Arrizuriagara aldatu barik:

"UNEDek 40 urte beteko ditu egoitza horretan; baina, gainera, toki hori beti izan da unibertsitatea edo egon da ikerketarekin lotuta. UNED hor egotea oso ondo ikusten dugu; eta eraikin biak geratuko dira herriarren erabilerrako, eta Arrizuriaga jauregia gure ekipamendu propioa izatea eta lotura zuzena izatea lorategiarekin ezinbestekoa da". Kulturarako izango dela bai, baina ez zuen zehaztu Arrizuriagan zer joango den. EAJk erakutsi izan duen asmoa bete eta liburutegia jarriko ote duten galdetuta, hori "tamaina handiko proiektua" dela esan eta, baztertu gabe, baina ez zion eperik jarri.

Labegaraietako kiroldegia nola berritu parte-hartze prozesu batekin erabakiko dutela ere iragarri zuen Letek, eragileekin eta auzokoekin batera: "Aurten ditugu proiektua egiteko 72.000 euro. Lehenengo fasea izango da ikustea proiektu horretan zer garatu nahi dugun. Parte-hartze prozesu horretan ikusiko dugu ze gabezia dituen kirol ekipamendu horrek eta auzoak zer eskatuko lukeen ekipamendu horretarako".

Ipintzan, berriz, harmailak jarriko dituzte. Jarleku asko ezin go dira izan, horretarako aukerarik ez duelako ematen harmailaren kokapenerako buruan dituzten bi aukeretako batek ere: ez saihesbide aldekoak, ezta igerilekura ematen duenak ere.

Beste hainbat gai ere izan zituen ahotan alkateak *Harira* saioan; besteak beste, Zubietan berrurbanizatzeko proiektua, auzokoen iritzia kontuan hartuta egin nahi dutena, hau ere (martitzenean bertan egin zuten lehen parte-hartze saioa).

Amaitu dituzte Elorregiko eta Aritzetako luiziek hondatutako bideetako lanak

J.I. | BERGARA

Martxoko euriteen ondorioz Aritzeta auzoan, Kereixatsu baserri ondoan, luizia gertatu eta bidea behera joan zen. Azken asteetan lanean jardun dute han, eta eremua egonkortzeko eta pasabidea ireki ahal izateko hormigoizko harri-lubeta sendo bat egin dute, bidearen azpialdean eta goialdean. Era berean, bidea zolatu eta segurtasuna bermatzeko beste zenbait neurri jarri dituzte. 60.000 euro

inguruko kostua izan du konponketak.

Elorregiko hilerrikoa

Eta Elorregiko hilerriara doan bidean otsailan hasitako lanak ere amaitu dituzte; 2014ko azaroko luiziaren ondorioz, egoera txarrean zegoen. Zoladura konpontzeaz gain, bide ondoko horma berreraiki dute, eta ura bide azpitik joan dadin kanal moduko bat egin ere bai. 110.000 euroko kostua izan dute lanak.



Aritzetako bidea, konponduta. | MAITE TXINTXURRETA



Elorregiko hilerriara doan bidean egin dituzten lanak. | M.T.

Batzokiko sutea: babestutako eraikina da Azkarate Marutegi

J.I. | BERGARA

Batzokian sutea gertatu eta egubakoitz goizean bertan jarri zen harremanetan Elena Lete alkatea Foru Aldundiko Ondare zuzendaritzarekin, gertatuaren berri emateko. Alkateak *Harira* saioan azaldu zuen Azkarate Marutegi etxeak -batzokia dagoena- ertain mailako babesa duela, eta hori dela-eta beste erakundeetatik sutearen kalteei aurre egiteko

diru-laguntzaren bat hel daitekeen galdetuta, aukera hori zabalik utzi zuen.

Letek zioen, alkate gisa, bere ardura bazela, baita ere, sutea inguruko etxeetara zabaltzea, inguruko gehienek egitura egurrezkoa izanda, gainera; ez zen halakorik gertatu, Azkarate Marutegi "eraikin sendoa" delako, alkatearen esanetan. Suak hainbat kalte eragin zituen batzokian.



Sutearen ondorioak fatxadetan. | J.I.

Posta bidezko botorako laguntza ematen dute alderdiek

Ekainaren 26ko hauteskundeetarako, EAJk bulegoa ireki du Ibargaraiko 15.ean; ordutegia: 11:00-12:30 eta 18:00-20:00 -943-76 47 00-. Bestalde, zeregin bererako EH Bilgunea ireki du koalizio abertzaleak, Barrenkaleko 35.ean; ordutegia: astelehenetik egubakoitzera, 11:00etatik 13:00etara eta 18:30etik 20:30era. Bi kasuetan hilaen 16an amaituko da eskaerretarako epea.

Erbestetik itzuli den Julian Tenari harrera egingo diote gaur

Bergarako ezker abertzaleak egin du deialdia, azalduz Panamatik itzuli berria dela Tena; 1984an atxilotu eta herrialde hartara deportatu zuten. Gaur -egubakoitza-, kalejira egingo dute plazatik Arranora 20:00etan; harrera ekitaldia egingo dute han, eta 21:30ean afaria Artatse elkartean -txartelak, Arranon eta Artatsen-. Erbestetik herrira itzultzeko geratzen zen azkena zen Tena.

1976tik gaur arteko zinegotzi deia galdeketa babesteko

Zinegotzi izandako denei egin diete deialdia, gaur, 19:00etan plazan, erabakitzeko eskubidearen alde daudela adierazteko eta ekainaren 5erako Erain Debagoienak deitutako galdeketa babesteko; argazkia atereaz egingo dute hori. Bestalde, boto aurreraturako aukera dago ekainaren 4ra arte -domekan salbu- Barrenkaleko 28.ean. [Informazio gehiago, 4. orrian]

ESPOLON
School of English
BERGARA

SUMMER ENGLISH

- Haur eta gazteentzako
- Azterketak prestatzeko
PET, FIRST eta ADVANCED

Ekainaren 27tik uztailaren 22ra
Antzuolan eta Bergaran

Informa zaituz:
Ibargarai, 31 behea BERGARA
Tel.: 943 76 03 53 • espolon@euskalnet.net

Ekainetik aurrera
Laura eta Lorea egongo gara!

Aprobetxa itzazu ekainean
izango ditugun
%20rainoko deskontuak!

alga

Ibargarai 10 - BERGARA · Tel.: 943 76 00 85



JULEN IRIONDO

Ibarretzek eta Sotilek ikusmina

Osoko bilkuren aretoa bete egin zen eguaztenean Agirre Lehendakaria Centerreko zuzendari Juan Jose Ibarretxeren eta Mondragoneko presidente Javier Sotilen hitzaldirako. Ibarretzek euskal gizartearen etorkizunari buruz jardun zuen, baina kooperatibak eta kultura gakotzat hartuta. Beste herrialde batzuetako esperientziak ere azaldu zituen.



MAITE TXINTXURRETA

Ikasleak zinegotzien aulkietan

Herriko ikastetxeetako ikasleak osoko bilkuren aretoan izan ziren eguaztenean, Agenda 21 programaren barruan burutu duten lana udal ordezkariari aurkezten. Mugikortasuna eta osasuna izan dira azken asteotan landu dituzten gaiak, eta herrian dauden beharrak identifikatu eta hainbat proposamen egin zizkieten alkateari eta zinegotziei.

Afrikan ebolari aurre egiteko Kubaren elkartasun eredia hizpide

Zona Roja. La experiencia cubana del ébola liburuaren aurkezpena eta *Cubanos, entre la vida y el ébola* film labur dokumentala izango dira martitzenean, 19:00etan, Irizar jauregian. Enrique Ubieta kazetari kubatarren azalpenak ere izango dira saioan. Herrialdeak elkartasun handia erakutsi zuen ebolaren krisian.

Adinekoen erorikoak prebenitzeko tailerra, ekainaren 7an eta 9an

Oraindik bide luzea duzu aurretik, kontuz estropezuekin! leloarekin, Udalak eta Jaur-laritzak antolatu dute, eta 16:00etatik 17:30era egingo da, bi egunetan, Agorrosinen. Bertan lor daiteke informazio gehiago, eta baita izena eman ere; San Joxepen ere bai. Lekuak mugatuak dira.

Elosuko Otaba jaiak ospatuko dituzte zapatutik astelehenera

Mus txapelketa izango da bihar 16:30ean Elurmendi elkartearen. Gauean, berriz, bertso afaria, Lizaso aita-semeekin -25 euro; 688 92 00 86/664 16 50 73-. Domekan: 12:00etan, meza; 13:00etan, pilota partiduak; 14:30ean, jubilatuen bazkaria; 18:00etan, herri kirolak. Astelehenean jarraituko du festak.

OHARRAK

JAIEAN BALORAZIOA

Jai batzordearen bilera martitzenean udaletxean, 19:00etan; deialdia irekia da, ekarpenak egin nahi dituen edonorentzat.

1949AN JAIOTAKOAK

Bazkaria ekainaren 11n Zabalaja jatetxean -13:00etan, frontoian-. 55 euro sartu behar dira Laboral Kutxan: ES96 3035 0009 12 0091149523.

Jardun: sendabelarren gaineko ikastaroa ekainaren 7an eta 14an

Lehen eguna sendabelarrak batzeko, erabilpenak ezagutzeko eta kontserbatzen ikasteko izango da; bigarrena, olio beratzeak, tinturak eta ukenduak egiteko. Ordutegia, 18:00etatik 20:00etara. Izena emateko: jardunkultura@topagunea.com eta 943-76 36 61.

Ludoteken jaia egingo dute azoka kanpoan hurrengo barikuan

Ekainaren 3an izango da, 17:00etatik 20:00etara -eguraldi txarrarekin, ludotekan-. Bergarako, Angiozarreko eta Osintxuko ludoteketako haur eta hezitzaileak elkartu eta askotarikoak egingo dituzte: karaokea, jolasak, merienda...

Ilustrazio zientifikoa landuko dute museoan ekainaren 4an

Laboratoriumeko jardunaldia 10:00etan hasi eta egun osokoa izango da. Hainbat ekintza izango dira, eta tailerretarako izena eman behar da -943-76 90 03 eta laboratorium@bergara.eus-: marrazketa botanikorako sarrera landuko dute tailerretan.

BERGARA

LIP-DUB

ERRALDOIA

MAIATZAK 28 - 16:30

eta zu... apuntatu barik?

jairako jantzita bazatoz, hobe!

MAIATZAK 29, IGANDEA

URKULURA

BIZIKLETA MARTXA

gutun erraldoia irudikatzena

oinez, autoz, bizikletan edo

zaldi gainean

Zatoz

IRTEERA

10:15 OÑATIKO plazan

10:15 BERGARAKO plazan

10:45 SAN PRUDENTZIO

10:55 ARRASATE Zigarroia

11:00 ARRASATE Bilerri

11:15 ESKORATZAKO plazan

Aretxabaletatik martxa bateratua

11:30 Urkulurako bidegorrian

Kanpai jiteko harrera

Boto aurreratua

Ekainaren 5ean herrian ez bazaude, aurretiaz bozkatzeko aukera duzu

ANTZUOLA

Kalebarren 16ko lokalean, ekainaren 3a bitartean.
Asteleheneretik ostegunera: 18:30 - 20:00
Ostiralean: 11:30 - 13:00
Larunbatetan: 18:30 - 20:00

ARAMAIO

Ibarra. Herriko plaza.
Maiatzaren 29an, domeka: 12:00 - 14:00
Ekainaren 2an, eguna: 18:00 - 20:00

ARRASATE

Ignazio Zuloaga, 4. Ekainaren 4a bitartean
Astegunetan: 18:30 - 20:30
Asteburuetan: 11:00 - 14:00 / 17:00 - 20:00

ARETXABALETA

Pagal dai taberna. Basabe bidea, 2. Ekainaren 4a bitartean
Maiatzak 27, 30, 31: 18:30 - 20:30
Maiatzak 28, larunbata: 11:00 - 14:00
Maiatzak 29, igandea: Auzoetan
Ekainak 1, 2, 3: 18:30 - 20:30
Ekainak 4: 11:00 - 14:00

BERGARA

Barrenkale, 28 (Zubikua ondoan), Ekainak 4a bitartean
Astegunetan: 18:30 - 20:30
Larunbatean: 10:30 - 13:30
Ekainaren 4ean: 10:30 - 13:30 / 18:30 - 20:30

ELGETA

Ozkarbi azpian, maiatzaren 31n eta ekainaren 2an
Ordutegia: 19:00 - 20:30

ESKORIATZA

Jose Arana kalea, 19 (Udaletxe alboko lokalean) Ekainaren 2a bitartean
Astearte eta ostegunetan: 19:00 - 20:00

GATZAGA

Leintz Gatzagako KzGunean, maiatzaren 25ean eta 29an.
Maiatzaren 25ean: 12:00 - 13:00
Maiatzaren 29an: 11:00 - 13:00

OÑATI

Kalebarria, 45. Gure Esku Dagoren lokalean
Maiatzaren 28a bitartean: 11:00 - 12:00 / 19:00 - 20:00

Nahi al duzu izan euskal estatu independente bateko herritar?

EKAINAK

5

ES

Erabakitzen

HASI GARA

Bergara Hiria lehiaketako sari nagusiak, Irunera

MAITE TXINTXURRETA | BERGARA

Irunera joan dira 32. Bergara Hiria argazki lehiaketako bi sari nagusiak. Zuri-beltzeko modalitatean, Oskar Gasconek irabazi du, *Zadorra* lanagatik. Koloretan, berriz, Eladio Airesen *Delta* argazkia izan da onena, epaimahaikideen iritziz. Bi irundar hauek, gainera, beste sari bana ere eraman dute lehiaketan. Bergarako onenari dagokionez, zuri-beltzeko modalitatean Imanol Mondragonendako izan da saria eta koloretan, berriz, Jose Agustin Gurrutxagarendako.

197 lan aurkeztu dira guztira Arizondo argazkizale elkarteak antolatzen duen lehiaketara. Herriko onenen sariez gain, beste bergarar bat ere saritua izan da, Benito Cantero, berea izan baita koloretako modalitatean bigarren lanik onena.

Erakusketa Aroztegin

Gaurtik aurrera, maiatzak 27, aurtengo ediziora aurkeztutako berrogei lan onenak Aroztegi aretoan jarriko dituzte ikusgai. Zuri-beltzeko eta koloretako hogein lan ikusi ahal izango dira, eta



Zuri-beltzeko modalitateko lanik onenak. | OSKAR GASCÓN

ekainaren 12ra arte egongo da erakusketa bisitatzeko aukera. Sari banaketa ekitaldia ere gaur egingo da, 20:00etan, Aroztegin.

Bertan izango dira sarituak, antolatzaile taldeko kideak, Elena Lete alkatea eta Maite Agirre kultura zinegotzia.

Mahonero asteburua ospatuko dute datorren astean futbolzaleek

M.T. | BERGARA

2015-2016 futbol denboraldiaren amaiera ospatzeko, ekimen berri bat aurkeztu du Bergara Kirol Elkartek: mahonero eguna. Datorren egubakoitzean, ekainak 3, seminarioko karpa zabalduko dute arratsaldean, bi egunez herriko futbolzale guztientzat jaigune izango dena.

Hala, karpapean taberna eta parrila-gunea izango dira, eta mahaiak jarriko dituzte bertan afaldu ahal izateko. Ondoren, zuzeneko musika izango da. Bertaratzeko gonbidapena Kirol Elkarteko jokalaria, zuzendaritzako kide, entrenatzaile, familiar-teko eta zale guztiei zabaldu nahi izan diete.

Zapatua, egun handia

Zapatuan, futbol eskolako azken urteko neska-mutikoekin arteko futbol txapelketa izango da goizez seminarioan. Eguerdian, txapelketako sari banaketa eta trikitilariekin giro tututako poteoa.

Gero, bazkaria egingo dute karpapean. Txartelak salgai dau-de Ariznoa, Bule eta Depor tabernetan. Nagusienak 20 eurotan eta gazteenak 15 eurotan.

Arratsaldean, denboraldiko sari banaketak, zozketak eta jokoak izango dira. Eguna amaitzeko, karpan afaltzeko parrilada egingo dute, eta horren ostean, DJ jaia izango da. Antolatzaileek BKEko arroparekin joateko dei egin dute.



NAGORE JIMENEZ

Ariznoakoak podiumean

Eskolarteko Gipuzkoako Txapelketan txapeldun izan ziren Ariznoa gimnasia erritmiko taldeko kadeteak, eta infantilek, berriz, bigarren egin dute joan den asteburuan. Berri onak, beraz, Ariznoako gazteentzako.

'Malmö', agertokia eta zinema uztartzen dituen ikuskizuna

M.T. | BERGARA

Khea Ziater taldearen eskutik *Malmö* izeneko film eszenikoa ikusteko aukera izango da domekan, 19:30ean, Zabalotegin.

Thriller-a da *Malmö*, eta antzerkiaren eta zinemaren elementuak uztartzen ditu.

Claudia eta Saga dira pertsonaia nagusiak. Duela bost urte ezagutu zuten elkar Danimarkan, eta harreman oso estua izan zuten. Egun batean, baina, zerbaitek harreman hori hautsi zuen eta orain Saga Claudia ikustera dator, gorrotoz beteta.

Maria Urzelai protagonista

Ikuskizuneko aktore protagonista bat Maria Urzelai



Maria Urzelai bergararra. | EITB

bergararra da, ETBko *Eskamak kentzen* telesailean ere lan egingen duena. Saga abeslariaren papera egingo du Urzelaiak.

Sarrerak zortzi eurotan izango dira salgai leihatilan.

NIRE USTEZ

MARIJE UGALDE



Eromenaren ondorioa

Bi urte pasa dira Europako Musikarien Jaialdia egitasmoa aurkeztu zigutenetik. Donostia 2016 hiri kulturalerako ekitaldien artean, Europako 15.000 musika ikasle elkartzea zen helburua.

Donostiako Musika eta Dantza Eskolak hartu zuen jaialdia antolatzeako ardura. Bertako zuzendariak, Mikel Matek, Euskal Herriatik kanpo egiten den lana ikusi eta konpartitzeko aukera polita zela azaldu zigun musika eskolako arduradunak. Batzuk ados egon arren, beste batzuek eromen bezala ikusten zuten. Hala ere, Emusik 2016k

musika eskolen babesa izango zuela erabaki zen.

Udalen laguntza beharrezkoa zen proiektua aurrera eramateko. Gipuzkoa, Bizkai, Araba, Nafarroa, Errioxa eta Iparraldeko 59 udalek azpiegitura ziurtatzeko hitzarmena sinatu zuten.

Garazi Zabaletaren *Musikatu Bizitza* (lelo polita) izan da abesti ofiziala. 2015ean Anoetan egin zen jaialdiari hasiera eman zion ekitaldiaren simulakroa. Oso kritika txarrak jaso arren, eromenarekin jarraitu zuten antolatzaileek.

Ilunben izan zen hasiera ekitaldia (entseguek zerbaite tarako balio dute). Espektakulu zoragarria! 9.000 musikari hizkuntza komun batekin: musika. Ondoren, Euskal Herria musikaz bete zuten europarrek, eta Saguesen jaialdiari agur esateko, sekulako festa!

Batzuen eromenak ahaztu ezinezko musika jaialdia bizitzeko aukera eman digu.

LABEGARAIETA

SAILKAPENA

TALDEA	P	J
1 Estrella Coja	42	16
2 Errefuxa	35	16
3 River City	33	14
4 Komando Piperrak	33	16
5 America	23	14
6 Poteo Izarrak	23	15
7 Vodka Juniors	19	15
8 Birgerias	15	15
9 Sanpe United	13	14
10 HIS	9	14
11 Arrano Zabalik	9	14
12 SVC	8	16

PARTIDUAK

Maiatzak 29, Domeka
11:00 Poteo Izarrak-SVC / Birgerias
12:00 Poteo Izarrak-Birgerias / SVC
13:00 Vodka Juniors-HIS / Poteo Iz.
16:00 America-K. Piperrak / Errefuxa
18:00 Errefuxa-River City / Arrano Zab.
19:00 Estrella Coja-Arrano Z. / River City
20:00 Arrano Zab.-River City / Estrella C.

Esteban Landart organo jolearen kontzertua etzi

KOMUNITATEA GOIENA
STOLTZ-FRÈRES ORGANOGAREN LAGUNAK

Esteban Landart organo jole irundarrak kontzertu onuragarria eskainiko du domekan, maiatzak 29, Santa Marinako elizan. 19:00etan izango da emanaldia, eta sarreretatik lortutako dirua San Pedro parrokiako Stoltz-Frères organoaren konponketara bideratuko dugu.

Musikari bezala ibilbide oparoa du Landartek. Frantziako estatuko kontserbatorio garrantzitsuetan ikasi zuen, eta gaur egun sonatua da bere izena. Baionako kontserbatorioan eta Musikenen ematen ditu eskolak egun.



Oñatiko Auzoko taldeko kideak joan den urtean Eskoriatzan egindako jaietan. | GOIENA

Munduko hizkuntza asko entzungo dira bihar plazan

Beste kultura batzuk ezagutzeko aukera ere egongo da Auzoko jaietan

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Euskara erdigunean jarrita, jatorri ezberdinetako hizkuntza eta kulturak ezagutzeko aukera emango du bihar, zapatua, Oñatin egingo den Auzoko egitasmoaren hirugarren jaiak.

Ekimen honetan parte hartzen duten herri guztietako parte-hartzaileak etorriko dira, eta herritar guztiek gozatzeko moduko ekitaldiak antolatu ditu Oñatiko Auzoko taldeak, 11:30ean hasita.

Mundua

Aurreko bi edizioetan bezala, aurten ere, lehenik, ekitaldi txiki bat egingo dute Foruen plazan. Ondoren, Auzokoren saioetan burutzen diren dinamika eza-gutu eta horietan parte hartzeko

aukera eskainiko zaie herritarrei. Haurrek ere izango dute beren txokoa, munduko jolas eta eskulan tailerrekin. Horrez gain, jatorri ezberdinetako janaria probatzeko aukera egongo da eguerdi partean eta dantzen saio batekin emango diote amaiera festari.

Tokia

Egun, Gipuzkoa eta Arabako hamaika herritan dago martxan Auzoko egitasmoa, eta, aniztasuna oinarri hartuta, euskaraz ez dakitenak euskarara gerturatzeko helburua du Auzokok. Jai honekin, herriz herri egiten ari den lana ikusarazteaz gain, parte hartzaileek elkartu eta elkarrekin gozatzeko aukera eskaini gura dute antolatzaileek.

Oñatirekin batera, Eskoria-tza, Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate, Azpeitia, Bergara, Donostia, Ibarra, Soraluze eta Gasteiz dira gaur egun egitasmoa martxan duten herriak. Euskaratik urrun bizi direnak euskarara gerturatzeko helburuarekin, astero biltzen dira taldeak, ordu eta erdiz euskaraz aritu eta ongi pasatzeko. Baita Oñatin ere. Pakistan-goak, Kolonbiakoak, Portugalekoak, Argentinakoak, Espainiakoak, Gineakoak, Marokokoak edo Nepalgoak daude tartean, adibidez, eta baita ama hizkuntza euskara duten oñatiarrak ere. "Taldean, baina, badago gehiagorendako tokia ere", dio Urko Egañak, Auzokoko dinamizatzaileak.

Berdinsarean sartu da Oñatiko Udala

O.E. | OÑATI

Berdintasunaren aldeko eta emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako Euskadiko udalen sarea da Berdinsarea, eta horko kide da Oñatiko Udala, beste 60 udalerrirekin batera.

Joan den azaroko osoko bilkuran onartu zuen udalbatzak, aho batez, Oñati Berdinsarean sartzea, eta zerbitzua ondo emateko bermeak dituela erakusteko dokumentazioa aurkeztu du Eudelen. "Garrantzitsua da hor egotea. Bakoitzak dituen proiektuak besteekin batera konpartitzen dira, eta elkarlana dago bi helburu horiek lortzeko. Ziurnago hor egotearen emaitzak ikusiko ditugula", dio udal berdintasun teknikariak, Maitane Iribarrek.

Hobi septikoak garbitzen lagunduko du Udalak

O.E. | OÑATI

Baserri inguruetan dauden putzu edo hobi septikoak garbitzeko diru laguntza emango du aurrerantzean Oñatiko Udalak.

Auzoak eta landa garapeneko departamentuak lehen sektorerako bideratuko duen diru laguntzaren barruan sartzen den lerro berri bat da hau. "Baserri asko urbanizatu daude, baina beste asko ez, eta putzu horiek garbitzeko laguntza emango du udalak. Garbiketaren kostuaren erdia ordainduko du udalak, gehienez 6.000 euro. Baserriarrak udaletxean aurkeztu beharko du lanaren faktura eta horren erdia jasoko du bueltan", dio departamentu horretako udal teknikariak, Aitor Gerenabarrak.

Botoa ikastolan ematen dutenek Zubikoan emango dute ekainean

O.E. | OÑATI

Botoa Txantxiku ikastolan eman ohi duten herritarrek Zubikoa kiroldegian emango dute datorren ekainaren 26an egingo diren hauteskundeetan.

Aldaketa honen arrazoia da Txantxiku ikastolan egokitze lanak egin behar dituztela. Proiektu pedagogiko berria jarriko dute martxan datorren ikasturtean, eta espazio aldaketak egin behar izatea ekarri du horrek. Beheko eta lehenengo pisuak egokituko dituzte; paretak bota eta espazio zabalak egingo dituzte. Lan horiek egiten ekainaren bigarren hamabostaldian hasiko dira.

Zozketa

Botoak jasotzeko hamabost mahai egongo dira ekaineko hauteskundeetan Oñatin eta ikastolan egon ohi diren zazpi kiroldegian egingo dira. Beste mahaiak Olakua dorrean, Txiki Txokon, Elkar Hezin eta Errekaldeko eskola txikian egingo dira. Mahai horietan egingo diren herritarren zozketa asteburuan egingo dute eta datorren astean banatuko dituzte jakinarazpenak udaltzainek.

Posta bidezko botoa ekainaren 16ra arte eska daiteke eta kanpaina 10ean hasiko da. Kartelak jartzeko panelak ohiko tokietan jarriko dituzte.



JULEN IRIORDI

Erain: Lopez eta Saratxaga

Ekainaren 5era begira eguaztenean Santa Anan egindako solasaldian, Jaume Lopez aditu kataluniarrak erabakitze eskubidea momentuko komunitate politikoei lotu zuen, eta ez arrazoi historiko, kultural edo linguistikoei. Saratxagak hezkuntzaren garrantzia nabarmendu zuen, bizitzako arlo guztietarako pertsona burujabeagoak izateko.

Ekainaren 15ean irekiko dute igerilekutik belardira joateko atea

Ekainaren 15etik aurrera igerilekutik kanpoko belardira joateko atea zabalik egongo da. Egun, kanpoko belardia zabalik dago, baina ezin da igerileku barrutik joan, kanpoko sarbidea bakarrik erabili daiteke.

Bestalde, igerilekuetara joateko bonuak badituzte aurten ere. Hamar sarrerako bonuak dira, eta kiroldegian eska daitezke.

Kale garbiketako lanpostuetarako izen-ematea ixtear da

Kale garbiketa zerbitzuko bederatzi lanpostuetan izena emateko epea ekainaren 2an itxiko da. Zazpi peoi eta bi peoi-gidari lanpostu dira udalak bete gura dituenak. EAOn argitaratu ziren oinarriak eta baldintzak, maiatzaren 13an. Interesatuak udal bulegoetan aurkeztu beharko dituzte eskaerak epea baino lehen.

Lesbosko boluntarioen lana ezagutzeko hitzaldia egingo dute

Lesbosen eta Atenasen errefuxiatuei laguntzen boluntario moduan lanean ibili den Iñaki Iraola elgoibartarra etorriko da martitzenean, hilak 31. Hotz Oñati taldeak antolatu du hitzaldia eta kultura etxe-ko zinema aretoan izango da, 19:30ean. Boluntarioen esperientzia zuzenean ezagutzeko aukera izango da.

Oñati ezagutzeko irteera antolatu du Lagun Lekuk

Oñati hobeto ezagutzeko irteera antolatu du Lagun Leku elkarteak datorren martitzenerako, maiatzak 31. Jerardo Elortzak gidatutako bisita izango da eta ondoren bazkaria egingo dute herriko jate-ke baten. Zenbat lagun joango diren jakiteko komeni da aurrez izena ematea; Lagun Lekun eman behar da.

Arte udalekuetara joateko izen-ematea zabalik dago

Udako oporretan egingo dituzten arte udalekuetara joan gura duenak eman dezake izena dagoeneko. 11 eta 15 urte bitarteko gazteei zuzendutako udalekuak dira eta hamabi lagunendako tokia egongo da. Ekainaren 27tik uztailaren 22ra arte izango dira, Bidebarrietako taile-rraan. Doan dira.

"Plazer hutsa izan da talde honen parte izatea"

Asier Ugartek, Endika Ruizek eta Mikel Urkiak jokalaria izateari utzi diote

ENEKO AZURMENDI | OÑATI

Hainbat arrazoiengatik, hiru gazteek jokalaria izateari uztea erabaki dute aurtengo denboraldi amaieran.

Aloña Mendirekiko antzeko iritzia dute hirurek. "Futbola bigarren mailako gauza bat izan da talde honetan. Gehiago balio du taldekideekin daukazu harreman eta sintonia onak. Alde horretatik, asko eman dit Aloña Mendik", dio Urkiak. Ugartek gaineratu du "betiko lagunez"

gain, jende berria ezagutzea eta horiekin harreman onak egitea garrantzitsua izan dela berrendako. Ruizek ere bat egiten du horrekin. "Bigarren kuadrilla bat da Aloña Mendi, lagun talde bat gara", onartu du.

Jokatzen ez jarraitzeko erabakiari dagokionez, arrazoi ezberdinek eragin diete.

"Ez naiz sekula izan minutu asko jokatzen dituen horietakoa. Gainera, orain, lanak denbora luzea kentzen dit eta futbolari

asteen lau egun eskaintzeak ez dit konpentsatzen, niretako ere denbora behar dut", onartu du Urkiak.

Ugartek dio azken bi urteetan laneko gorabeherak direla-eta motibazioa galdu duela entrenamenduetara joateko, nahiz eta gero partiduetan minutu asko eduki. "Gainera, jokalaria gazteagoen hazkundera oztupo bat naitela iruditzen zait, minutu dezentetik jokatzen ditudala. Haiek ere merezi dute aukera bat", dio.

Ruizen kasua desberdina da. Izan ere, jokalaria izateari utziko dio, baina Aloña Mendin bertan jarraituko du. "Entrenatzaile titulua ateratzen ari naiz. Beraz, jokalaria izateari uzten diot, baina herriko taldean entrenatzaile moduan jarraitzea da nire asmoa, futbola beste perspektiba batetik ikustea", adierazi du.

Hemendik aurrera zer egingo duten galdetuta, Ugartek dio, seguru aski, lanean ez duela jarraituko eta "berarendako denbora" hartzea gustatuko litzaiokeela. "Ez dut aterik ixten. Aurrean daukadana disfrutatu nahi dut", onartu du.

Urkiak, berriz, patinetan ibiltzen ikasi gura du. "Beti ikasi nahi izan dut, eta orain da momentua", azaldu du.

Igor Serrano ere badoa
Entrenatzaile idiazabaldarrak ere taldea utziko du aurtan.



Kofradiako kideek joan den astean aurkeztu zuten santu berria. | M.B.

Aozaratzako Migelen irudi berria ikusiko da prozesioan

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Aozaratzako San Migelen irudi berriak aurrekoak baino pisu txikiagoa du, arinagoa da, eta horixe izango da domekan egingo den Corpusetako prozesio berritasun nagusia.

"Orain arte erabili den irudiak 70 kilo pisatzen du. Egur trinkozko irudia da. Pisu horri, santua eramateko oinarriaren pisua gehitu behar zaio. Corpusetako prozesioan lau lagun artean eramaten dute, eta oso nekeza zen eurendako", azaldu du kofradiako kide Carlos Agirrebengoak. Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko arte ederretako fakultateko irakasle Tomas Bañuelosek eta haren ikasleek egin dute irudi berria; sei hilabeteko lana izan da. Parrokian dagoen margolana

oinarri hartuta egindakoa da irudi berria, beira-zuntza duen erretxinazko poliesterrarekin eta egur-hautsarekin egindakoa; 28 kilo ditu.

Orain arteko irudiak, Jesus Etzezarretarenak, Trianako etxean jarraituko du. Berriaren kokagunea, baina, erabaki barik dute oraindik: "Parrokiak monumentu izatera dauka eta adituekin adostu beharko dugu zein lekutan ipini", diote kofradeek.

Aurtan ere prozesioaren osagaiak erakusteko bisita antolatuko du Turismo bulegoak; 09:45ean izango da, Santa Anan. 10:00etan santuak parrokiara eramango dituzte anderoek, dantzariak lagunduta; San Migel 10:45ean eramango dute. Meza nagusia 11:00etan da eta ondoren hasiko da prozesioa.



Mikel Urkia, Endika Ruiz eta Asier Ugarte. | ENEKO AZURMENDI

NIRE USTEZ

AITOR UGALDE



Urteurrena

Ospakizun egunak izan ditugu gurean, Oñati Irratiak 25 urte bete dituela ospatu baitugu. 25 urte, nire bizitzaren erdia eta erdi horren zatirik handiena Oñatin pasatu izanaren arrazoi nagusietako bat bada Oñati Irratia. Baze goen zer ospatua.

Ospatzeko unea izan da eta orain arte egindakoari begiratzeko ere bai. 11.000 biztanle dituen herrian bertako gaiak lantzen dituen irrati batek 25 urtez jarraian jardutea nabarmentzeko da, dauzkan baliabideekin astero emititzen dituen ordu kopurua betetzea ere bai. Eta hori lortzeko 25 urte hauetan irratiari aritu direnak egin duten lana ere azpimarratzeko.

Muga argiak dauzkan irratiak da Oñatikoa, teknikoki eta baliabideen aldetik txikia, gaur egun munduko edozein lekutan entzun badaiteke ere bere uhinak Oñatikoa bailara honetatik ez dira pasatzen. Baina indar guztiak ere baditu, adibidez, komunikabide handiagotan jaso ez diren edo gutxiagotuta geratzen direnei lekua ematea.

Oñati herri bizia da, ekimen ugari eta desberdinak sortzen diren lekua. Hori elikagaia da irratia errentzat, irratia beti behar baitu zer kontatua. Baina eragin hori alderantzizkoa ere badela-koan nago; alegia, Oñati Irratiak eta beste herri komunikabideek eragin dutela urtez urte areagotzen joan diren herri ekimenen sorreran, egiten den hori jaso eta zabalduko duena egoteak erraztu egiten duela gauza berriak sortzea.

"Eragin hori alderantzizkoa ere badelakoan nago"

Mundu osoko 200dik gora arrazolatar elkartuko dira Oñatin

Ekainaren 18an eta 19an egingo dute topaketa eta hitzaldiak eta irteerak antolatu dituzte

O.E. | OÑATI

Arrazola abizena daramaten 200dik gora lagun elkartuko dira Oñatin datorren hilean. Gaztela-Mantxa, Kolonia, Belgika eta Madrilatik etorriko dira batzuk, adibidez. Jose Ramon eta Jabier Arrazola oñatiarrak dabilta, tartean, topaketa hau antolatzen. "Unibertsitatean hitzaldiak izango ditugu eta Oñati eta Olabarrietako Arrazola etxea bisitatuko ditugu, baita Bizkaiko Arrazola auzoa ere, adibidez", azaldu du Jose Ramonek.

Topaketa ekainaren 18an eta 19an egingo da eta parte-hartzaileek euren arbasoen misterio eta bitxikeriak ezagu-

tzeko aukera izango dute hitzaldien bitartez. Arbaso aipagarrien artean daude, besteak beste, 1599. urtean Isabel erregearen idazkari izan zen Juan Arrazola Oñate eta 1851 eta 1853. urte bitartean Auzitegi Nazionaleko presidente eta 1864. urtean Espainiako ministro-kontseiluko presidentea izan zen Lorenzo Arrazola.

Oñatik hitzordua jarraitzen ematen dio duela bi urte Guadalajarako Checa herrian egin zuten topaketari. Orduan 170 lagun elkartu ziren eta Oñatin gehiago elkartzea espero dute. Ekimen honi buruzko informazio guztia www.rrazola.org atarian jaso dute.

Gazteek diru laguntza eska dezakete alokairurako

O.E. | OÑATI

Oñatiko Udalak diru laguntza emango du, bigarren urtez, etxea alokatu gura duten gazteendako. Aurtengo berrikuntza da eskatzaileen gehieneko diru sarrerara 28.000 eurokoa izan behar dela eskatzaile bakoitzeko.

Diru laguntza 18 eta 30 urte bitarteko gazteek eskatu ahal izango dute, gutxienez hamabi hilabeteko alokairu kontratua baldin badute. Hileko alokairu prezioaren erdia estaltzeko diru laguntza emango da; gehienez, 250 euro. Etxebizitzako kide bat, gutxienez, Oñatin erroldatuta egon beharko da denbora jakin batez eta etxebizitzak Oñatin egon beharko dira eta bizigarritasun baimen izan beharko dute.

Eskaerak egiteko epea zabalik dago; udal bulegoetan egin behar dira.



Aurkezpenaren ostean atera zuten talde argazkia. | BIZIPOZ EKIMENA

Bizipoz ekimenaren lau proiektuak abian dira

Bidaietan ingelesa erabiltzeko taldeak ekainaren 6an egingo du bilera irekia

ENEKO AZURMENDI | OÑATI

Bizipoz zahartze aktiboa sustatzen duen ekimena da, LEINN (Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza) graduako bi ikaslek -Beatriz Santamaria eta Eider Etxebarria- eta Oñatiko udalak elkarlanean antolatu dutena.

Pasa den egubakoitzean aurkeztu zituzten ekimenaren lau proiektuak: Pake Leku elkartearen dinamika aldaketa, bidaietara zuzendutako ingeles ikastaroak, herriko irisgarritasuna eta gar-

bitasunari lotutako proiektua eta norbanakoaren hazkunde pertsonala landuko duena.

55 urtetik gorakoei zuzendutako programa da hau. Tailer dinamiko eta praktikoak egingo dira eta euren beharrei erantzutea dute helburu," azaldu du Eider Etxebarriak, ekimeneko kideak.

Pake Leku

Bidaietara doazenean oinarritzko esaldiak ingelesez ikasteko taldeak lortu du, dagoeneko, ira-

kaslea. "Taberna bat edo tren geltokia, adibidez, non dauden jakiteko adina ingeles ikasteko taldea sortzea da gure asmoa. Bidaietan erabili ditzakegun oinarritzko esaldi edo elkarriketa laburrak ikasi gurako genituzke", dio taldeko Miren Palaciosek. Ekainaren 6an bilera irekia egingo dute proiektu hau azaltzeko eta epea zabalduko dute jendeak izena eman dezan. Pake Leku dagoen alargunen elkarteko gelan izango da bilera, 16:30ean.

Areto-futboleko Oñati Saria jokatu da aurten

ENEKO AZURMENDI | OÑATI

Bihar, zapatua, areto-futboleko lehenengo Oñati Saria jokatu da Zubikoa kiroldegian, Aloña Mendi Kirol Elkarteak antolatuta.

Infantil mailako mutilen hiruko torneo izango da eta Debagoienekoak izango dira hiru taldeak: Arrasateko Lek Mondrate, Eskoriatzako Arizmeni eta Oñatiko Aloña Mendi taldeak, hain zuzen.

Lehenengo partidua 15:30ean izango da, Lek Mondrate eta Arizmendi taldeen artean. Ondoren, 16:30ean, lehenengo partidua horretako galtzailearen aurka jokatu du Aloña Mendik. Azkenik, 17:30ean, lehenengo partiduko irabazlea izango du aurkari etxeko taldeak.

20 minutuko bi zati izango dituzte hiru partiduek.

Garaipenak 3 puntu balioko du eta puntu gehien lortzen dituenak eramango du kopa. Berdinketa kasuan, aldeko eta kontrako goleak erabakiko dute txapeladuna.

Lehen, baina ez azkena

Bi urte egon da Aloña Mendi areto-futboleko sail gabe. Orain, taldea berreskuratu du Xanti Bernalek, eta, aurten infantil mailako taldea bakarrik bada ere, datorren urterako kadete eta gazte mailako taldeak ere egongo direla ziurtatu du. "Sari hau antolatzen dugun lehen aldia da aurtengoa, baina datozen urteetan jarraitzeko asmoa daukagu. Gainera, infantil, kadete eta gazte mailako txapelketak antolatzea da asmoa", nabarmendu du Bernalek, baikor.



Aloña Mendiko infantil mailako taldea. | XANTI BERNAL



Zirika Zirkus taldeko antzezleak, Aretxabaletan egindako saio baten. | GOIENA

'Txarlestrop' emanaldia izango da bihar plazan

18:00etan izango da; eguraldi txarra eginez gero, Santa Ana antzokian izango da ikuskizuna

ENEKO AZURMENDI | OÑATI

Zirika Zirkus taldearen eskutik *Txarlestrop* emanaldia izango da bihar, zapatua, 18:00etan, Oñatiko Foruen plazan. Sarrera doan izango da.

Hainbat ikuskizun mota uztartzen dituen emanaldia da hau.

Hain zuzen ere, antzerkia, zirkua, klakea, umorea eta musika zuzenean egiten dute berau osatzen duten lau kideek.

Hauek dira artistak: Oier Bravo klarinete-jotzailea; Luis Lainezek *Washboard* instrumentua jotzen du; Maribel Martinezek

pianoa eta Ainhoa Juanizek kontrabandoa.

Familiei eta haurrei zuzendutako ikuskizuna da, batez ere umorea lantzen da eta. Horrez gain, publikoaren parte hartzea ere sustatzen dute, modu jostagarri eta umoretsuan.

Nabarmentzekoa da Asturiasko Seten nazioarteko jaialdian kaleko ikuskizun onenaren izendapena jaso zuela *Txarlestrop*-ek, iaz.

Iaz 'Tren geltokia'

Zirika Zirkus hainbat emanaldi eskaintzen dituen taldea da eta horien artean biharkoa dago. Iaz, *Tren geltokia* izeneko beste emanaldi bat eskaini zuten Oñatin, plazan bertan. Jende ugari bildu zela nabarmendu du Ainhoa Juanizek, Zirikako kideak. "Jende asko bildu zen Oñatiko plazan eta oso sintonia ona sortu zen publikoarekin", azaldu du. Juanizek herritar guztiei deia egin die biharko emanaldira gerturatzeko, guztien artean arratsalde ederra pasatzeko.

Eguraldi txarra egiten badu, Santa Ana antzokian izango da emanaldia.

Corpusetako plater tiroketa lehiaketa egingo da bihar

O.E. | OÑATI

Corpusetako plater tiroketa lehiaketa egingo da bihar, Txopekuako tiro zelaian.

Foso olinpiar modalitateko lehiaketa izango da eta bi kategoria egongo dira: seniorrak eta beterranoak. 35 euro balio du bateko zein besteko izen-emateak, platerak barne. Emakumeek eta gazteek platerak ordainduko dituzte, bost euro, eta sariren bat irabaziz gero izen-emateak ordainduko dute (35 euro). Lehiaketa honek parte hartzeko, derrigorrezkoa izango da federazioko urteko txartela aurkeztea. Taberna eta kartutxo zerbitzua egongo da probak irauten duen bitartean. Txapelketa 10:30ean hasiko da, eta 17:30ean bukatu; eguerdian bazkaltzeko tartea egongo da.

Discipulos de Dionisos eta Bitz datoz gaur gaztetxera

O.E. | OÑATI

Discipulos de Dionisos eta Bitz taldeek joko dute gaur, egubakoitza, Antixena gaztetxean. 22:00etan hasiko da kontzertua eta sarrera bost euro izango da.

Donostian sortu zen Discipulos de Dionisos taldea, 1994an. Laukote bat da: Bertto Siffredi (gitarra), Ion Stagliano (bateria), Spartakus (baxua) eta Juan Holmes (gitarra eta ahotsa). Aitortu duten moduan, zozketa bidez erabaki zuten nork ze instrumentu jo. "Musika bizia" egiten dutela diote, "entzuleak berotu" gura dituztela. Eurekin batera Bitz taldeak joko du; bigarren lana ari dira grabatzen oñatiarrak. Zapatuan Harikiri taldea eta talde sorpresa izango dira, 22:00etan.

Dantzan eginda gozatzeko egunak datoz, bihar hasita

Dantza Astea antolatu du Jaikik beste hainbatekin

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Lehenengoz antolatu zutenetik hiru urte pasatu ostean indartuta eta egitarau dotorearekin dator Dantza Astea. Jaiki elkarteak antolatu du beste behin, Udalaren laguntzarekin, eta beste hainbat talderekin elkarlanean: Basotxoko erretiratuak; tango taldea; biodantza taldea; eta Leizarra musika eskola. Hala, bihar hasita, dantzan ez egiteko aitzakiarik ez dute aretxabaletarrek: "Adin eta gustu guztietako herritarrendako antolatu ditugu ekintzak. Gaztetxoenetatik hasi eta erretiratu arterainoko guztiendako; izan ere, dantzak guztiok batzen

gaitu", dio Maier Etxebarriak, Jaikiko kideak.

Bihar goizean dantza ikastaroak egingo dituzte adituek lagun eginda: Sergio Nguema, Paula de la Fuente, Laia Bedos... Eta arratsaldean, ikuskizunak eskainiko dituzte horiek eta beste hainbatek; Milenak, esaterako, ekialdeko dantzak egingo ditu.

Datorren astean, oster, herriko dantzariak izango dira protagonista. Basotxoko erretiratuak erakutsiko dituzte areto dantzak eta plaza dantzak; eta Jaikik kuarteleko ateak zabalduko ditu dantza inprobisazioa eta biodantza zer diren ezagutarazteko.



Dantzariak Herriko Plazan dantzatzeko gertu, iaz. | GOIENA

Haur Dantzarien Eguna, domekan

Leizarra musika eskolako dantzariak bat egingo dute domekan Arrasateko Lore Gazteak eta Txikitxu, Antzuolako Oinarin eta Soralezeko Urrats taldeekin. 10:30ean harrera egingo diete Herriko Plazan, eta 10:45ean, kalejira. Hamarretakoa jan ostean, 11:30etik 13:15era, herriko hainbat txokotan dantzatuko dute taldeek, eta 13:30ean bazkaltzera joango dira. Arratsaldean, 17:00etan, alarderako elkartuko dira guztiak, berriro, plazan.

EGITARAUA

MAIATZAK 28

09:30-12:30 Hip-hop ikastaroa kiroldegian.

09:30-12:30 Swing ikastaroa, Arkupen.

10:00-12:30 Kontakt inprobisazio tailerra, Arkupen.

13:00-14:30 Jam-Ñam dantzaldi inprobisatua plazan.

16:45-18:00 Marrazketa eta mugimendu tailerra, kuartelean.

18:00 Dantza ikuskizunak Durana kalean: hip-hop, ekialdeko dantza, lindy hopa...

19:30 *Rueda cubana* Mitarte kalean.

23:00 DJak tabernetan.

MAIATZAK 29

Haur Dantzarien Eguna.

MAIATZAK 30

18:15-20:15 Dantza inprobisazioa, kuartelean.

MAIATZAK 31

18:00 Areto dantzak Basotxoko eskutik, plazan.

18:30-20:30 Biodantza kuartelean.

EKAINAK 1

18:00 Plazan dantzak Basotxoko eskutik, plazan.

18:30-20:30 Tango erakustaldia, plazan.

EKAINAK 2

19:00 Zine-kluba: *Pina Bausch* filma, Arkupen.

NIRE USTEZ

JOSU ZALOÑA



Etxolak eraikiz

Bistan denez, bozka urtea dugu nonbait: udal hauteskundeak, espainiar gorteetako hauteskundeak, hondakinen bilketa sistema aukeratzeko galdeketa... Eta, aurki, espainiar hauteskundeak berriz, eta baita EAEko hauteskundeak ere. Bada, ezin ukatu sukarraldi betean gaudenik, edo, azken garaiotan, herritarren bozka ongi kotizatzen denik. Osterantzean, beldur naiz ez ote duten sarri asperdura zein etsipena sortzen lehia politikoei, gatazkek, norberarena defendatu behararen herrak edota komunikabideetatik jasotzen dugun zaparradak, "zer";

eta "zertarako"; aukeratzen dugun (edo aukeratu nahi dugun) lokazteraino.

Bestelakoa da Erain Debagoiena ekimena dela-eta antzematen dudana. Aretxabaletan jendea ilusioz ikusi dut, ekimenean batekoak eta bestekoak parte hartzen, elkarlanean, sinadura biltzen dela, pintxo-potean barra ostean zerbitzatzen dela... Era berean, gogo ona eta gozatzeko nahia sumatzen da, eta, hartara, ekainaren 5eko galdeketa ospakizunez jantzita aurkeztu da, festarako gonbidapen gisara.

Gogora datozkit gaztetxotan, basora joanda, sasi eta egur zatiz etxolak eraikitzen genituenan igarotako gozamen uneak, behin amaitutakoan laster eraisten bagenituen ere, orduan ere elkarrekin aritzeak berak gehiago asetzen baiktuen emaitzak baino. Erain Debagoienak jarrai dezala, hala, elkarlanean, saretzen, indartzen, konplizitateak eraikitzen, elkarbanatzen, gozatzen...

Afrikako umeekin izandako esperientzien berri egunean

M.A. | ARETXABALETA

Afrikako kontuak gerturatuko dizkiete aretxabaletarrei ekainaren 2ko Ostegun Bidaiariak. 2012an Iruñe Gabilondo bergararrak hezkuntza bereziko irakasle-ikasketen praktikak egin zituen Kamerunen Itziar Perezekin batera. Nekazaritzari lotutako ingurunean hurrekin lanean jardun zuten hiru hilabetez. Han bizitako berri emango dute argazkiek lagun eginda Dagda tabernan, 21:30ean.

Ostegun Bidaiariak ekimeneko laugarren eta azken saioa ekainaren 9an egingo dute, Haizea tabernan. Jone Ojea aretxabaletarrek Venezuelako



Gabilondo, Kamerunen. | I.G.

kontuak izango ditu berberarako gai orduan. Ikus-entzuleek saiorik onena bozkatzeko aukera izango dute eta irabazleak 100 euro jasoko ditu.



BASOTXO

Santoñan izan dira 117 erretiratu

Santoña aldean (Kantabria) ibili dira Basotxoko erretiratuak, 117 lagun guztira; gustura ibili ere, eguraldiak ez lagundu arren.

Ekainaren 2an, oster, bakardadearen gaineko hitzaldia izango dute, Rosa Rosado psikologoak gidatuta, egoitzan, 17:00etan. Bakardadea ezagutzeko argibideak emango ditu: sinemen faltsuak gezurtatu, estrategiak zehaztu bakardadeari beldurra kentzeko...



FLOREN ELORTONDO

Dominaz beteta igerilariak

Igeriketa txapelketa jokatu zuten joan den zapatuan Atzegiko kideek Donostian eta neska-mutiko mordoak elkartu ziren; tartean, Aretxabaletako ordezkariek: Alex Elortondo, Juan Carlos Barkero eta Iker Arejolaleiba. Eta, beste behin, saio bikaina egin zuten; sei domina lortu zituzten hiruren artean: hiru urrezkoak, zilarrezko bat eta brontzezkoak bi (argazkian, errelebo-lasterketako txapeldunak). "Zorionak, adiskideon eta senideon izenean, eta segi horrela!", dio Floren Elortondok.



Herritarrek bozkaten Pagaldaixenean, astelehenean. | MIRARI ALTUBE

Hasi dira erabakitzeko eskubidearen gaineko iritzia ematen

Aurrez bozka dezakete herritarrek ekainaren 4a arte eta herri bazkarirako txartelak salgai daude

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Erabakitzeko eskubidearen gaineko iritziak jasotzen hasita daude Aretxabaletan. Botoa aurrez emateko aukera dute egunotan herritarrek, ekainaren 4a bitartean. Hona hemen ordutegia: astelehenetik egubakoitzera, 18:30etik 20:30era; eta zapatuetan, 11:00etatik 14:00etara. Pagaldai-xenean dago hautetsontzia eta handik pasatu behar da. Auzoe-tara ere iritsi gura dute Erain Debagoienako kideek; domekan, maiatzaren 29an, joango dira.

Domekan, gainera, Urkulura bizikleta martxa egingo dute. Bergaratik, Arrasatetik, Oñatitik eta Eskoriatzatik etorriko dira;

Aretxabaletan elkartuko dira guztiak Urkulura igotzeko. Han gutun erraldoia irudikatuko dute. [Informazio gehiago 4. orrian].

Bertsolariak ekainaren 3an

Lekaixoka bertso eskolak ere bat egin du Erain Debagoienarekin, eta ekainaren 3rako antolatu duten ikasturte bukaerako jaia Pagaldaixenean izango da, 19:30ean. Nerea Elustondo (Legazpi, 1981) eta Aitor Sarriegi (Beasain, 1976) bertsolariek girotuko dute ekitaldia.

Galdeketa eguna

Aretxabaletako lantaldeak gertu dauka ekainaren 5eko egitaraua.

EKAINAREN 5EKO EGITARAUA

- 09:00** Txupinazoa eta mahaian irekiera.
- 09:30** Diana txistulariekin.
- 11:00-14:00** Puzgarriak.
- 11:30** Trikitilariak.
- 12:30** Kantu poteoa.
- 13:30** Lekaixokaren eskutik bertso saioa.
- 14:30** Herri bazkaria, Mitarte kalean.
- 17:00** Street boulderra.
- 17:30** Gaitariak eta buruhandiak.
- 18:00** Trikitilariak.
- 18:00** Bolo txapelketa.
- 19:00** Abesbatzaren emanaldia.
- 20:00** Mahaian itxiera.

Pagaldaixeneko ateak –hauteslekua– zabalztearekin batera jai giroa nagusituko da herrian; izan ere, txistulariek, trikitilariak, gaitariak, buruhandiek eta beste hainbatek jardungo dute kaleetan gora eta behera. Hala, herritarrek animatu gura dituzte botoa ematera.

Herri bazkaria ere izango da. Mitarte kalean jarriko dituzte mahaia eta paella gertatuko dute guztiendako. Txartelak dagoneko salgai daude honako taberna hauetan: Bedarreta, Orly, Gurea, Kixkor, Haizea, Urbaltz eta Eguzki. Prezioa da 10 euro helduendako, eta 6 euro, umeendako; erosteko azken eguna izango da ekainaren 1a.

Murrukixoren IX. mendi martxa ekainaren 5ean

M.A. | ARETXABALETA

Bi urtean behin egiten duen mendi martxarako gertu daude Murrukixo mendizale elkarte-kideak. "Azkenaren oso antzekoa izango da, baina beste bide batzuk erabiliko ditugu toki berdinetara iristeko", jakinarazi du Iñaki San Migelek, Murrukixoko ordezkariak. Izena emateko epea zabalik dago; martitzenean pasa daiteke Murrukixoren egoitzatik (Durana kalea, 13), telefonoz deitu (943-79 93 74) edo mezu bat bidali honako helbide honetara: murrukixo@outlook.com. Egunean bertan ere eman daiteke izena, eta prezioa da 10 euro.

Ibilbide samurra

Ibilbideak 27 kilometro ditu eta Herriko Plazan hasiko dute

07:00etan. Plazatik Urkulura joango dira eta handik Ugastegira. Han egongo da lehenengo anoa-postua, jatekoarekin eta edatekoarekin, 8. kilometroan hain zuzen ere. Ugastegitik Degurixara joko dute eta gero Leixargaratera. Hango aterpetxean egongo da bigarren anoa-postua, 16. kilometroaren bueltan. Kurtzebarri mendira joango dira gero, eta handik behera Aretxabaletara, Herriko Plazan bukatzeko. 14:00etarako gehiengo izango dela uste dute antolatzaileek.

"Ibilbideak ez dauka aparteko zailtasunik eta askok korrikan egingo dute", dio San Migelek eta gaineratu du: "Gure asmoa, baina, da bide zaharrak berreskuratzea eta horietatik ibiltzen erakustea mendizaleei".



Zaldiak Kurtzebarri mendi inguruan. | PELI BELTRAN DE HEREDIA

Gazteentzako ekintzaz beteta dator Udaero

12 eta 17 urte artekoendako udalekuak uztailaren 4tik 15era egingo dituzte

M.A. | ARETXABALETA

Uztaileko lehen bi asteetarako ekintza mordoa antolatu dituzte Aretxabaletako eta Eskoriatzako gaztelekuek Txatxilipurdirekin batera. 12 eta 17 urte arteko gaztetxoek ez dute aspertzeko unerik izango.

Izen-ematea ekainaren 5erako

Batetik, egingo dituzte gazte udalekuak, uztailaren 4tik 8ra. Bost eguneko egitasmoa da, eta, besteak beste, espeleologia egitera joango dira Opakua aldera; eta paintballean jolastera Lasturre-ra eta ondoren Debako hondartzara. Gainerako egunetako ekintzak parte-hartze prozesu bidez guztien artean erabakiko dituztela iragarri dute. Gazte udalekuen prezioa 40 euro da, eta ez dago plaza mugaturik.

Bestetik, Gazte Konkis izango dute uztailaren 12tik 15era bitartean: "Abenturaz betetako lau egun eta hiru gau pasatuko ditu-



Neska-mutikoak jolasean iazko Gazte Konkis ekimenean. | IMANOL GALLEGO

gu Leixargarateko aterpetxean. Talde lana eta estrategia ezinbestekoak izango dira han egunez egun aurrera egiteko", jakinarazi dute antolatzaileek. Honen prezioa 20 euro da eta plazak mugatuak dira.

Izena emateko epea ekainaren 5a arte egongo da zabalik eta ez

dago derrigor bietan eman beharrik. Horretarako, gaztelekura jo, edo Txatxilipurdi elkartera (943-79 54 46).

Gainera, gazte udalekuetan maiatzaren 30a baino lehen izena ematen dutenen artean matrikularen %50eko deskontu bat zozketatuko dute.

Azken egunak frontenis txapelketarako

M.A. | ARETXABALETA

Etenik gabeko 24 orduko frontenis txapelketa antolatu du UDAk mutilendako. Ekainaren 4an jokatu dute Iturri-gorri pilotalekuan, eta izena emateko epea maiatzaren 31n, martitzenean, bukatuko da. Horretarako, idatzi honako helbide honetara: udafrentenisa@gmail.com. Bikoteak 10 euro ordainduko ditu.

Armarria berritzen

UDA ospatzen dabilen 70. urteurrenaren bueltako txapelketa da. Horren harira, armarria berritzeko lehiaketa ere deitu du. Lanak aurkezteko epea ekainaren 23an bukatuko da, eta honako helbide honetara bidali behar dira: udaretxabaletake@gmail.com. Irabazleak 200 euro jasoko ditu. Argibide gehiagorako, UDAREN webgunera jo: www.udaretxabaleta.eus.

Gitarra eta konbo taldeen emanaldia datorren astean

Leizarra musika eskolako gitarra ikasleek eta konbo taldeetakoek emanaldia eskainiko dute astelehenen eta martitzenean, Arkupen, 18:00etan.

Bestetik, zabalik dago musika eskolan matrikulatzeko epea; azken eguna ekainaren 18a da.

Mobiliario ARENAZA

ALTZARIAK DISEINUA APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Eskola Agenda 21 egitasmoko proposamenak ikasleen eskutik

I.B | ESKORIATZA

Maiatzeko ohiko osoko bilkuran, Eskoriatzako Almen eta Luis Ezeiza ikastetxeetako lehen eta bigarren zikloetako ikasleak izan ziren atzo protagonista. Hainbat proposamen egin zituzten, herriko hainbat gune, erai-kin... hobetzeko asmoz; eta Joserra Zubizarreta alkateak adierazi zuen aipatutako lanetako batzuk eginak dituzten arren euren eskakizunak erantzuten saiatuko direla.

Santa Marina plazako lurrean jolasak margotzea, Aranburuzabalán joko egoki-

tuak eta txintxaunak jartzea, skate parkea behar den moduan jartzea, liburutegiari probetxu handiagoa ateratzea, San Pedro parkea konpontzea... izan ziren besteak beste, egindako eskakarak.

Nestor Arana zinegotzi

Aipatzeko beste puntu bat Nestor Aranak zinegotzi kargua hartzea izan zen. Maidar Landaren ordeztatu da Udalean, eta plenoa denbora jakin batez eten zen, bera etorri bitartean, hala kargua hartu, eta lehenbailehen lanean hasteko.



Alkatea ikastetxeetako gazteen proposamenak entzuten. | I.B

Erain Debagoienak antolatutako herri galdeketa botoa aurrez emateko aukera dago Eskoriatzan

Erabakitze eskubidearen gaineko herri galdeketa egunean, ekainaren 5ean, botoa eman ezin nahi duenak martitzen eta eguenean aurrez emateko aukera izango du. 19:00etatik 20:00etara bitartean, plaza aurrean dagoen Erain Debagoienaren lokalean (Jose Arana kalea, 19). Bertan, galdera honi erantzuteko aukera izango da: *Nahi al duzu izan euskal estatu independente bateko herritar?* 16 urte edo gehiago dituzten eskoriatzarrek botoa emateko aukera izango dute aurrez, edo herri galdeketa egunean bertan, hain zuzen.

Isabel Saludek, Oskar Matutek eta Sergio Campok solasaldia eskaini zuten atzo Zaldibar antzokian

Atxorrotx Kultur elkarteak antolatuta, *Aldaketa soziala eta Erabakitze Eskubidea* publikoarekin solasaldia izan zen atzo, Zaldibar antzokian. Bertan, Sergio Campo (Podemos-Ahal Dugu), Oskar Matute (EH Bilduko legebiltzarkidea Gasteizen) eta Isabel Salud (IU-Ezker Anitzako koordinatzaile orokorra) izan ziren. Hizlari bakoitzak bere ikuspuntua eta posizioa azalduz, bertaratu zirenek zituzten galderak eta zalantzak argitzeko aprobe-txatu zuten.

KING
ILE APAINDEGIA

Gizonezkoen
ile-apaindegia
saltzen da,
erretiroagatik.

Tel.: 943 71 31 72
Eskoriatza

Aldaketak egongo dira Hondakinen Bulegoko ordutegian

Zerbitzuaren berrantolaketa dela eta, ekainaren 1etik aurrera Hondakinen Bulegoan aldaketak egongo dira. Mankomunitateko teknikariak eguaz-tenetan izango dira, 9:30etatik 12:30etara bitartean, egubakoitzetan beharrez. Beraz, maiatzaren 27a izango da Mankomunitateko teknikariak izango diren azken egubakoitza.



Iaz Eskoriatza Kirol Elkartekoek plazan egin zuten herri bazkarian batutakoak. | ESKORIATZA K.E

Kirol Elkartek hamar urteak ospatuko ditu

Motorzaleen Lehen Topaketa ere egingo da elkartearen egunarekin batera

IMANOL BELOKI | ESKORIATZA

Eskoriatzako Kirol Elkartek hamargarren urteurrena ospatuko du zapatu honetan. Urtero moduan, kirola izango da protagonista, baina beste hainbat ekin-tzarekin ere beteko da herria. Honekin batera, lehen aldiz, Motorzaleen Lehen Topaketa egingo da elkartearen egunarekin batera.

Kirol Elkaratearen eguna kade-te B mailakoen saskibaloitartidua hasiko da 10:00etan, kiroldegian (Eskoriatza-Take Tolosa). Motorzaleak ere ordu berean irtengo dira plazatik egunerako antolatu duten bidea egitera, plazan harrera egin ondoren. 11:00etan, auto eta motor klasiko-erakusketa egingo da Luis Ezeizako patioan, eta partxis plazan, eta 11:30ean, herriko beteranoen saskibaloitartidua jokatu da.

12:00etan, haurrentzako jolasak, eskulanak... izango dira herriko plaza apaintzeko asmoz, eta goiz osoan zehar, Zubiako txistorra jan eta sagardoa edateko aukera ere izango du nahi duenak.

13:30ean, motorren kontzentrazioa egingo da plazan, eta 14:30ean, herri bazkaria egingo dute kirol elkartekoek motorzaleekin batera; guztira 200 pertsona inguru izango dira. Bazkaria plazan izango da, eta eguraldi txarra egiten badu, aldiz, frontoian. Urtero egin ohi duten moduan, paella erraldoia prestatuko dute, beste jaki batzuez gain.

Arratsaldean, A. V. Campos *Stunt Ride* taldearen eskutik, motorren ikuskizun akrobatikoa egingo da 17:00etan, estazio zaharrean. Egun osoan zehar, Imanol DJaren musika izango da plazan, eta

19:00etan, Andoni Moto DJak erlebatuko du. Musikaz batera, parrillada prestatzen hasiko dira, eta 21:30ean, Super Eskoloterenezozketa ere izango da. Guztira, produktu ezberdinez betetako bost loteko zozketa izango da. Antonio Regaño elkartearen kidearen esanetan "Eskerrak eman nahi dizkiegu herriko komertzio eta tabernei, aurtun produktu pila eman dizkigutelako..."

Motorren topaketa lehen aldiz

Lehen topaketan, ibilbidea prestatu dute egunerako motorzaleek, eta 10:00etan irtengo dira plazatik; Arlaban-Legutio-Barazar mendatea-Otxandio-Urkiola-Otxandio-Oleta-Kruzeta-Aramaio-Arrasate-Aretxabaleta-Eskoriatzako Santa Marina plaza (motorren aparkalekua izango dena).



Almen ikastetxearen erakusketa Eskoriatzan

Almen ikastetxearen 50. urteurrena dela eta, erakusketa dago ikusgai aste honetan, Eskoriatzako kultura etxean. Eguaztenean ireki zen, eta bihar arte egongo da irekita. 18:00etatik 20:00etara bitartean ikastetxearen historia ezagutu eta ikusteko aukera izango da bertan.

Herriko baserritarren eta artisauen lana azaleratzeko eta txalotzeko

Giro ezin hobe eta bero galanta San Isidro eguna ospatzeko

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Herriko baserritarrek egindako gazta eta hazitako behorrek, ardiek, behiek... arreta piztu zuten San Isidro azokara gerturatu zirenengan. "Lehen, baserritarren eguna egun handia zen; gorritz markatuta geneukan egutegian; ikaragarritzko festa izaten zen... baina, orain, pixkanaka jaitxi da giro hori, baserritarrak ere gutxiago dira-eta!", zioen Antzuolako baserritar lagun-taldeak.

Hain zuzen, apaltzen zihoan egun hori indartzea izan da Udaren aurtengo helburua. "Jaiaren balorazioa ona da. Goiz partean, eguraldia lagun, jende dezente ibili zen azokan eta inguruetan. Txistulari, trikitilari, eta abarren laguntzarekin giro polita egon zen. Eraineko ekitalditxoak ere egin zuen bere ekarpena", azaldu du Beñardo Kortabarría alkateak.

Baserritar-kaletar apustua, ordea, ezin izan zen egin. "Parte hartu behar zuten gehienek Aitor Mendizabalaren pilota partidua ikustera joatea erabaki zuten eta bertan behera geratu zen desfioa". Arratsaldean, berriz, goi-



Antzuolako baserritarren ganadua. | IMANOL SORIANO



Erain Debagoienak kantua aurkeztu zuen. | IMANOL SORIANO

tibeheren jaitxieran gozatu ederra hartu zuten bertaratutakoek, nahiz eta tarte batean euria egin. "Eguraldi txarrak erromeriari distira kendu zion".

Kukumarroak

AntzuHontza kukumarroa egin zuten herriko gaztetxoek. "Asko gustatu zaigu eta herriko jaietan balkoian jarriko dugu ikusgai",

azaldu du Kultura teknikari Jone Larrañagak. "Eta aurtengo ere, Landatxoeko kukumarroak, Siria-ko errefuxiatuen egoera salatze-ko lanak, ikusmina sortu du".



Iralatik behera goitibehera. | BEÑARDO KORTABARRÍA



Kukumarro lehiaketako parte-hartzailea. | MAIDER ARREGI

NIRE USTEZ

AMAIA RAMIREZ DE OKARIZ



Ezin gelditxu

O hian sartu ta berriz burua bueltaka. Gelditxu nahi eta ezin. Herriko gaztiok ze itxen dun jakin nahixan ibiltzen naiz. Ze itxen dun ta nora goiatzen.

Zentzugabeko kontua da egiza esanda, norberak nahi dabena ingo dau, ta hala izan bida. Baina, ze pasatzen da gaztiondako daukun txokua-kin?

Gaztetxia da gaurko protagonista. Bai, eta seguru, gehixenok lehenenguan asmau dozueta zeri buruz nenbilen. Azken urte honetan dekad-

tzian egon da eta gutxi batzuen artian aurrera itxia zaila da, baina ez ezinezkoa. Herritxik eta herrixantzat eskaintako aukerak asko die. Ezin da esan hildako herri baten bizi ganik, danok dihardu lanian eta. Hala ta be, hutsune bat dagola esango nuke, edo nik behintzat, halaxe sentitzen dot.

Gaztiok gure proiektuak sortzeko lekua badauku, eta ideiak goguakin batera be seguru baietz.

Indarra falta dala esango nuke, baina hori gure barne barnian be egongo da, beti egoten da eta! Gure inguruan jabe in, eta duda barik, gaztiongandik herrixai alternatiba desberdinak eskaintzeko kapaz ga.

Jarri garuna martxan eta berpiztu deigun gaztion indarra! Ez hogeita bost urtera, ez hamarrera, ezta urtebetera...

Etorkizuna bihar be badalako!

Joseba Permach: "Lanpostu duina bermatu behar da"

Independentziaz eta krisiaz jardun zuten

M.A. | ANTZUOLA

Eguazten arratsaldean, Sortuko kide Joseba Permachek solasaldia eskaini zuen. Euskal Herriaren bestelako begirada ekonomikoaz eta sozialaz jardun zuen. "Azken hamarkadako krisirik luze eta gogorrera jasaten ari gara; aditu askok 1929ko krisiaz alderatzen dute. Krisitik irteteko tokiko garapena oinarri hartu behar da; baita bestelako industria eta erlazio laboral bat ere. Aberastasuna beste era batera banatu behar da eta eredu sozio-ekonomikoa aldatu beharra dago esparruz esparru", azaldu zuen Permachek.

Eta krisi horrek lotura zuzena duela independentziarik eza-ekin adierazi zuen: "Langabeziarekin eta prekarietatearekin lotura zuzena du Espainiarekin lotuta jarraitzeak. Horren adibide dira gutxieneko soldatak eta inposatutako pentsioa eta lan erreforma. Krisitik irteteko beharrezkoa da lanpostu duinak bermatzea".

Europar, Alemaniar, esaterako, industria hazi egin den bitartean, Euskal Herrian lanpostuak galdu egin direla zioen. "Dependentzia horren ondorioz



Permach, Olarango solasaldian. | M.A.

burujabetza ekonomikorik ez dugu. Gure soldata minimoa eta argindarraren prezioa Madrilen erabakitzen dira. Eta baita gure umeen hezkuntzaren kasuan ere. Madrilek erabaki du eta LOMCE legea", adierazi zuen Sortuko kideak.

Eguneroko bizitzan independentziarik ezak "izugarritzko ondorioak" dituela azaldu zuen. Baina independentzia posible dela eta horretarako izaera eraldatzailea daukan prozesu independentista abian jarri behar dela esan zuen.



Laia Bedos Bonaterra. | LAIA BEDOS

Laia Bedos | Arte Ederretan lizentziaduna

"Sormenak zoriontasuna eta bizitzeko gogo ematen digu"

M.A. | ANTZUOLA

Laia Bedos kataluniarrak gidatuko du bihar, zapatua (09:00-14:00), Olaranen egingo den sormenaren gaineko tailerra. Besteak beste, lan munduan sormenak dauzkan onuraz jardungo du. Izan ere, ikerketek diote sormenak %10 hazten duela enpresaren produktzioa.

Zer da sormena?

Autonomia, autoestimua, arriskua, konfiantza, pasioa eta esfortzua. Guztiek dute lotura sormenarekin. Hezkuntzarekin, hazte pertsonalarekin eta hobekuntza sozial eta kulturalarekin ere lotu daiteke. **Eguno bizitza erritmoaren ondorioz sormena txikitu da?** Inoiz baino gehiago, sormena oso garrantzitsua eta beharrezkoa da gure gizartean. Zaila da denborarik ez duzunean sortzailea izatea. Baina geroz eta gehiago dira sormenak bizitza hobetzen duela ohartu direnak. Sormenak zoriontasuna eta bizitzeko gogo ematen digu.

Zein da tailerraren helburua?

Parte hartzaileen jarrera sortzailea esnatu gura dut. Eta errekurtsuak eta dinamika sortzaileak erakutsi nahi dizkiet taldean lan egiteko. Tailerrera datozenak, jarrera irekiaz eta gauza berriak ikasteko prest etorri beharko dira. Egun, baina, bizitzako esparru ezberdinetarako baliagarriak diren askotariko tailerrak eskaintzen nabil. Gauzak beste era batera egitearen beharrea sinisten dut: errazago eta ongizatea bermatzeko asmoz. Adibidez, eskolako irakasleendako, gurasoendako, enpresa arloko langileendako... tailerrak egiten ditut. **Eta Antzuolako biharko tailerrera nor etorriko da?**

Elkarheztzen eta Debagoieneko bestelako gizarte erakundeetako ordezkariak etorriko dira sormena lantzen. Informazio guztia hementxe: www.beeosbonaterra.com.

OHARRAK

ONDARREKO JAIK

Bihar, zapatua, 12:00etan, ginkana egingo dute, Peña Ayastuik antolatuta. Domekan, meza (11:00etan) ostean, prozesioa, salda eta dantzak izango dira.

AURREZ BOZKATU DAITEKE

Ekainaren 3ra arte botoa emateko aukera dago Kalebarrengo 16. zenbakiko lokalean. Bertan duzue informazio guztia (18:30-20:00, astelehenetik ostegunera).



Iker Elexpuru eta Rafael Bengoa, Sastiña aurrealdean. | ARANTZAZU EZKIBEL

Iker Elexpuru eta Rafael Bengoa | Herritarrak

"Ariketa demokratikoa izango da galdeketa"

- Elexpuru eta Bengoak herritarrak gonbidatu nahi dituzte bozkatzera
- Emaizaren arabera irakurketa egiteko eskatzen diete erakundeei

ARANTZAZU EZKIBEL | ARAMAIO

Aramaioko Erain Debagoienak gonbidatuta, Iker Elexpuru eta Rafael Bengoak erabakitze eskubidearen gainean berba egin dute. Herritarrak gonbidatu gura dituzte: "Ezin da aukera galdu". **Herria jabetzen da erabakiak bere esku izatearen garrantziaz?** Iker Elexpuru: Bai, uste dut gehiengo baiez. Horren erakusle da Gure Esku Dago-k egin dituen ekimenetan zenbat herritarrek parte hartu duten. Aramaion 300dik gora sinadura batzeak erakusten du kontzientzia handia dagoela.

Rafael Bengoa: Eragileen kanpaina eta kaleko ekintzak aproposak izan dira, ez zait agresiboa irudit. Normalizazio hori da baloratzen dudana.

Nabaritzen duzue herritarrak aktibatu egin direla gai horren inguruan?

R.B.: Batu den sinadura kopurua ikusita, duda barik, herritarrak aktibatu egin diren seinale da. I.E.: Jende askok gero eta garbiago dauka erabakitze eskubidearen beharra: momentu honetan guk ditugun beharrak edo nahiak ez dira erantzuten espainiar eta frantses estatuekin ditugun harremanetan. Aldaketaren beharra eta erabakitze eskubidearen beharra dela oinarria gero eta argiago dute Aramaio herritar askok. Oinarritzeko eskubide demokratikoa da erabakitze eskubidea. Kontzientzia sakontze bat izan da; besteak beste, urteetan ez delako emaitzarik egon ditugun beharrak sakonki erantzuteko.

Giza katea mugarri bat izan zen. Uste duzue erabakitze eskubidearen aldeko mugimendua moteldu egin dela ordutik?

R.B.: Nik uste dut Aramaio historikoki oso pasiboa izan dela,

oso zaila da jendea inplikatzeko. Bakoitzaren lehentasunak lehentasun pertsonalak dira.

I.E.: Nik uste dut Aramaio ez dela salbuespena. Gure Esku Dago-k izan ditu inflexio puntu batzuk: giza katea, jostunak... eta orain dator datorrena. Intentsitate aldetik gorabeherak egon dira, baina horrek ez du esan gura jendea egoera pasiboan dagoenik. Hasierako parte-hartze horretatik gaur egungo 300 sinadurera gorakada gertatu da.

Galdeketa kontrako jarrera duenarekiko jarrera zein izan beharko litzateke?

I.E.: Esan dudanez, erabakitze eskubidea eskubide demokratiko bat da. Horren kontra dagoenik ez dut ezagutzen, Aramaion, behintzat. Beste gauza bat da galderari baietz edo ezetz erantzutea; hori beste kontu bat da.

R.B.: Nik ez dut uste horrelako kontsulta baten aurrean kontra inor egongo denik. Horrelako kontsulta baten aurrean apur bat demokratikoak izan behar gara. Erantzuteko ez dago zertan arazorik egon.

Ekainaren 5eko galdeketa hori mugarri bat izango da bidean?

"Batu den sinadura kopurua ikusita, herritarrak aktibatu egin dira"

"Parte-hartze masiboa, jai giroan eta konplexu barik egin dezagun"

I.E.: Uste dut baietz. Herri honetan, zati esanguratsu bat kokatzen da jarrera konkretu batean; galdeketa horretan baiezkoaren alde kokatzen da. Baina hori oinarri bat da: hortik haragoko ariketa bat du jendeak buruan. Independentziaren aldeko bidea eta estatu propio bat eratze hasierako mugarria izatea galdeketa. Gainera, euskal estatuaren inguruko ariketak egiten badabiltza gaur egun ere hainbat eragile.

R.B.: Denborak esango du. Erabaki edo erantzun bat baldin badauka kontsulta horrek, irakurketa bat egin beharko dute.

Erakundeen erantzuna zein izango dela uste duzue?

I.E.: Batzuetan, gauzak nahasi egiten ditugu. Herriarren nahiak erantzuteko daude erakundeak, eta ez erakundeen beharretara herritarrak. Kultura politikan sakondu behar dugu; eta herritarrok gure nahiak erantzuteko bideak markatzen hasi beharko ginateke.

R.B.: Ez da emaitza, herriaren borondatea da. Herriaren borondatea aurrez aurre baldin badaukazu, baloratu egin behar duzu. **Nola ikusten duzue ekainaren 6a?** R.B.: Interesgarria izango da. Orain arte horrelakorik ez da egin, aurrerapauso bat da. I.E.: Balio demokratiko sakona dauka, herriari hitza emango zaio eskubide hori onartzen dela erakusteko. Ausardia eskatzen diet herriarren hitza defendatzeko defendatu behar den lekutan.

Gonbidapenik egin gura duzue?

I.E.: Ezin da aukera galdu. Parte-hartze masiboa, jai giroan eta inolako konplexu barik egin dezagun. Ariketa demokratikoa da. R.B.: Aukera bat da eta aukerak aprobetxatzeko dira.

Eguzkierripa Rock jaialdia egingo dute, Gazte Asanbladiek antolatuta

Bihar, zapatua, egingo duten bazkarirako txartelak salgai daude 5 euroren truke

A.E. | ARAMAIO

Aramaio Tropikaleko Gazte Asanbladiek gertu du bihar egingo duten Eguzkierripa Rock jaialdia. Urtero moduan, herria girotzeko hainbat ekintza antolatu dituzte. Musikak leku nabarmena izango du jaialdian, eta bazkaria ere izango dute, Asanbladiek berak gertatuta.

12:30ean hasiko dute eguna, poteoarekin. Herriko tabernetan ibiliko dira. Ondoren, 14:30ean,

bazkaria egingo dute txartelak salgai daude tabernetan, 5 euroren truke. Eguzkierripan bertan prestatuko dute bazkaria: pasta-entsalada eta oilaskoa izango dute bazkaltzeko. 80 bat lagun elkartuko dira.

Bazkalosteko kontzertuak

Bazkalondoren, Txabela Bragas *–Palabras ke hace unos años una loka inskribio en la pared del manikomio–* eta Hans, Willi eta Txakur igoko dira taula gainera, bazkalostea girotzera.

19:30etik aurrera, musika kontzertuak hasiko dituzte Eguzkierripan. Aretxabaletako Kalaña taldea, Zarzamora aramioarrak, Lekeitioko Pornox taldea, Durangaldean sortutako Nevadah eta Kraussk Mutriko metal taldea izango dira iluntzea girotzeko ardura izango dutenak.



Zarzamora taldeko abeslaria. | T.M.

Zuiako Kuadrillak antolatuta, Emakumeen Topaketa egingo dute ekainaren 3an, barikua, Murgian

Ekainaren 3an Emakumeen Topaketa egingo dute, Zuiako Kuadrillak antolatuta. Aurten landuko duten gaia izango da: *No todo está inventado por los hombres*. Ekitaldietan parte hartzeko, izena eman behar da aurrez: azkeneko eguna maiatzaren 30a izango da, astelehena. Emakumeen elkartean edo Zuiako Kuadrillan eman beharko da izena. Aramaioetik autobusa irtengo da 15:20an.

Literatura lehiaketako sari banaketa egingo dute gaur, 18:30ean, kultura etxeko areto nagusian

Txirritola euskara elkarteak antolatzen duen literatura lehiaketako sari banaketa egingo dute gaur. Elena Zubizarretak, Irene Txurrukak eta Leire Ruiz de Azuak osatu dute epaimahaia. Sariak mailaka banatuko dituzte: maila bakoitzeko bi sari; eta 12 urtetik gorakoen mailan ere bi sari izango dira.

OHARRAK

MAKROBIOTIKA ELIKADURA

Itur Zuri emakumeen elkarteak antolatuta, makrobiotika elikadurari buruzko hitzaldia eskainiko du Osasun Eskolako Egoitz Garrok. Sastiñan izango da, astelehenean, 19:00etan. Gazteleraz izango da hitzaldia.

PILOTA

Arabako herri arteko pilota txapelketako jardunaldia jokatuko dute bihar. Etxeko taldeak Zuia hartuko du, 10:15ean hasita. Hiru pilota partidu jokatuko dituzte: kadete, gazte eta senior mailetakoa. Horrez gain, dome-

kan, lagun arteko pilota topaketa egingo dute.

PAPARGORRI

Papargorri abesbatza otarreak zozkatzen dabil maiatzeko bari-kuetan. Orain arteko saridunak izan dira: Beñat Burgi, Amaia Fernandez eta Miren Errasti. Oraingo barikuan zozkatuko dute azkeneko otarrea.

HAUTESKUNDE MAHAIK

Astelehenean, 14:00etan, ezohiko bilkura egingo dute ekainaren 26ko hauteskundeetarako mahaikideak izendatzeko.

ELGETA

Hamargarren etaparekin Elgetara iritsiko da domekan '2016 Bidea'

Prest dago Asentzion DSS2016EU GR sarea markatzen duen panela

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA
Donostia 2016ko ekintzen barruan 32 etapako mendi zeharkaldia egiten dihardute *Ibilian egiten da kultura* lelopean. Domekan hamargarren etapa egingo dute, Gesalibar eta Elgeta artekoa. 20,2 kilometro ditu, eta ibilbidean hiru kultura ekintza egingo dituzte. 10:30ean, Besaiden, omenaldia eskainiko diete euskal mendizaleei. Bergarako orfeoia eta hari taldeak hartuko dute parte. Bidean aurrera eginda Kanpanzarrera iritsiko dira mendizaleak 13:00 aldera, eta hortik Intxorta aldera egingo dute. Aurreikusita dago 16:00etan gerra lubakietara bisita gidatua egitea eta 17:15ean Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroa ikustea. Ekintza kulturalak irekiak dira eta edonork har dezake parte. Mendi zeharkaldia egin nahi dutenek, aldiz, aurrez eman behar dute izena www.dss2016.eu atar



Prest da Asentzion DSS2016EU GR sarea markatzen duen panela. | L.Z.

rian. Prezioa da zazpi euro. *2016 Bideak* harrera "ikaragarri ona" duela esan dute antolatzaileek: "Etapaz etapa kultura ekintzaz bustitako bidea egiten ari dira partaideak", esan dute. Zeharkaldian oinarrituta DSS2016EU GR

sarea sortuko du Foru Aldundiak. "Gipuzkoako zazpi GR nagusiak lotuko ditu eta aukera emango du lurraldean dauden Natur Gune Babestu guztiak oinez lotzeko". Asentzioko bidegurutzean dagoeneko gertu dute panela.

Ekainaren 17rako iragarri dituzte beheko kaleko jaiak

Torrealde auzoko jai batzordea martxan da eta afarirako txartelak salgai daude Goikoetxe harategian 12 euroan. Jaiak laguntzeko zozketako txartelak ere salgai daude herriko hainbat tokitan. Pintxo potea, bizikleta lasterke-ta, jokoak, buruhandiak eta Amaia DJ iragarri dituzte. Gaztetxoendako karaokea ere egongo da.

Euskarazko Magia Mostra ekaineko lehen aste bukaeran

Asier Kidam, Tor, Txoborro eta Imanol Ituiño gonbidatu dituzte aurten euskara hutsean izango den Elgetako Magia Mostrara. Sarrerak salgai daude Haizea eta El Rincon de Lola tabernetan. Umeen-dako magia tailerrak ere iragarri dituzte ekainaren 5era-ko. —Ikus 30. orria—.

Hezitzaileen lan poltsa eratzeko deialdia egin du Elgetako Udalak

Lan poltsaren iraupena bi urtekoa izango da, eta deialdia zuzenduta dago udaleku, ludoteka zein gazteleku zerbitzuetan hezitzaile izan nahi dutenendako. Interesatuak udal-txean eman behar dute izena ekainaren 2ra bitartean. Informazio gehiagorako jo www.elgeta.eus atari elektronikora.

Elgeta Zero Zabor: "Dena ez da errefusa, hobetu dezakegu"

KOMUNITATEA GOIENA | ELGETA
ELGETA ZERO ZABOR

"Aurtengo Aste Berdearen egitarauaren barruan Elgetako Udalak errefusaren karakterizazioa antolatu zuen, hau da, kontenedore grisean zer botatzen dugun ikustea.

Oso jende gutxi hurbildu zen bertara, zaborra begien aurrean ipintzeak, ikusteak, oraindik beldurra ematen digu.

Emaitzek asko hobetu dezakegula erakutsi zuten. %28 organikoa zen, konposta egite-ra bideratuz gero herrian dauden baratzegileek eta lore zain-tzaileek eskertuko lukete.

Botikara eraman behar diren

erabili gabeko sendagaien kopu-rua ere begi bistakoa izan zen.

Benetako errefusa %38,22 izan zen; gehienbat, pardelak.

Nahastutako hondakinak ezin dira berreskuratu eta berre-rabili, hau da, igandean topa-tutako %61,71 baliabideak ziren, ia-ia zabortegi bidean. Eskerrak sailkatu zirela.

Guztiok ditugu eskubideak baina baita betebeharrak ere. Geure eta geure ondorengo- osasunaren eta ingurumenaren zaintzan pentsatuko bagenu pauso galanta egingo genuke etxeko hondakinak ondo sail- katzen.

Pixkanaka jarrai dezagun hobetzen".



L.Z.

Eskolatik frontea ezagutzera

Herri Eskolako hirugarren mailatik seigarren mailara arteko neska-mutikoei Intxortako frontea ezagutzeko ibilbidea egin zuten astelehenean. Museoa ikusi zuten eta ibilbide tematikoa egin zuten oinez Nerea Villaren azalpenekin lagunduta. Hala, orain 80 urteko herria suntsitu zuten gertakarien berri izan zuten eskola-umeek.

OHARRAK

'GU ERE KONTALARIA'

Gaur, barikua, herriko bost neska-mutikok egingo dute ipuin kontalari saioa, 17:00etan, udal liburutegian.

AZKEN BARIKUA

Gaur, barikua, 20:00etan, hilero-ko elkarretaratze isila Elgetako herriko plazan presoen eskubi- deen alde.

BISITA LUBAKIETARA

Maiatzaren 29an eta ekainaren 5ean eta 26an egingo dira. Ezin- bestekoa da aurrez izena ematea: turismo@debagoiena.eus / 943 79 64 63 / 943 71 89 11.

TUTOREA KZGUNEAN

Eguaztenean, ekainak 1, kultura etxeko KZgunean izango da tuto- rea, 09:00etatik 10:30era.

HERRI GALDEKETA

Erain Debagoienak boluntarioak eskatu ditu ekainaren 5ean egi- tekoa den herri galdeketarako. Izen-emateak: [elgeta@gureesku- dago.eus](mailto:elgeta@gureesku-dago.eus) edo 678 21 39 08 (wha- tsapp). Bestalde, Elgetan botoa aurrez eman nahi dutenek horre- tarako aukera izango dute maia- tzaren 31n eta ekainaren 2an Ozkarbipean, 19:00etatik 20:30era.

FRONTENIS TXAPELKETA

Martxa onean doa frontenis txapelketa. Emakumezkoek amaitu dute ligaxka, eta gizonezkoetan partidu bat jokatzea falta da. Antolatzaileek ekaineko lehenengo aste bukaerarako iragarri dituzte finalerdiak: ekainaren 4rako, hain zuzen ere.

AZKEN EMAITZAK

Maitena Mañarikua- Ane Martin / Miren Argi Zeziaga-Liemi Mendizabal	13-25
Mikel Arkarazo-Josu Aranzabal / Eneko Maguregi-Andoni Elorza	08-25
Josu Mañarikua-Berñat Arabaolaza / Imanol Albizu-Julen Barutia	25-20

BIHAR, ZAPATUA, 10:30EAN

Josu Mañarikua-Berñat Arabaolaza / Eneko Maguregi-Andoni Elorza

LEINTZ GATZAGA

Jon Campo eta Ibai Iregi | Puntaik Puntako logoaren egileak

"Proba ugari egin ditugu, baina oso gustura geratu gara emaitzarekin"

ENEO AZURMENDI | LEINTZ GATZAGA
Debagoieneko Mankomunitatea- rekin elkarlanean egin dute logoa eta oso aberasgarria eta baliaga- rria izan zaiela diote. **Zelan sortu da logoa egiteko ideia?** Mondragon Unibertsitateko ikas- leak gara eta Gradu Bukaerako Lana Debagoieneko Mankomu-

nitaterako egiten ari gara. Egin behar ditugun lanen artean, jaial- diaren logoa diseinatzea egokitu zaigu. Ez da logo bat egiten dugun lehen aldia, baina bai horrelako proiektzioarekin. **Zer agertzen da logoan?** Irudiari dagokionez, zazpi oin markaz edo zapatila markaz osa-

turiko irudi bat daukagu. Zapa- tila markak erabili ditugu, men- dian ibiltzen garenean eta loka- tza dagoenean askotan markak uzten joaten garelako. Koloreei dagokionez, ostadarraren kolo- reak erabili ditugu aniztasuna adierazteko, gure bailara oso anitza da eta. Puntaik Punta jaial- dia gustu eta adin guztietarako jendeari zuzenduta dago. **Nondik hartu duzue ideia?** Mundu guztian zehar hainbat *walking* festival antolatzen dira, gurearen antzekoak. Ideiak har- tzeke hango eta hemengo jaialdien

logoak ikusi ditugu, baina gure errealitatera hurbildu nahi izan dugu. Askotan erabili izan dira oinazeak edo zapatilen markak logoetarako, eta guri asko gus- tatu zaigu ideia hori. Proba uga- ri egin ditugu, baina oso gustura geratu gara emaitzarekin. Espe- ro dugu jendeari gustatzea. **Jaialdira joateko asmorik?** Pena handiarekin, baina lehen egunean, behintzat, ezin izango gara egon, ekainaren 10ean gure graduazio eguna da eta. Hala ere, gure gertukoak joango dira, eta espero dugu jendea animatzea.



Iregi eta Campo, lanean. | IREGI ETA CAMPO

Ekitaldiak

Irakurle aurreratua

Zozketak

Denda

berriarekin zuzenean

berria berri

Orain

berria *laguna*

gehiago da

> berria.eus/berrialaguna

BERRIAlaguna bazara

Sortu kontua

eta gozatu abantailez!

berria.eus/berrialaguna

Zure ekarpenari esker,
aurrera goaz!

berria
mundua·euskarari·emana

KIROLA

FUTBOLA

Josu Zubia | Mondrako entrenatzailea

"Umiltasun osoz irtengo gara bihar berdegunera, final bat jokatzera"

- Arrasateko futbol taldea kategoriaz igo daiteke bihar, zapatua (17:00), Mojategin
- Zuri-moreek aldeko dute kanporaketa, joan den astean Pasaian 1-2 irabazi ostean

XABIER URZELAI | ARRASATE
Zapatuan Mojategiko harmailek denboraldiko itxura ederrenetakoak erakutsiko dute, asko izango dira-eta urteko azken partiduan talde zuri-morea gertutik babestu gurako dutenak. Futbol jaia izango da harmailetan, baina berdegunean gertatuko denak gutxi izango du jaitik, partidua amaitu arte ez, behintzat, Josu Zubiak (Aretxabaleta, 1975) ez du-eta konfiantzarik gura: "Pasaia-tik emaitza ona ekarri dugu, egia da hori, baina oraindik ez dugu ezer lortu".

Ze sentsazio edo sentipen duzu biharko partidura begira?

Alde batetik, urte osoko lana partidu batean jokoan egongo den sentsazioa daukat, eta horrek urduritasun puntu bat ematen du. Baina urduri baino gehiago, partidua jokatzeko gogoz gaude, eta urte osoko helburua betetzeko gogoz, kategoriaz igotzea.

Larregiko konfiantza izan daiteke zapatuan Mondrak izan dezakeen etsairik handiena?

Etsailetako bat izan daiteke, bai. Baina garbi daukat gurea oso talde umila dela eta jokalariek ez dutela kanporaketa gainditutzat emango. Emaitza positibo bat batzetik gatoz, baina hori ez dadila gure kontran etorri. Liga-ko azken partiduan, Urolaren kontra etxean jokatu genuen hartan, euforia puntu hori igarri nuen jendearengan, baina hori normala ere bada. Futbola joko bat da, azken batean. Baina taldekideok kontuz ibili behar dugu. Zaleak gogotsu egotea normala da, baina gu final bat jokatzera irtengo gara, umiltasun osoz. Oraindik ez dago ezer eginda.

Zenbat balio du Mikel Aizpuruak Trintxerpen faltaz egin zuen 1-2koak?

Izugarritzko balioa dauka, sekulakoa. Jendeak aipatzen zuen Pasaian berdintzea oso emaitza ona izango zela, baina 1-2koak etxeko partidura begira askoz ere gehiago laguntzen digu. **Bihar Sanpedrotarra erasora jokatzera derrigortuta dagoelako.**



Josu Zubia, eguztaren lan saioaren aurretik egindako entrenamendu saioan, Mojategin. | XABIER URZELAI

Hori da. Etxetik kanpora Sanpedrotarra lau alditan ikusi dut jokatzeko, eta lauretan modu berean egin izan dute, atzean gordeta. Horrek biharko partidurako ez die balio, aurrera egitera derrigortuta daudelako, eta hor min egiteko kapaz gara. Joane-koan jokalariei esan nien kontrariorik txarrena tokatu zitzaigula eta euren futbol zelai txarrena zela. Eta hala ere, Zestoaren, Zumaiaren edo Urolaren kontra egin genuen moduan, Sanpedrotarraren zelaian irabazteko gauza izan ginen. Orain, gure ezaugarrietara hobeto moldatzen den partidua izango dugu. **Mojategin zaleen babesa izango duzue.**

"Bada garaia Mondrako zaleei poztasun bat emateko"

Zalantza barik. Gainera, ordua da Arrasateko zaleei poztasun bat emateko, azken urteak ez dira-eta errazak izan. Baina emozio horiek kudeatzen jakin behar dugu. Partiduan kontzentratuta egoten jakin, eta, lehia aldapa gora jartzen bazaigu ere, lasai egoten asmatu. Arlo horiek ere asko landu ditugu, eta talde heldua gara. Iaz aurpegiratzen ziguten galtzen hasten ginen partiduetan ez ginela gauza egoerari buelta emateko, eta hori aldatu egin da aurrean. Txarto hasten bagara ere, egoerari buelta emateko gertu gaude.

Non dago talde honen indarra?
Jokalariek erakutsi duten lanerako konpromisoan. Pribilegiatu

"Jokalariek erakutsitako konpromisoan dago arrakastaren gakoa"

hutsa naiz jokalaria hauek entrenatzeko aukera izan dudalako, garbi daukat hori. Entrenamendu bakoitzean 20 lagun izan ditut lanerako prest, eta horrek izugarri laguntzen du. Gainera, ez nik bakarrik, uste dut nire aurretik egon zen Gotzon Urzelaik ere lan galanta egin zuela. Batez ere, kategoria galdu ostean talde bat sortzeko gauza izan zelako. Nire ardura izan da urte eta erdi honetan talde hori osatzen joatea. Eta bestalde, benetako talde bat izan garela eta minutuak oso banatuta egon direla: datu bat, 22 jardunalditan ez dugu hamaikako bat errepikatu. Horrek esan gura du minutuak oso banatuta egon direla.

"Minutuak oso banatuta egon dira, ez dugu hamaikako bat errepikatu"

Talde nagusiak azken hamarkadan izan duen ibilbidea ikusita, dagoneko entrenatzaile talisman bilakatu zara zuri-moreendako.

[Barreak] Bueno, ez nuke horrenbeste esango. Guztira hamar urte egin ditut Mondran, bi sasoi-tan banatuta. Lehenengoan harrobiarekin hasi nintzen, eta lehenengo taldearen ardura hartu eta mailaz igo ginen. Orain, urte eta erdi daramat. Egia da etxean moduan sentitzen naizela Mondran; asko eskertzen dut garai batean Patxi Yarzak eta Jose Luis Ezkurrak nigan erakutsi zuten konfiantza eta orain Ramon Azkaratek, Garaik eta Abelek erakutsi dutena.

Datorren urtera begira, egin duzue berba?

Bada, oraindik ez. Egia da aurtengo urtea desgaste handikoa izan dela, ezin genuelako hutsik egin, eta hori nekagarria da. Oraingo, zapatuko partidua baino ez dut buruan. Izango dugu berba egiteko astia.

MENDI LASTERKETA

"Mendiari ezin diogu inoiz errespetua galdu, ikasgai ona izan da aurtengo Zegama"

- Atleta askok hipotermia arazoak izan zituzten
- Urbiako fondan atleta asko artatu behar izan zituzten

XABIER URZELAI | ARRASATE

Atleta guztiek ez dute domekako Zegama-Aizkorri lasterketako oroitzapen onik gordeko, askok gorriak ikusi zituzten eta. Helmugan Kilian Jornetek beste planeta batetik etorri dela erakusten zuen bitartean [3.50], korrikalari asko larri zebiltzan mendian, bai herri mailakoak, eta baita elitekoak ere.

Kondizio oso gogorrak

Bost mila metro pasako desnibela duen mendi maratokia izanda, jakinek da egun horretan sufritu egin behar dela, eta atletak ondo prestatuta egoten dira sufrikario horretarako, baina hama-bosgarren edizio honetako baldintza gogorrek izugarri gogortu zuten proba, eta Aizkorriko mendizerran atleta asko ez aurrera eta ez atzera geratu ziren, tartean

hainbat debagoiendar, hipotermiak jota, eta gorputza erabat blokeatuta.

Euskal selekziozko ordezkari eta mendi lasterkari Iñaki Uribe-Etxeberria eskoriatzarrak bertatik bertara ikusi ahal izan zituen halako egoera asko: "Aurtengo Zegama-Aizkorri ikasgai ona izan da askorendako, arin joan guran arropa gutxi hartzen dugulako, edo segundo batzuk ez galtzeko soinean daramagun zira janzteko ez dugulako tartetxo bat hartzen, eta ondoren berandu da. Nik iaz ikasi nuen ikasgai hori, hoztu eta tripetatik oso txarto pasa nuelako, hipotermiak jota, eta domekan kontu handiz ibili nintzen. Eta, hala ere, ez pentsa arropa askorik neukanik soinean".

Hala, beste urte batzuetan baino gutxiago entrenatuta, Uribe-Etxeberriaren helburua hel-

mugara iristea zen: "Lasai hasi nintzen. Zegaman 16 graduko temperatura geneukan, baina Aratzen hotz egiten zuen, tenperatura jaitsiera handia izan zen. Sancti Espiritun jendea hotzak jota ikusi nuen, baina Aizkorriko tontorra pasa eta mendizerran ikusi nuena ez zen batere gozoa izan. Mendiko eskiko lasterketetan ere ez ditut halakoak ikusi. Beste urte batzuetan Aizkorriko mendizerran ikusle asko batu izan da, eta domekan ez zegoen horrenbeste; giroa benetan zen txarra. Eta tarte askotan inor ez zegoen atletei laguntzeko, eta asko ez aurrera eta ez atzera ikusi nituen, erabat gogortuta. Geratu eta aurrera egiteko esaten genien, hor ezin zutela geratu zerbait larria gerta zitekeelako, baina giharrak erabat blokeatuta zituzten askok".



Iñaki Uribe-Etxeberria, Sancti Espiritun, zaleen berotasunean. | ARITZ GORDO

Urbiako fondan nahikoa lan

Antolatzaileek eta osasun zerbitzuetako ordezkariak nahikoa lan izan zuten Urbiako fondan: "Esan didate hogeitodoterreno inguru ibili zirela han jendea ebakuatzen, eta fondan aurkitu zutela atleta askok babesa. Dena dela, antolatzaileak ez daude atletak ebakuatzerantz derrigortuta, egoera larria ez baldin bada, behintzat. Uste dut atletok kontziente izan behar dugula ezin garela mugaren mugan ibili, mendian gaudelako, eta arazo txikiena izanda ere kapaz izan behar dugula gure kabuz erantzuteko. Ezin dugu espero antolatzaileek gu guztiok laguntzea. Alde horre-

tatik, Zegama-Aizkorri hau abisubat izan da askorendako".

Gabez Takarraran, gertu

Aurrera begira, Uribe-Etxeberriak eta beste hainbat lagunek ekainaren 18rako antolatuko dute Gabez Takarraran, Eskoriatzan: "Dagoeneko zabalik dago izenematea – *kirolprobak.com* atarian – eta aurreratu nahiko nuke aurtengo edizioan, egunean bertan ez ditugula izenak hartuko, horrek antolatzaileoi asko zailtzen digulako lana. Hala, ekainaren 15a izango da azken eguna. Eta, formatu berberari eutsiko diogu, gauetz izango da, eta 23 kilometro izango ditu lasterketak".

PILOTA

Oñati eta Arrasate, Herriartekoan aurrera egiteko abantailarekin

Puntu bateko aldea dute biek ala biek; Bergarak, aldiz, ez dauka aukerarik kanporaketan

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Oñatik eta Arrasatek euren esku dute Herriarteko Pilota Txapelketan final-laurdenetara pasatzeko txartela. Joaneko partiduetan 2-leko abantaila lortu ostean, Tolosa eta Azkoitia menderatze-ko aukera handiak dituzte. Bergarak, ostera, ez dauka zereginik Azpeitiaren kontra: joanekoan 3-0 galdu zuen.

Oñatiarrak Zubikoan

Oñatik etxean jokatu du Tolosaren kontra, gaur, egubakoitza, 19:30ean. Joanekoan kadete eta gazte mailetakoko puntuak irabazi ostean (22-19 eta 22-19, hurrenez hurren), abantailarekin jokatu dute oñatiarrak. "Kadete eta gazte mailetakoko irabazi behar ditugu. Azkoitiak berdinketa lortuko balu, oso zaila izango litzateke aurrera egitea. Aldeko eta kontrako tantoak hartuko lirateke kontuan, eta arlo horretan ez daukagu abantailarik", diote.

Arrasatek Azkoitian

Arrasatek Azkoitiko frontoian jokatu du itzulerakoa, gaur, egubakoitza, 22:00etan. "Kadete mailan gu gara faboritoak eta gazte mailan azkoitiarrak. Hortaz, gakoa senior mailakoan egongo da. Joanekoan 19-22 irabazi genuen. Baina azkoitiarrak euren pilotari onenak berreskuratu dituzte eta oso zaila izango da. Gure jokoa egiten badugu, aurrera egingo dugu", esan du Ibai Bolinagak.

Aukerarik ez Bergarak

Bestalde, Bergarak ez dauka aukerarik Azpeitiaren kontrako kanporaketan. Hiru partiduko galdu zituzten joanekoan eta 42 tanto dituzte kontra. "Bagenekien oso zaila izango zela. Baina jokalariek ilusio handiarekin jokatu zuten", dio Reyes Azkotiak.

Itzulerako partiduko gaur, egubakoitza, 19:30ean, jokatu dute pilotalekuan

TRIATLOIA

Argider Isasti oñatiarra bigarren sailkatu zen 'Soplaoman' triatloian

Hamar kilometro igerian, 75 korrika gauetz eta 110 mendiko bizikletan egin zituen Kantabrian

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Iazko garaipena berresteko aukerarik izan ez zuen arren, "pozik" itzuli da Argider Isasti *Los 10.000 del Soplaoman* izeneko kirol erronkatik. Bigarren lekuan sailkatu zen han egiten den kirol diziplina gogorrean: *Soplaoman* triatloian.

Ur irekietan hamar kilometro igerian, gauetz 75 kilometro korrika eta 110 kilometro men-

diko bizikletan. Horratx parte-hartzaileen erronka Cabezon de la Sal herrian (Kantabria).

Tino Zaballa txirrindulari ohiak 18.49.22 egin zuen, Argider Isastik 19.08.51 eta Jesus Manuel Gomezek 21.16.25. Eurak igo ziren podiumera. "Azkenera arte Zaballa estutzen saiatu nintzen, baina, azkeneko, esfortzua ordaindu egin nuen", esan du.

Atzetik aurrera

Tino Zaballak aurre hartu zuenean, bigarren lekuarekin konformatu barik haren atzetik joan zen oñatiarra. Bizikletako sektorean desabantaila murrizten joan zen, hiru minutura ipini arte. Horrainsa heldu zen bere progresioa. Liderra harapatzeko egindako esfortzua garesti ordaindu zuen. "Ezin izan nuen Zaballaren erritmoari eutsi. Baina gustura nago proban egindako lanarekin, eta baita aurretik egindakoarekin ere", esan du.



Podiuma | ARGIDER ISASTI

HOCKEYA

Euskadiko hockey txapelketa Bergaran

M.B. | BERGARA

Euskal Herriko hockey txapelketa jokatu da bihar, zapatua, Bergarako Labegaraia kiroldegian. Askotariko partiduko jokatu dira.

Euskal Herriko txapelketan Metropolitano, Hanka Labanka eta Dragons taldeak lehiatu dira. Euren artean jokatu dute: Metropolitano-Hanka Labanka 16:00etan eta 17:15ean eta Dragons-Hanka Labanka 18:00etan. Horien ostean, puntu gehien lortzen duen taldeak irabaziko du txapelketa. Berdinketa gertatzen bada, penalti jaurtiketak egongo dira lehia bakoitzeko irabazlea zehazteko.

Jokalariek gazteak

Euskal Herriko txapelketaren aurretik, harrobiko taldeen dako txanda izango da. Metropolitano eta Hanka Labanka taldeetako jokalariek gazteek elkarren kontra jokatu dute: 13:45ean eta 14:45ean alebinak eta 14:15ean eta 15:15ean benjaminak. Ordu erdiko partiduko jokatu dituzte.

AUTO LASTERKETA

Lan bikaina egiten ari da Xabi Fernandez 'Purito' Jaraman

'Polea', lehen postua eta bigarrena lortu zituen aurreko aste bukaeran

IMANOL BELOKI | ARRASATE

Xabi Fernandez *Purito* pilotu arrasatearra lan bikaina egiten ari da Madrilén, San Sebastian de Los Reyesen dagoen Jaramako zirkuituan. Aurten estreinatu berri duen Seat Leon MK I autoarekin, *pole-a* lortu zuen, lasterketa bat irabazi eta beste batean bigarren postuan geratu zen aurreko aste bukaeran.

Lehen lasterketan, irteera ezin hobia egin zuen, eta erritmo bikaina mantendu zuen lasterketan zehar. "Bigarren eta hirugarren autoengandik tartea lortu genuen arren, lasterketaren erdialdera moteldu egin ginen arazo mekaniko batengatik; hala eta guztiz, irabazi egin genuen".

Bigarren lasterketan, aldiz, ez zuen irteera onik egin arrasatearrak, postu ugari galduz, eta Maximo Sant Ramo pilotuak aurre hartu zion. Ezin izan zuen aurre-

ratu, eta, bata bestearen alboan joan arren, lasterketan bigarren postuan geratu zen. Presioa mantendu zuen *Purito*-k, eta, azken bueltetan freno barik geratuta eta beste pilotuaren autoaren aurka talka txikiak eginez, ondorio larririk gertatu gabe, ezin izan zuen garaipena lortu. Hala ere, oso pozik geratu zen egindako lan onagatik, eta batutako puntuengatik.

Gainera, adierazi du txapelketako autoen artean ez dagoela diferentzia handirik: "Lehia oso polita izaten da, auto guztiek berdin korritzen dutelako."

Debuteko bidea jarraituz

Aurreko aste bukaeran lan oso ona egin zuen pilotu arrasatearrak, baina bere debuta ere, apirilaren 9an egindakoa, ezin hobia izan zen. Trofeo Race lasterketan *pole-position-a* lortu zuen, egin-

dako bi lasterketetan lehen postua eskuratuta. Bere lehen aldia izan zen Jaramako zirkuituan, eta, hala hasita, bide onetik ari da Xabier Fernandez pilotua, emaitza bikainak lortzen. Gainera, debagoiendar ugari joan dira orain arte mekanikari lanak egitera eta pilotuari laguntza ematera. Hala, "jendearen babesa ezinbestekoa da; bai babesleena, eta bai lagunena. Azpiegitura aldetik laguntza behar izaten da eta alde horretatik ezin naiz kexatu", adierazi du pilotuak.

Laguntza ezinbestekoa

Bestalde, *Purito*-k adierazi du txapelketan parte hartzen duten beste pilotu gehienak talde pribatuetan lehiatzen direla, eta "lan zikina" taldeak egiten duela, pilotua gidatzeaz arduratuz soilik. Bere kasuan, aldiz, aste batzuk lehenago auto guztia prestatu,



Xabier Fernandez 'Purito', Jaramako lasterketan aurreko asteburuan. | IBERIAMOTOR

garraiatu, behar dena konpondu... egin behar izaten dute. "Horrek pilotuarendako asko suposatzen du. Izan ere, kasu honetan pilotua ez da bakarrik gidatzeaz arduratzen, gauza asko eduki behar izaten ditu buruan".

Hurrengo erronka

Datorren urtera begira, beste pilotu batekin batera, Espainiako erresistentzia txapelketa (CER) egitea pentsatuta duela adierazi du *Purito*-k, baina oraindik erabaki barik dutela.

GOITIBEHERAK

Julen Markez eta Beñat Landa nagusi lehiaketan

Errekalde auzoko VII. Goitibehera txapelketan azkarrenak izan ziren pneumatiken kategorian

I.B | OÑATI

Errekalde auzoko jaietan VII. Goitibehera txapelketa ospatu zen Oñatin, eta azkarrenak Julen Markez eta Beñat Landa izan ziren pneumatikako kategorian.

Euskadiko goitibehera txapelketarako puntuagarria izan zen Errekaldeko lasterketa, eta errepidea bustita egon arren, guztira, 48 parte-hartzaile izan ziren goitibehera ezberdinekin jaitziera apartak egiten.

Gaztetxoak zein helduak izan ziren Goitibeherak gidatzen, eta Larraingaineko irteera puntutik Moiu kalerako ibilbide aldapsua zen egin beharreko ibilbidea. 900 metroko zirkuituan, entrenamenduko saioaz gain, bi manga ofizial egin behar izan zituzten pilotuek.

Pneumatika modalitatean, Markez eta Landaren atzetik sartu ziren Ibai Zumalakaregi eta Ibai Ajuriagoikoa minutu bateko denborarekin. Eta hirugarren geratu ziren, Jon Madina eta Danel Gereta, minutu bat eta segundo bat eginda. Arinak modalitatean, ostera, Iker Arizti izan zen bizkorrena 01:04 denbora eginda; drift trike modalitatean, Aritz Etxabe, 01:21 denborarekin; eta errodamentuetan, Aitor Aransolo eta Itai Maruri 01:44rekin.

Bidea bustita eta arriskutsu

Errepidea bustita, arriskutsu zegoen, eta istripu txikiren bat ere gertatu zen. Ez zen larria izan, eta momentu batez lasterketa geratuta egon bazen ere, giro aparta izan zen bertan.

ESKOLA KIROLA

LEKen azken jaia Aretxabaletan izango da zapatuan

Leintz Eskolako azken jaia Aretxabaletan izango da, Ibarrran. Joko modifikatuak, kirol hastapena, Multikirola (Floorballa, eskubaloia, saskibaloia, errugbia, futbola eta atletismoa), zumba erakustaldia, eta amaitzeko, 12:30ean ekitaldi nagusia izango da ikasle guztien artean. Garaikur bana-keta eta oparien zozketarekin.

TXIRRINDULARITZA

Taldeko erlojupekoa izango dute kadete eta juniorrek Zumaian

Gipuzkoako taldeko txirrindularitza txapelketa izango da Zumaian, domeka honetan eta bi kategorietan debagoiendarrak izango dira parte-hartzen. Juniorrak, 09:45an irtengo dira, eta 29,5 kilometroko bidea egingo dute. Kadeteak, berriz, 11:15ean irtengo dira, eta 18,5 kilometroko bidea egingo dute.

EUSKARAZKO MAGIA MOSTRA

2016 EKAINAK 3, 4 eta 5

Elgetako ESPALOIA Kafe Antzokia



Ekainaren 3an, ostirala, 20:30ean

Asier Kidam - "1805"
(Ikuskizun familiarra)



Ekainaren 4an, larunbata, 22:00etan

Tor eta Txororro "Aztikeriak"
Magia ez da sekula berdina izango.



Ekainaren 5ean, igandea, 12:00etan

Imanol Ituiño "Magia parrastan"



Sarrerak salgai:

Elgetako "El rincón de Lola" eta "Haizea" tabernetan

PIKUPEn

www.pikupe.com

www.kutxabank.es

Aldetz aurretik:

Ostiraleko ikuskizuna 6 €

Larunbateko ikuskizuna 10 €

ANTOLATZAILEK



ERAKUTZAILEK





LAGUNTZAILEK




KULTURA

Magia euskaraz gozatzeko Mostra datorren astean Elgetako Espaloian

- Askotariko trukoen erakustaldiak eta tailerrak, adin ezberdineko publikoaren eskura
- Bergarako Pikupe Produkzioak-ek antolatu du, Elgetako Udalaren laguntzarekin

AITZIBER ARANBURUZABALA | ELGETA
Badira hainbat urte Elgetako Udalak magia erakustaldiak indarzen laguntzeko apustua egin zuela, eta aurten ere apustu horri eutsi dio. Bergarako Pikupe Produkzioak-ek antolatu du aurten goa, eta ekainaren 3tik 5era bitarteko asteburuan izango da.

Euskal magia sortzaileak gonbidatu dituzte taularen gainera, euskaraz egindako sorkuntza lanek duten kalitatea goraipatzeko asmoarekin. "Euskal Herrian lehenengo aldiz antolatuko da horrelako erakustaldi bat. Euskarazko magiak euskal sorkuntzan duen indarra nabarmendu gura

dugu, sinisten dugulako Espaloia kafe antzokia moduko espazio batek euskal sortzaileen lana indartzeko urratsak ematen jarraitu behar duela", azaldu zuen Janire Lazkanok, Elgetako kultura zinegotziak, eguaztenean egin zuten aurkezpenean.

Eskarmentu handiko magoak
Asier Kidam mago gasteiztarrek zabalduko du egitaraua eta familia giroan gozatzeko 1805 ikuskizuna egingo du egubakoitzean. Iraganeko eta orainaldiko mago ezagunen lanean inspiraturik, magiaren historian zehar bidaia-tzera gonbidatuko ditu ikusleak.

Zapatuko galan, berriz, hiru magoren trikimailuekin gozatzeko aukera izango da: Tor, Txoborro eta Imanol Ituño izango dira agertokian. Ikusleen parte hartzea-

ESANAK

"Espainiako Magia Kongresuan saritutako trikimailu bat ikusteko aukera ere izango da"

ASIER KIDAM | MAGOA

rekin, magia eta komedia saioa egingo du Tor eta Txoborro bikoteak. Ondoren, kartak, sokak eta bestelako tresnak agerrarazi eta desagerraraziko ditu Ituñok.

Sarrerak salgai daude

Eskuragarri daude ikuskizunetarako txartelak: "Egubakoitzetarako sei eurotan daude eta hamar eurotan, berriz, zapatuko galarako. Pikupe Produkzioak-en bulegoan -Artekalea 7- eros daitezke, edo *Pikupe.com* atarian bestela, eta baita Elgetako Rincon de Lola eta Haizea tabernetan ere", azaldu du Pikupeko Iker Muruamendiarazek.

EGITARAUA

EKAINAK 3

20:30 Asier Kidam. 1805 ikuskizun familiarra.

EKAINAK 4

22:00 Tor eta Txoborro. *Aztikeriak* ikuskizuna.

22:30 Imanol Ituño. *Magia parrastan* ikuskizuna.

EKAINAK 5

12:00 Magia tailerrak.



ASIER KIDAM

ASIER KIDAM Zazpi urte zituela, mago batek belarritik txanpon bat atera zion Asier Kidami (Gasteiz, 1984); txundituta geratu zen, eta handik hiru urtera mago moduan debutatu zuen berak ere. Harrezkero, 2.000 saiotik gora egin ditu, telebistan eta askotariko aretoetan. Elgetan ordubeteko saioa egingo du askotariko tresnak erabilia eta garai ezberdinetako magia trukoak uztartuta; eta, bide batez, magiaren historia kontatuko die bertaratutakoei.



AKELAR

TXOBORRO ETA TOR Hamalau urte zituela bere kabuz hasi zen magia ikasten Iñigo Gabilondo *Txoborro* (Bilbo, 1983); handik gutxira, Espainiako Ilusionismo elkartearen eman zuen izena. Torrek, berriz, aitaitak kartekin magia truko bat egin zionean erabaki zuen mago izan gura zuela; hala ere, Ingeniari Industrial ikasketak egin zituen, baina magiak *irabazi* zuen. Nor bere bidetik zihoan, baina, 2012an elkartu, eta Akelar konpainia sortu zuten.



IMANOL ITUÑO

IMANOL ITUÑO Ingeniaritza Elektronikoa urte batez ikasi eta gero, Ikus-entzunezko Komunikazioan lizentziatu zen geroago Ituño (Bilbo, 1989). Erredakzio bat baino gehiago, festak, jaialdiak eta antzokiak ditu lantoki, txikitan konturatu zen-eta mago bat zeukala barruan. Haren esanetan, magia parrastan egiten pasatzen du denbora. Kartekin, sokekin eta bolatxoekin ikuskizun parte-hartzailea, dinamikoa eta familiarra egiten du; eta asmo horrekin doa Elgetara.

GAZTA ZATI BAT

GOIENA TELEBISTA | DOKUMENTALA | JON MAIAK IDATZIA ETA ZUZENDUA

EKAINAK 2, 22:00



DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

goiena

Oñati Abesbatza mende erdia ospatzen ari da

Ekainaren 4ko kontzertu nagusiaz gain, liburu bat eta erakusketa bat ere prestatu dituzte

ENENKO AZURMENDI | OÑATI
1966. urtean sortu zen Oñati Abesbatza. Hala ere, garai hartan *Coral Oñatz* izenarekin jaio zen, Oñatz kultura elkarte mistoaren baitan.

Denboralitxo bat zuzendari gabe egon ostean, Patxi Anduaga sartu zen abesbatzan hutsune hori betetzera. Oñati Abesbatza-ren lehen zuzendaria izan zen eta urtebetez egon zen.

Ondoren, Imanol Muruak hartu zion lekukoa, 1968an, eta 40 urtez egon zen zuzendari lanean, 2008. urtera arte. Gizon honen gidaritzapean eman zituen abesbatzak emaitza eraginkorrenak. Oraindik ere *Coral Oñatz* izenarekin Tolosako Abesbatzen Lehia- ketan hainbat urtez hartu zuen parte –1969an, 1971an, 1972an eta 1974an–. Esan behar da Loli Ordokiren –gerora bere lekua hartuko zuena– laguntza handia izan zuela Muruak urte haietan guztietan.

Esan bezala, 2008an Loli Ordoki jarri zen zuzendari, Imanol Muruaren lanari jarraipena emanez. Azpimarratzekoak dira Frantziara (Chateaubernard) eta Valentziara egindako irteerak eta beste abesbatza batzuekin egindako elkartrukeak.

Azkenik, iaz, oraindik zuzendari lanetan dagoen Miren Gurutze Plazaolak hartu zuen postua.

Urteurrena ospatzen
50 urte ez dira egunero betetzen, eta, urteurren garrantzitsu hau

ospatzeko, hainbat ekintza antolatutuzte abesbatzako kideek.

Ekainaren 4an, zapatua, kontzertu nagusia eskainiko du Oñati Abesbatzak, Santa Ana Antzokian –sarrerak 5 eurotan daude, Txokolateixan–.

Kontzertu hau berezia izango da, zentzu guztietan.

Alde batetik, mende erdi hone- tan abesbatzarentzat esanguratsuak izan diren abestiak kantatu- ko dituzte –Aita Madina ardatz hartuta, *Agur Maria*, *Aita Gurea*, eta *Poema Arantzazu*-ko zenbait



Oñati Abesbatza, Agustinotan emandako kontzertuan. | JOSE ANTONIO VILLAR

pasarte–. Bestetik, abesti berriak, elizakoak ere eskainiko dituzte –*Lacrimosa-Mozart*, *3 Contemporary latin settings*– eta beste zen- bait abesti folkloriko –*Kantauri*,

A la fuente del olivo, *De ronda por Aragón*– ere bai.

Zuzendari lanak banatu egin- go dituzte. Aipatutako Imanol Murua, Loli Ordoki eta Miren

Gurutze Plazaolaz gain, Aitor Biainek eta Esteban Urzelaik ere zuzenduko dituzte hainbat kantu. Organo lanak Esteban Irustak egingo ditu.

Bestalde, urte hauetan jaso- tako hainbat elementuz osatuta- ko erakusketa bat egongo da ikusgai kultura etxean, datorren astelehenetik ekainaren 12ra bitartean.

200dik gora argazki –emanal- dietakoak, parte hartutako ome- naldietakoak eta gertakizun garrantzitsuenak–; beste abesba- tza batzuekin egindako trukake- tetan jasotako opariak, plakak; esku-programak; diskoak; parti- turak, eta abar ikusi ahal izango dira. Horrez gain, zenbait bideo proiektatuko dituzte erakuske- tako horma batean.

Azkenik, abesbatza-ren histo- ria laburbiltzen duen liburu bat argitaratu dute, *Oñati Abesba- tza-ren historia laburra* izenekoa. Jose Antonio Azpiatzuk, Paulo Anduagak eta Xabier Ugartek idatzi dute. Txokolateixan salgai egongo da, eta kultura etxean ere bai, erakusketa zabalik dagoen bitartean.

Abesbatza-ren lau zuzendariak



PATXI ANDUAGA

1966. urtean hasi zen zuzendari lanetan, abesbatza sortzearekin batera. Denbora laburra iraun arren, berarekin egin zituen abesbatzak lehenengo emanaldiak. Euskal kanta tradizionalak lantzen hasi ziren.



IMANOL MURUA

40 urtez izan zen zuzendari, 1968tik 2008ra bitartean. Berarekin egin ditu lan emankorrenak abesbatzak: topaketak, omenaldiak, lehiaketak, abesbatzekin elkartrukeak, diskoen grabaketak, eta abar.



LOLI ORDOKI

Imanol Muruaren laguntzaile finena izateaz gain, gero lekukoa hartu zion izan zen. 7 urtez egon zen zuzendari. Kanporako irteerak, beste abesbatza batzuekin elkartrukeak eta omenaldiak egin ditu.



MIREN GURUTZE PLAZAOLA

lazi jarri zen zuzendari. Errepertorio berria, kanta berriak eta abesbatzari aire berria eman nahian hasi da. Berarekin elkartuak egiten hasi dira –Zaragozako Belxitekoekin–, eta 50. urteurreneko ekitaldiak ere bai.

Bluesaren sustrai sakonetara bidaia Diablues & Bluecifer bikotearekin

Autoekoiztu duten 'DisCovers' lana bihar Oxirondo plazan aurkeztuko dute

A. ARANBURUZABALA | BERGARA
Blues akustikoarekiko pasioak batu zituen Belceblues taldeko Asier Elortza eta haren gazte garaiko lagun min Mikel Etxeberria 2014. urtean.

Proiektuak bluesaren sustrai sakonetaraino eramanez du bikotea, Mississippiko doinu zaharrei ukitu pertsonala emanez. Blues akustikoaren ohiko instrumen- tazioa erabiltzeaz gainera, doinu eta tresna bereziekin apaintzen dute euren soinua: ahotsekin jolastuz, eta, besteak beste, dro- boaren eta tronpetaren doinuekin.

FITXA



DIABLUES & BLUECIFER

DISCOVERS

Estiloa: Bluesa.

Argitaletxea: Autoekoiztua.

Kantu ezagunen bertsioak
"Gure estilora eramandako eta ingelesez abestutako aspaldiko blues kantuen bertsioak dira argitaratu berri dugun bilduman batu ditugun kantuak. Oso zahar- rakk dira gehienak, 1920-1950 urte bitartekoak. Kantu akustikoak dira, giro lasaian entzutekoak eta detailez betetakoak", azaldu du Asier Elortza abeslariak.

Elortzak etxean daukan estu- dio txikian grabatu dute. Kon- zertuetan eta *Diabluesbluecifer .blogspot.com.es* atarian eskura daiteke, bost eurotan.



Mikel Etxeberria eta Asier Elortza iazko Hondarribiako blues jaian. | A.E.

Datorren astean, Londresera
Bedelkar elkarteak bihar, zapa- tua, 20:00etan hasita, Oxirondo plazan egingo duen Udaberri Egunaren baitan herrikideen aurrean aurkeztuko du bikoteak lan berria.

Herrikoaz gainera, datozen asteetarako ere beste hainbat kontzertu dituzte lotuta: "Lon- dresera goaz datorren asteburuan eta ekainaren 30ean, berriz, Tolo- sako Blues Jaialdian izango gara", kontatu du abeslariak.



Jalgi egitasmoaren lehen eguna astelehenean. | AIARALDEA KOMUNIKAZIO LEIHOA

Euskal komunikabideak elkarlanean Jalgi ekitaldian

Ruper Ordorikak kontzertua eskainiko du Amurrion, euskal kultura suspertzeko egitasmoaren barruan

IRATI ELORTONDO | ARRASATE

Astelehenetik zapatua, Aiaraaldeko eskualdean hainbat kontzertu, emanaldi, tailer eta ipuin kontaketa antolatu dituzte euskal kultura aurrera eramateko asmoz. Bederatzi herrian banaturik: Audio, Amurrio, Urduña, Aiara, Orozko, Artziniega, Okondo eta Arrankudiagan.

Komunikabideak laguntzan

Jaio berri den egitasmoa da Jalgi, *Euskal kulturaren plaza ibiltaria* lelopean, hain zuzen ere. Euskal Herri osoko komunikabideen laguntzarekin, Gotzon Barandiaran antolatzaileak gogotsu dihardu lanean etorkizunean euskal kulturak indar handiagoa

izan dezan: "Oso egoera prekariorioan ari dira gehienak, eta hauek ere indar handia behar dute. Batzuk sarituak izaten dira, eta beste batzuk erabat baztertuak. Gaztelaniaz edo frantsesez ari diren egunkariak indar handiagoa izango dute eta horri ere aurre egiteko beharrezkoa ikusten ditut bailarako komunikabideak."

Etorkizunari begira

Ekitaldi gehiago antolatuta eta aurrera jarraituta egoera guztiz normalizatua izan daitekeela azpimarratu du Gotzon Barandiaranek: "Horrek ekarriko luke euskal kultur sortzaileok etengabe gure kultura aldarrikatzen

ez egotea. Sortzen ari garena geurea dela, euskaraz dela eta gure herria eta kultura aurrera eramatea beharrezkoa dela."

Datozen emanaldiak

Gaur gauean Amurrion Ruper Ordorika oñatiarra igoko da oholtza gainera 21:30ean Igor Arzuagarekin batera. Horrez gain, Urduñan, Esne Beltza taldeko kide Xabi Solano gaztetxean arituko da 19:00etan. Eta 21:00etan, berriz, Izar Mendigurenek eta Miren Amurizak herriko kaleetan zehar bertso-poteoan jardungo dute. Zapatuan, Gorka Urbizu, Hesian, Anari eta Garilak 26 erromeria taldeak kontzertua eskainiko dute 18:30etik aurrera.



GOIENA

RUPER ORDORIKA
ABESLARIA

"Goienak astero prentsa jarraitua argitaratzean, euskal kultura suspertzen da"

Ruper Ordorika oñatiarrak Amurrion eskainiko du gaur kontzertua 21:30ean bere taldearekin batera. Euskal kultura suspertzeko egitasmo paregabea dela dio, azken urteotan eboluzio bikaina egon baita.

Nola sentitzen zara Jalgi ekitaldiko parte izanda?

Anbizio handia dago atzean eta uste dut ekitaldia amaitu arte itxaron behariko dugula emaitza baloratu ahal izateko. Baina primeran iruditzen zait, egitasmoak euskal kultura sustatzen du eta sortzaileontzat ezinbestekoa da.

Nola sustatu beharko genuke euskal kultura?

Egia esan, mota hauetako ekitaldiek aurrera jarraitzen laguntzen dute, eta hori da garrantzitsuena. Komunikabideen egitasmoa ere eskertzekoa da. Goienak egiten duena txalotzekoa da, astero-astero prentsa jarraitua argitaratzea; horrek ere suspertzen du euskal kultura.

Nola dihardu euskal kulturak eta nola eboluzionatu du?

Nik guztia ederto ikusten dut, garai ilunagoak bizi izan baititut, eta esango nuke askoz hobeto gaudela. Gutxiengo garenaz gero kontuak atera beharoko ditugu eta ahal den heinean aurrera jarraitu.

Bihar hasiko da, Bergaran, BET II. elektronika topaketa

IRATI ELORTONDO | BERGARA

Bigarren aldiz antolatu dute BETeko kideek Bergarako elektronika topaketa. Bihar, zapatua, hilak 28, hasita, 16:00etatik 06:00ak arte arituko dira giroa alaitzen.

Disko jartzaileak

Disko jartzaile baterano eta berriak gonbidatu dituzte eta guztira 13 disko jartzaile arituko dira Bergarako gaztetxean. Hala nola Polybius Trax eta Clasicos Del Ruido musika elektronikoa sustatzen duten diskoetxe independenteak dira eta Der Kapitan, Gus Van Sound eta VJ Render dira buruak, Bartzelonatik etorriko dira Bergarako gaztetxea girotzera. Osvaldo Wilson bilbotarra Tenerifen eman da ezagutzera eta ordubeteko bi saio eskainiko ditu, tropical, italo, disko eta electro funk doinuak nahastuta.

Javi Pez eta Telmo Trenor donostiarrak ere igoko dira oholtzara; Javi, disko jartzaile izateaz aparte, festen antolatzaile ere bada. Telmok musika beltzera jotzen du. Vortex Count ere arituko da Bergaran, doinu abstraktu eta esperimentalak erakutsiz. Bergararrak ere arituko dira bertan, Ttun Ttun Brigade taldea eta BET DJak. Kastil gasteiztarrek artista internazionalak eskainiko ditu. Azkenik, Chit Chat Sex Band iruindarrak igoko dira oholtzara; beraien soina electro-clash, ebm eta punk bezala sailkatu daiteke. Asier Baltzategi antolatzailearen hitzetan: "Gure helburua elektronika barruan dauden estilo ezberdinak herriari erakustea da."

ESANAK

"Orain jende gehiagok entzuten du elektronika, eta pozgarria da"

ASIER BALZATEGI | BET KOLEKTIBOA



Topaketa 2013an. | IMANOL SORIANO

Maider Arregik ezin izan du finala irabazi Mutrikun

Plazatik Gaztetxera sariketaren finala izan zen Mutrikun pasa den zapatuan. Hala ere, Maider Arregi oñatiarrak, Gemma Urteaga bikotekide zuela, ezin izan zuen finala irabazi. Bikote honen hasierako agurra oso originala izan zen, elizkizun bat interpretatuta. Irabazleak Aitor Salegi eta Antton Aizpurua izan ziren.



PLAZATIK GAZTETXERA

Beñat Arizabaleta | Abeslaria

"Behin, saiatu nintzen astebetez musikarik ez entzuten, eta oso gogorra egin zitzaidan"

IRATI ELORTONDO | ARETXABALETA
Beñat Arizabaletak (Aretxabaleta 1997) txiki-txikitatik dihardu abesten. Pasa den irailean hasi zen unibertsitatean, Arte Dramatikoa ikasten, Bilbon. Lehen urtea izanik, emozioz beterik eta oso animatuta ikasten ari dela dio hark.

Noiz eta zergatik aukeratu zenuen musika?

Oso txikia nintzela hasi nintzen abesten. Betidanik gustatu izan zait eta beti izan dut musikarekiko erlazio oso estua. Etengabe ari naiz musika entzuten, oso garrantzitsua da niretzat. Hasieran, afizio bezala neukan grina zen, baina, denbora pasa ahala, nire bizitzaren parte bihurtu da. Zerbait profesionalagoa izatea nahi nuen, eta aurrera jarraitu dut gogotsu.

Musika klaseetara joan izan zara?
Musika eskolan ibili naiz Aretxabaletan, partiturak irakurtzen ikasteko gogoa nuelako. Aretxabaletako abesbatzan ere ibili naiz, esperientzia izateko. Orain hasi naiz dakidan guztia ikasten, aurretiaz nekiena neure kabuz ikasi dut etxean.

Zer da musika zuretzat?
Musika hain da handia eta era berean hain gauza hauskor eta txikia, zaila da deskribatzen. Nik musika egunero entzuten dut, ezin dut musika barik bizi. Ez da igarotzen egunik musika entzuten ez dudana. Ikaragarri disfrutatzen dut. Nire bizitza musikaz dago osatuta, kalean noanean musika dut beti buruan.

Bizi ahalko zinateke musika gabe?
Ez dut uste. Saiatu nintzen, behin, astebetez-edo musikarik ez entzuten, eta oso gogorra egin zitzaidan. Gorputzak musika eskatzen dit, behar izugarria dut, eta ezingo nuke inondik inora ere alde batera utzi. Emozio guztiak adierazteko balio duen tresna da musika.

Kantugiro eta Izarrak Kalean saioetan egon zinen pasa den urtean; nolakoa izan da esperientzia?
Finalera iritsi nintzen, eta izugarritzko esperientzia izan da niretzat. *Izarrak Kalean* saioan lehen aldiz abestu nuenean, niretzat ere jendaurrean abesten nuen lehen aldia izan zen. Hasieran, oso urduri jarri nintzen, zirraraz beteta. Esperientzia itzela izan zen, ahaztuko ez dudana momentua, alegia.

Youtubera igotzen dituzu bertsio

asko; nolakoa izan da esperientzia?

Orain dela bi urte hasi nintzen bideoak bertara igotzen. Nire abesti kuttunen bertsioak grabatzen ditut, eta, egia esan, esperientzia zoragarria izan da. Abestiez aparte, *vlog* tankerako bideoak ere igo izan ditut, eta ondo pasatzeko denbora-pasa aparta da. Horrez gain, nire kantuak sortzea ere gustatuko litzaidake, etorkizunean bertara igo ahal izateko, beste abeslari batzuek egiten duten moduan.

Erreferenterik baduzu?
Denetarik entzuten dut eta zaila izaten da bakarra aukeratzea. Queen, adibidez, asko gustatzen zait, txikitatik entzuten dudana taldea da. Euskarazko taldeei dagokienez, Ken Zazpi aukeratu nuke, dudarik gabe, baita Hesian ere.

Arte Dramatikoa ikasten hasi berri zara Bilbon; zer-nolako lotura du honek musikarekin?

Egia esan, lotura handia du musikarekin; kantu klaseak izan ohi ditugu bertan eta nahiko ondo uztartzen dira biak. Asko laguntzen duen ikasketa da, ezagutza maila ikaragarria bermatu dit azken hilabeteetan. Orain arte nire kabuz eta musika eskolan ikasi dudanak lagundu dit, baina unibertsitatea ezberdina da, ezagutza maila aparta lortzeko aukera dago bertan.

Non ikusten duzu zure burua hemen-dik 10 urtera?

Edozein lekutan ikus dezaket nire burua, oso zaila da hori aurreikustea. Nire ametsa musikaletatik bizi ahal izatea da; bertan, musika eta antzerkia uztartzen dira, eta aukera paregabea izango litzateke niretzat.

Zer esango zenieke orain musikan murgildu nahi dutenei?

Aurrera jarraitzeko. Lehiaketetara aurkeztu eta amorerik ez emateko. Etxean euren talentua gordetzen badute, munduak ez du inoiz haien berri izango.



Beñat Arizabaleta aretxabaletarra kantuan.

PERTSONALA

Abesti bat: Jessie J-ren *Who You Are*.

Talde bat: Queen.

Amets bat: Musikal bateko protagonista izatea.

Bizitzeko toki bat: New York.

Herriko tokirik gogokoena: Urkulu.

Abesteko leku bat: Nire logela.

Youtuber gogokoena: Boyce Avenue.

Emanaldi bat: *El Rey León* musikala.

Ahaztuko ez duzun momentua: *Izarrak Kalean* programan finalera pasa nintzenean.

Telesail bat: *American Horror Story*.

1. ETXEBIZITZAK

103. ERRENTAN EMAN

Eskoriatza. Etxebizitza guztiz jantzia ematen da errentan Eduardo Gorosarri enparantzan. Sukaldea, bi bainugela, egongela eta hiru logela. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 605 77 51 65

Pineda (Tarragona). 65 metro koadroko etxebizitza ematen da errentan. Terraza handia eta altzariz hornitua, igerilekua eta garajearekin. Hondartzatik 200 metrora. Urte osorako edo uda sasoirako. Asteko, hamabost eguneko eta hilabeteko tarifak. Harremanetarako, deitu 634 42 13 70 zenbakira edota idatziz honako helbide elektronikora: oskar.carrascal@gmail.com.

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Egoera onean dagoen bi logelako etxebizitza hartuko genuke errentan. Ezin dugu hilean 500 euro baino gehiago ordaindu. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 634 07 99 70

Arrasate. Hiru logelako etxebizitza hartuko nuke errentan. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 632 92 67 36 edo 602 30 45 86

Bergara. Bi logelako etxebizitza hartuko nuke errentan. Hilean 350-400 euro ordain ditzaket. Berdin da altzaririk ez badago. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 632 77 35 38

105. ETXEA OSATU

Debagoiena. Neska espainiarrek logela behar du errentan, azpierrementu kontratuarekin. Urgentea da. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 603 45 83 80

Logela errentan Oñati. Logela ematen da errentan erdigunetik oso gertu dagoen duplex berri batean. Pertsona arduratsua eskatzen da. Wifi konexioarekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 656 74 29 49

2. GARAJEAK

204. ERRENTAN HARTU

Antzuolan garajea. Antzuolan garaje baten bila ari gara errentan hartzeko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 676 61 15 47

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Antzuola. Emakume edo neska euskaldun bat behar dugu 5 urteko bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 606 27 87 47 edo 606 26 71 53

Ospitalerajateko laguntzailea. Aldizka, bi astean behin gutxi gora behera, familia bat Bergararik Txagorritxura mediku kontsultetara autoz garraiatzeko pertsona bat behar da. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 637 13 16 23

402. ESKAERAK

Arrasate eta Bergara. Zaintza lanetan, etxeko lanetan eta garbiketan aritzeko gertu nago. Esperientzia eta erreferentzia onak. 665 38 20 66 edo 686 44 70 38

Arrasate, Bergara eta Oñati. Gizonezko erizain laguntzailea gertu nagusiak zaintzeko. San Juan de Diosen eta Aita Mennin lan egindakoa. 639 66 57 88 edo 943 78 62 19

Arrasate. 58 urteko emakume euskalduna prest lan egiteko: pertsona nagusiak zaintzeko, etxeak garbitzeko, umeak zaintzeko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 688 66 76 91

Bergara. Neska gertu bulego eta lokalak garbitzeko eta nagusiak lagundu edota afixiak gertatzeko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 610 34 97 88

Bergara. Neska gertu etxe garbiketarako egiteko orduka. Ordua 7 euroan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 943 25 38 64

Debagoiena. Neska gertu arratsaldetan nagusi eta umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 696 84 19 51

Debagoiena. 10 urte baino gehiagoko esperientzia daukat pertsona nagusien zaintzan. Aurretik lan egindako familien erreferentziak aurkez ditzaket. Orduka edo etxean bertan lan egiteko prest. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 617 72 94 98

Debagoiena. 32 urteko emakumea gertu nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Interesatuok deitu 602 18 95 92 zenbakira edo idatziz helbide honetara: rameshparu57@yahoo.com

Debagoiena. Asteburuetan nagusiak zainduko nituzke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 687 36 02 86

Debagoiena. Baserri lanetan eta ume eta nagusien zaintzan lan egingo nuke. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Esperientzia dut. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 631 14 27 02

Debagoiena. Egunean zehar nagusi eta umeak zaintzen edo garbiketarako egiten lan egingo nuke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 681 37 60 13

Debagoiena. Emakumea gertu nagusiak zaintzeko. Izan daitezke dependentsia dutenak edo ondo moldatzen direnak. Esperientziaduna naiz. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 634 94 31 60

Debagoiena. Emakumea orduka etxeko lanak egiteko gertu. Autoa daukat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 632 77 35 38

Debagoiena. Erizain laguntzaile titulua duen neska zaintza lanetarako gertu. Esperientzia dut eta erreferentziak aurkez ditzaket. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 620 23 58 15

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.eus | www.goiena.eus/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:

PREZIO BEREZIAK GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan.

Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.

Astebeteko prezioa: 17 euro / 15 euro Goiena Klubeko bazkideentzat (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

Iragarkiak Goiena paperean eta Goiena.eus-en argitaratuko dira.

- Profesionalen moduluak.

Modulo bakarra: 22 euro (+BEZ).

1. ETXEBIZITZAK

101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

2. GARAJEAK

201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

3. LOKALAK

301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

4. LANA

401. Eskaintzak
402. Eskaerak
403. Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA

501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

6. MOTORRA

601. Saldu
602. Erosi
603. Errentan eman
604. Bestelakoak

7. ANIMALIAK

701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

8. DENETARIK

801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805. Trukatu
806. Galdu
807. Aurkitu
808. Bestelakoak

9. HARREMANAK

901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo bestela, zaintza eta baserri lanetan arituko nintzateke. Deitu zenbaki honetara: 602 32 76 80 (Sebastiana)

Debagoiena. Garbiketarako, nagusiak zaintzen lan egingo nuke, orduka edo egun osoz. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 616 35 54 96 (Carmen)

Debagoiena. Geriatriki titulua duen neskak prest orduka lan egiteko. Etxean bertan lan egingo nuke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 600 00 51 60

Debagoiena. Gizona lanerako gertu: garbiketarako, banaketak edo denetarik lanak. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 632 77 35 38

Debagoiena. Gizona prest adineko pertsonak zaintzeko, garbitasunak egiteko, lorategiko lanak, baserrien mantenua eta abar. Deitu zenbaki honetara: 634 14 36 65

Debagoiena. Mutila nagusiak zaintzeko gertu. Esperientziadunak eta sukaldean ere ondo moldatzen naiz. Autoa daukat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 647 01 74 66 (Cristino)

Debagoiena. Nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko gertu nago. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 679 30 12 37 (Arelis)

Debagoiena. Nagusiak zaintzen lan egingo nuke.

